

eman ta zabal zazu



UPV EHU

KONSTITUZIO ZUZENBIDEA

2022-2023. Ikasturtea

SARRERAKO GAIA: Konstituzioa eta ordenamendu juridikoa

1.-Zer da konstituzioa?

1.2. Konstituzioaren kontzeptu desberdinak

2.-Ordenamendu Juridikoa

2.1. Ezaugarriak:

3.-Monismo juridikoari kritika

4-. Konstituzionalismoaren sorrera:

5-. Konstituzio zuzenbidea eta zuzenbide publikoa

1.-Zer da konstituzioa?

Edozein ordenamendu juridikoan dagoen arau juridikoa. Bi zeregin dituz:

1. Herritarren oinarrizko eskubideak definitu eta berne mekanismoak ezarri
 - a. Nominalismoa: gauza asko esan baina gutxi egin
2. Botere banaketa ezarri, estatua eratu.
 - a. Botere legegile
 - b. Judizial
 - c. Exekutiboa

1.2. Konstituzioaren kontzeptu desberdinak

1. Kontzeptu arrazional normatiboa (hemen nagusia): Frantzia iraultzaren paradigmatik jaio zen, iraganarekin autsiz etorkizun berri bat eraikitzeko. Beraz, sistema legala ez da jainkoaren borondateren fruitu, teorikoki herritarren eztabaida arrazional baten fruitu izango da eta honen tontorrean balio araukorra izango duen konstituzio bat jartzen dute.
2. Kontzeptu historikoa edo ebolutiboa: adibidez, erresuma batuan dagoena. Badu konstituzioa, baina, ez dago osorik idatzita. Izan ere, historian zehar metatzen joan diren dokumentu historiko eta juridikoak biltzen dira. Beraz, ez dago hausturarik, horren ordez, jendearen aldaketara egokitzen dute konstituzioa. Laburbilduz, badute konstituzioa baina ez dago osorik idatzita, dokumentu ezberdinetan islatzen da, aldiz.
3. Kontzeptu soziologikoa: honek marxismoaren iturrietatik edaten du. Konstituzioa botere faktoreen isla da. Botere faktoreak; aristokrazia, burgesia, kontzientzia kolektiboa...dira, hau da, boterea eta boterearen zigileziarekin zerikusia dutenak .

Sistema legal osoa konstituziotik eratortzen da. (Hans Kelsen zuzenbidearen iturrien piramide).

Barruan baliozko kate bat dago, izan ere, ordenamendu juridiko baten barruan dauden arau guztiak ez dute berdina balio,hau da, mailakatuta daude.

Erreglamenduak, gobernuak ematen dituen legeak dira. Legeak, parlamentuak egindakoak eta konstituzioak, herriaren lana dira. Gainera, erreglamenduak onargarriak dira legearen arabera egina direlako eta legeak onargarriak dira konstituzioaren arabera eginda dagoelako. ***Baina konstituzioa zerk kontrolatzen du?***

Konstituzionalismoak mugimendu bezala, legearen paradigma aldatuko du. Izan ere, Antzinako Erregimenean paradigma nagusia desberdintasuna zen (pribilegioen garaia=lege pribauak), ostean paradigma berdintasunera aldatuko da.

Berdintasunak bi kontzeptu desberdin:

1. Formala: (14. artikulua) zerikusia legearen ondorioekin, legearekin eta legeak aurreikusten dituen ondorioekin lotura, honen arabera berdinak izango dira herritar bezala. Adibidez, arrazagatik ezin da pertsona bat deskriminatu.
2. Materiala: (9.2 artikulua) zerikusia errealitate materialarekin, berdintasuna bene benetako izan dadin. Adibidez, eskaintza publiko bat suhiltzaileetan eta altuera minimo bat dago, 1.80koa. Berdintasun formala bermatu egiten da baina ez berdintasun materiala, emakume ia gehienak ezingo direlako sartu, emakumeak orokorrean gizonezkoak baino baxuagoak direlako, beraz, bi altuera egon “beharko” liratezke. Bai da onargarria, bereizkuntza, berdintasuna benetakoa izateko tratu desberdina hautagaiei, beti helburua benetako berdintasuna lortzea bada (Konstituzioak onartzen du **bereizkuntza**. Ez da onargarria diskriminazioa baina bereizkuntza bai). Historiari erreparatuz, materialari lotutako lege historikoak, zergekin lotutakoak dira.

Konstituzioa Hitzarmen sozialaren adierazpena al da? (Rousseau, kontratu soziala)

Hobbes (1648)/ Locke (1688)= Parlamentuan eman kontratu soziala (jabetza dituztenak) / Rousseau (XVIII.m)= kontratu sozial unibertsala baina maskulinoa.

Boterearen eraikuntza, hitzarmen sozialaren ideiaz. Konstituzioa, hitzarmen sozialaren itzulpen juridikoa.

Bob Jessop: Ikuspegi estrategiko erlazionala. Ukatuko du konstituzioa denik hitzarmen sozialaren adierazpena. Beraz, Gatazka da konstituzioaren fenomeno hobekien azaltzen duen fenomeno. Gatazkaren ikuspegitik, konstituzio batek islatzen ditu garai historiko konkretu

batean gizartean eman diren gatazkak eta gatazka horren ondorioak. Gatazka Nork eta zein neurritan irabazi duen islatzen du.

-Konstituzio batek islatuko du une historiko batean egondako gatazka sozial eta politikoen emaitza, zeinek eta zein neurritan irabazi duen gatazka hori

*Estatu soziala: ideia bat da kapitalismoaren biziraupena ziurtatzeko. Langileentzat eskubideak aitortzen dira. XX.mendearen bigarren hamarkadan errusian iraultza eta hemengo kapitalistak iraultzaren beldurrez, ekiditeko langileei langileentzat gutxienko eskubide batzuk aitortzen ditu. Hitzarmen bat dago baina oinarria gatazka da. “Pacto entre trabajadores y empresarios”

Fukuyama: 92an sobietar batasuna desagertu eta neoliberalismoari ateak reki. Pribatizazioa bultzatu eta sustatu.

Estatu Konstituzionala: Estatu mugatu da botere absolutuak ez dituen Estatuak. Konstituziok emango dio Estatuari artikulazio juridiko mugatua.

2.-Ordenamendu Juridikoa

Estatu jakin batean indarrean dagoen sistema legala da. Sistema ordenatu eta balio juridikokoa litzateke (zuzenbide balioa).

(Sistema: beraien artean harremana dagoela adierazteko)

2.1. Ezaugarriak:

- 1. Unitarioa:** instantzia bakar batek sortzen du zuzenbidea. Zein da orain instantzia? Estatuak sortzen du zuzenbidea. Estatutik jaiotzen da, estatuak emango unitarioa izatearen ezaugarria. (Filtroa) Zuzenbide izaera duten arau guztiak estatutik datozela.

*Batzar Nagusietan onartzen diren arauak erregelamenduak dira. Lehen maila horretan kokatzen dira. Euskadiko Parlamentuak legeak dira.

Legea, ohitura eta zuzenbidearen printzipio nagusiak. Espainiako zuzenbidearen iturri nagusiak. Lehenik eta behin, legeak ezartzen duena bete behar da. Arazoa konpontzeko legerik ez dagoenean, kode zibilak dio, normalean, ohiturara joatea izaten dela konponbidea. Ohiturak erabiltzea ezinezkoa izan ezean, zuzenbidearen printzipioetara jo, hauek

ordenamendu juridikoari oinarria ematen dioten printzipio orokorrak izango lirateke hauek. Adibidez, berdintasuna bezalako oinarria aipa genezake.

Agente pribatuek, botere maila handia dutenez, zuzenbidea eraikitzeko orduan eragin zuzena dute. Hori dela eta, ezin dugu esan unitarioa denik. Erabakiak hartzeko orduan, Espainiar estatuak hartu zuelako baina honek jasandako presioak kanpotik etorri ziren.

2. **Koherentea:** Ez daude arauak sistemaren barruan ondorio kontrajarriak jartzen dituztenik legearen aurrean. Praktikan kontraesan horiek atera egiten dira baina hauei aurre egiteko mekanismoak sortu behar izaten dira. Adibidez, apostu etxeak. Demagun jaurlaritzak arau propioa ateratzen du hau debekatzeko. Aldiz, espainiako gobernuak bestelako arau bat sustatzen du, apostu etxeak libre dela esanez.

Kontraesan juridiko honi, **antinomia** esaten zaio. Sortu egiten dira edozein sistema legaletan. Sistema legal dibersifikatuetan kontraesan hauek are gehiago sortzen dira.

- **Hierarkia printzipioa** → Bi arau juridiko desberdinen artean, hierarkiko nagusiki. Adibidez, eusko lege biltzarrak erabaki bat hartzen duela eta Bilboko udalak beste bat. Honen aurrean, eusko lege biltzarraren araua aurrera doa. Udal ordenantza bat baina indar handiagoa dauka, autonomiako gobernuak. Hierarkikoa izan ohi da nagusitzen den mekanismoa.
- **Kronologikoa** → Printzipioz kontraesan bat egotekotan bi arauen artean, azken araua nagusituko da. Esaterako, 2018an onartzen bada lege bat eta 2023an beste bat, 2023ko legea izango da nagusia, “lege honek (2023koa) indargabetu egiten ditu aurreko legea (2018koa)...”
- **Berezitasuna/Zehaztasunaren printzipioa** → Kontraesan bat egotekotan orokorra den arau baten edo oso zehatza den arau baten artean, nagusitzen dena erregulazio zehatzagoa egiten duena litzateke. Adibidez, Kataluniako erreferenduma. Konstituzioako legea aplikatu, Katalunian aplikatu zenaren aurka. Berezitasunari dagokionez, honek arau orokor/zabal baten aurrean sortu ahal den kontraesan baten aurrean, zehaztasun gehiago duen arau bat sortzen du. Hau da, apostu jokoen inguruan arau batzuk ezartzen dute, baina fenomeno zabal honen inguruan, beste lege bat sortzen dute, kasu honetan kirol apostuen ingurukoa. Lege hau, berezitasun gehiagorekin sortzen da, eta honek nagusitasun gehiago izango ditu.

3. **Osoa da:** Ordenamendu juridikoak arazoan aurrean erantzunak eman behar dituzte baina praktikan hutsuneak azaleratu egin ohi dira. Hutsune normatiboak agertzen dira eta horren aurrean hutsunea integratu egin beharko da. Erantzuna bai edo bai eman bario epaileak. Horretarako teknika nagusia **analogia** da: Arau baten ondorioak antzekoa den kasu batean zabaltzeko teknika juridikoa da. Berez arauen sartzen ez dena, baina antzekoa dena. Demagun, futbitoria jolasterakoan ez daude joko honen inguruko araudirik, baina futboleko araudi batzuk daudenez, futbotoan futboleko araudiak aplikatzen dira. Analogiaren ideia da, espazio baten dauden hutsuneak (legediei dagokionez), antzekoak diren beste eremu bateko araudia esleitzea zure espazioan. Analogia ezin da erabili zuzenbide penalean. Debekua da zuzenbide penalean analogia erabiltzea, zigortzen da espreski araututa dagoen hori. Terreno zibilean sortzen diren arazoak konpontzeko erabiltzen da analogia.

A. Heterointegrazioa → Ordenamendu batek jotzen duenean atzerriko ordenamendu batekin. Kanpoko herrialde baten arauak aplikatzen ditu analogia bidez. Esaterako, joko etxeak erregulatzeko arauak ez daude Espainia mailan eta Frantziak dituen arauak baliatzen ditu jardun hauek erregulatzeko.

B. Autointegrazioa → Ordenamenduak barne mekanismoak erabiltzen dituen hutsune horiek betetzeko.

3.-Monismo juridikoari kritika

Ikuspegi pluralistaren beharra. Historikoki, azaltzeko zuzenbidearen iturri sistema. Bi premisa erabili dira:

1. Soilik juridikoak dira estatutik jaiotzen diren arauak.
2. Arau horiek sistema oso koherente eta sistematizatu bat osatzen dutela, alegia, akatsik gabekoa.

Estatuak legegintza monopolizatuko du poliki-poliki. Estatuaren funtsezko osagai legegintza ahalemena, desnazionalizatu egin da eta nazioartekora pasa zen. Geroz eta gehiago, agenda globaletara bideratu dira. Gaur egun, badaude subjektu ezberdinak daude legeei eragiten diena. Adibidez, World Trade Organization. Munduko merkataritza organizazioa, arau neoliberalak produzitzen dituen elkarte bat. Estatuak bete behar dituztenak.

Botere legegileari bere funtzio propioa kendu zaio. Horregatik, egun, monismoa ez zaigu aski ordenamendu juridikoaren azalpena estatua den soilik. Estuaz gain, beste hainbat subjektuk osatzen dute ordenamendu juridikoa, erakunde transnazional eta nazionalak hain zuzen ere.

4-. Konstituzionalismoaren sorrera:

Konstituzionalismoa, mugimendu ideologiko bat litzateke, gaur egun kontituzioa ulertzen dugunaren defentsa egiten duena.

Hau ulertzeko hiru iraultza izan beharko lirateke kontuan: Ingalaterrakoa (1648)-(1688), Ipar Amerikakoa (1776) eta Frantziakoa (1789). Neurri batean antiabsolutistak izan ziren mugimendutzat kontsidera genitzazke. Ingalaterran zentratuz, formalki ez du inoiz izan monarkia absoluturik baina monarken jarrerak kutsu absolutua izan zuten beraz Erregea parlamentuaren gainetik kokatzen zen. Honela, 1688. urtean Iraultza Lortatsua eman zen, zeinetan mugimendu burgesak haien eskubideen alde altsatu ziren, monarka haren postutik kendu nahiez. Ipar Amerikaren kasuan, iraultzaren leloa “no taxation without representation”. EBk izugarrizko inpostuak ezarri Ipar Amerikako 13 koloniei baina Londreseko parlamentuan ez zeuden errepresentatuak eta egoeraz nazkatuta, independentziaren aldarrikapena gauzatu zuten. Neurri batean absolutismoaren aurka egin zutela esan genezake, haien eskubideak berma zitezten. Frantziari dagokionez, burgesia egoeraz nazkatuta, eskubide zibil eta politikoen alde altxatu eta noblezia, eliza eta monarken aurka egiten dute, absolutismoa suntsitzen saiatuz.

5-. Konstituzio zuzenbidea eta zuzenbide publikoa

Bi adar nagusitan banatzen da zuzenbidea:

1. Pribatua: Partikularren arteko harreman juridikoez arduratzen den eremua.
2. Publikoa: Botere publikoen arteko harremanak arautzen dituen zuzenbidearen eremua. Herritarrek botere publikoekin dituzten harremanak arautzen dituen eremua.

Konstituzio zuzenbidea eremu publikoan sartzen da. Zigor publikoa ere.

1.-GAIA: estatuaren jatorria, elementu eratzaileak eta antolaketa erak

1.- Estatu modernoaren sorrera eta garapena

1.1 Zer da estatua?

2. Estatu modernoaren elementu eratzaileak

3. Estatu erak eta gobernu erak:

3.1 Estatu erak:

3.2 Deszentralizazio ereduak: Federazioa eta autonomia.

3.3 Gobernu erak:

1.- Estatu modernoaren sorrera eta garapena

1.1 Definizioa eta ezaugarriak

Lurralde determinatu edo mugatu batean botere politiko baten menpe dagoen herri bat juridikoki antolatzean sortzen den ente soziala da estatua.


Estatu modernoaz hitz egingo dugu. Modernitatearen garai historikoari lotzen zaion forma politikoa delako. Modernitate garaia, Amerikako konkistarekin lotzen da. Dakigunez, aurretik bestelako forma politikoak egon izan dira historian zehar, esaterako: hiri estatuak (greziako polisak eta erromako civitas-a), ekialdeko inperioak (Pertsia, Txina..) Erdi Aroko poliarkia...

Aurrekoa esanik argi izan behar dugu Estatu modernoaz ari garenean, boterea bere baitan kontzentratzen duen eta beraz boterearen monopolioa duen estatuaz ari garela. Alegia, boterearen monopolizazio, zentralizazio eta instituzionalizazio prozesuaren fruitu litzateke.

Ezaugarriak:

- Muga iraunkorrak ditu. (garrantzitsua) adibidez, inperioak ez dituzte mugak beti gehiago nahi dutelako.
- Administrazio propio bat, hau da, aparatu administratibo propio bat aginduak betearazteko.
- Armada iraunkorra izatea.
- Instituzionalizazioa: pertsonak alda daitezke, baina instituzioak mantentzen dira.

1.2. Bilakaera historikoa



1.2.1. Estatu absolutua

Estatu modernoaren agerpena eta sustapena XV-XVIII. mendeen artean ematen da, Estatu absolutu bezala, Monarkia absolutuen forma politikoaren pean, prozesu historiko luze baten ondorioz.

Erromatar inperioaren gainbeherak (k.o. 476 urtea) hutsunea utzi zuen boterean Europa mendebaldean (Konstantinopla ez zen 1453 urtera arte eroriko). Ondorioz, poliarkia izango da garai hartan nagusituko den fenomeno politikoa, izan ere, botere “txiki” asko sortu ziren Erromatar inperioaren gainbeherarekin. Boterearen atomizazioa ematen da botere iturri askorekin. Horregatik, IX eta XIII. mende bitartean antolakuntza feudala izango da nagusi. Gainera, nota karakteristikoa da, monarkiaren boterea ahula zenez, gobernatu ahal izateko jauntxoekin basailutza-harremanak osatu behar izan zituztela lurraldez lurralde.

Ikuspegi ekonomikotik, biziraupeneko ekonomia zegoen eta lehen sektorean oinarritzen zen. Nabarmentzekoa da, estatu formen aldaketak beti oinarrituko dira aldaketa ekonomikoetan.

IX eta XIII. Mendeen artean antolakuntza feudala zen nagusi Europa mendebaldean. Baina XII eta XV. Mendeen bitartean aldaketa bultzatuko duten hainbat faktore emango dira, besteak beste: nekazaritza ekoizpenaren handitzea, merkataritzaren berpiztea eta hirien garapenak.

Aldaketa ekonomikotik jarraituz, nekazal produkzioaren handitze bat egongo zenez ekonomia jada ez zen soilik bizirauteko merkataritzarako izaten ere hasiko da eta produkzioaren handitzeak merkataritzaren garapena ekarriko du.

Merkataritzaren garapenak hirien sorrera ekarriko du, beraz, merkataritza hirietara emigratuko dute eta nekazariak nekazal eremuetan geratuko dira. Honek, ikuspegi soziologikotik, aldaketa nabarmen bat ekarriko du: klase sozial berri baten agerpena, burgesia. Gainera, burgesia izango da, monarkiak baliatuko duena estamentuen gaineko nagusitasuna gorpuzten joateko. Hau da, denboraren poderioz, lotura feudalak hautsiz joango dira eta errefeek boterea berenganatuko dute, botere subiranoa, guztien ginetik nagusitzeko gaitasuna duena. Ondorioz, haien izango dira bakea eta segurtasuna berma dezaketen bakarrak.

Subiranotasuna = super-omnia = guztiaren ginetik

Absolutismoaren autore nagusiak

Bodino (1530-1596): “Errepublikako sei liburuak” errepublikak ez du guk gaur egun ematen diogun adiera. Bodin monarkia absolutuaren aldekoa zen eta Errepublika hitza “Res-publika” = gauza publikoa esan nahi du. Lan honetan, Bodinok absolutismoaren aldarrikapena egiten du eta monarkiak, botere subiranoa behar duela dio. Bestalde familia dago, eta familia-burua gizonezkoa da, beraz, denon arteko hori kudeatzeko errepublika behar da eta horren gainetik erregea dago.

Hobbes (1588-1679): bakea eta segurtasunarekin obsesionatua zegoen. Ingalaterrak formalki ez zuen inoiz monarkia absolutua izan, baiana, XVII. mendean monarkia eta parlamentuaren arteko gatazka garrantzitsua batek, herria gerra zibil batera eraman zuen. Horren ostean Hobbsek absolutismoa proposatu zuen konponbide bezala. Hau da, botere osoa sujetu bakarrari ematea, egia esan, Hobbsek ez zuen esan bai ala bai erregeari eman behar zitzaionik boterea, baizik eta, sujetu zehatz eta bakar bateri. Kontraktualista ere bada, hau da, hitzarmenaren aldekoa eta hitzarmenaren bidez botere guztiak sujetu bati ematea proposatzen zuen. Ezpatak, botere militarra adierazi nahi du. Lan entzunena, Leviathan.

Westfalilako bakea

Ikuspegi historikotik, bada mugarri garrantzitsu bat: Westfaliako bakea (1648). Europa osoan urte luzean gatazka militarra egon zen eta potentzia desberdinak bildu ziren hitzarmen bat egiteko, zehazki, amaiera emateko 30 urteko. Bertan egin ziren bake hitzarmenetan potentziek independentzia eta subiranotasuna errekonozitzen zioten elkarri. Alegia, jada ez dago inperio bat zabaltzearen nahia, baizik eta, elkarrekiko errekonozimendua. Westfaliako bakea hartzen da europako estatu sistemaren egonkortasunaren mugarri. Honek ez du esan nahi ez direla gerra egoera gehiago egongo.

Estatu liberala

Aipatzekoak dira, XVII-XVIII. mendeko iraultza burgesak, Ingalaterran, AEBtan eta Frantzian. Burgesiak terreno politikora eraman nahiko du terreno ekonomikoan duen protagonismoa. Horretarako “pribilegio” legalen (formalen) amaiera aldarrikatuko du.

Estatu liberala, gizonezko zuri eta jabearen neurritik egindako Estatuak izango da. Orduan egindako eskubide adierazpenek ez dute izango batzuetan eman zaien unibertsaltasuna, emakumeak, pobreak edota herritar arrazializatuak haietatik kanpo geratuko baitira,

eskubiderik gabeko subjektu bezala. Oro har, sufragio murriztua gailenduko da (demokraziarik ez).

Estatu liberalak bilakera izango du, XX. mendearen hasieran gertatuko zen krisirarte. Lehen mundu gerraren sorrera lotzen da estatu liberalen kolapso nagusi bezala. Gainera, Lehen Mundu Gerraren faktore nagusia inperialismoa izan zen.

Estatu Liberalaren krisiaren hainbat faktore:

- Ezberdintasun sozialen areagotzea. Ezberdintasun sozialak geroz eta handiagoak ziren. Frantziako iraultzan, hirugarren estatua agertuko da eta gero laugarren estatua, proletarioa. Berdintasun materialik ez dagoelako.
- Aldarrikapen demokratizatzaileak egongo dira eta hortik garatuko dira, alderdi politikoak agerpena, sindikatuak...
- Sufragio Unibertsalaren aldarrikapena gertatu zen garai artan eta Estatu Liberalak izugarrizko mugak jarri zituen eta bereziki emakumeei.
- AEBn, lehenago aitortu zitzaizkien sufragio eskubidea, emakumeei beltzei baino. Honek ere krisira eramane zuen. Estatu Liberala ez zen gai izan estatuen arteko harreman baketsua izateko eta honek II.mundu gerran eztanda egin zuen.

Elite zaharra desagertu egin zen boteretik eta elite pribilegiatu berri bat ezarri zen, hauek, botere ekonomikoaren jabe ziren.

XX.mendetik XXI.mendera Estatu Soziala izango dugu.

Estatu Soziala

Estatu liberalaren erreforma bat izango litzateke, klabe sozial batean zehazki. Alegia, sistema kapitalistaren oinarriak auzitan jarri gabe, langileari minimo batzuk bermatu behar zaizkiola planteatzea. Hori bideratu ahal izateko gertakari garrantzitsuak izan ziren. Horietako bat, Errusiako Iraultza, hau, erabateko haustura izan zen ,sistema barri bat zelako indarrean zegoen sistema hori desagertzeko asmoarekin. Ez zen sistemaren erreformarik planteatu errotiko eraldaketa baizik. Alternatiba bat planteatzen zen eta sistema sozialistaren eraketa zen.

Weimarreko errepublika izango da, Estatu Sozialistaren lehen hastapena. Alemaniakoa, Europa mendebaldean onartuko den lehen konstituzio soziala izango da. Alegia, langileen eskubideak, eskubide sozialak, babes sozialerako sistema bat, hezkuntza eta osasunerako eskubidea arautuko dira. Adostasuna egongo da, langileen eta patronalaren artean eta adostasun hau honako honetan oinarrituko da; langileriak ez du iraultzarik izango ondorioz, sistema kapitalista ez da izango orain arte izan den bezelakoa, eskubide batzuk aitortuko zaizkio.

Keynesek kapitalismoaren sistemari jarraipena ematearekin batera proposamen berri bat eskainiko du, estatuaren esku-uhartzearena hain zuzen ere. Honela, sistemak denbora gutxira sor zitzakeen irregulartasunei erantzuna edo irtenbidea eskaini al zion estatuak, epe luzera sistema bere kabuz erregulatzen utziz (Adam Smithen esku ikustezina). Beraren aburuz, kontsumismoa eduki dezagun, langileriak dirua izan behar zuten. Beraz, langileak lanean jartzearen ondorioa, kontsumismoa izango zen. Keynesek ez zuen etorkizunean pentsatzen baizik eta momentuan bertan jasaten ari ziren langabeziaren aurrean estatuak hartu beharreko neurriak/tresnak proposatu zituen.

Estatu sozialak beraz, planteatuko du eskubide sozial, ekonomiko eta kulturalen aitortza.

Estatu soziala 1973 arte iraun zuen, Petrolioaren krisiaren ondorioz. Israel eta Palestinaren arteko gatazkan, presionatzeko asmoz, hau esportatzen duten herrialde arabiarrek iturria moztu zuten. Prezioak disparatu egin ziren, beraz, petrolio erabiltzen zuten produktu guztiak prezioz igo ziren. Ondorioz, estatuaren diru sarrerak berantz egin zuten, beraz, ikuspegi sozialetik estatuak egin beharko lukeen inbertsioak ezinezkoak izan ziren. Estatuak ez zeukalako horretarako dirurik.

Keynesen planteamenduaren aurka adieraziko diren pertsonai garrantzitsuen artean Reagan, Tactcher eta beste hainbat edukiko ditugu. Esan daiteke Chicagoko Ekonomia Eskolako Milton Friedman izan zela neoliberalismoaren buru nagusia, mundu mailan zabalaraziz. Neoliberalismoak defendatzen zuen ideien artean: Estatu publikoaren pribatizazioa., desarautzea (desregulación), merkatuari uko egin eta esparru askea eman merkatua egiteko.

2. Estatu modernoaren elementu eratzaileak

Estatu modernoaren elementu eratzaileak hiru dira:

2.1.-Botere subiranoa

Boterea bai, baina nagusirik onartzen ez duena. Subiranotasunak badu itzulpen bat estatu barrura begira eta beste bat nazioarteari edo kanpora begira. Lehenengoari dagokionez, subiranotasuna izateak indarraren monopolioa dakar edo koakzio fisiko legitimoaren monopolioa (Polizia da estatuaren botere monopolisitikoaren adierazle, beraiek eraman dezakete pistola baina gainontzeko hiritarrek ez).

Bigarrenari dagokionez, estatuen arteko berdintasun subiranoa, estatuak nazioarteko akordioak egiteko subiranotasuna izan behar du. Eusko Jaurlaritzak nazio arteko hitzarmen bat egin nahi badu, Espainiar Estatuak baimen berezi bat eman behar lioke. (Spoiler: Ez da pasako inoiz.) Subiranoa izatearen ordaina nazioartean, estatu baten barne aferetan ez esku hartzeko printzipioa da. (oso garrantzitsua). Adibidez, Kataluniako Erreferendunaren inguruko gatazkan, Europako herrialdeek hartutako jarrera. Espainiaren afera zela esan zuten eta beraiek ez direla nor afera horietan sartzeko.

2.2. Lurraldea

Lurraldea litzateke subiranotasun hori proiektatzen den territoria edo lur eremua, eta ikuspegi juridiko batetik, ordenamendu juridiko estatalaren balio eremua. Subiranotasuna proiektatzen da beraka lur azpira eta goraka aire espaziora. Kostaldean ordea, itsaso territoriala (itsas territoria, zonalde jarraitua eta zonalde ekonomiko eskusiboa).

2.3. Herria

Herria litzateke estatu jakin baten bizi diren pertsonen komunitatea.

Herria ez da definitzeko erraza den kontzeptua, ze izan daiteke:

1. Batasun juridiko-politiko bat (Frantziaren ikuspegia): legea aplikatzean pertsona oro da frantsesa. Berdinu ze hizkuntzatan hitz egiten duten edo ze arrazatakoa den
2. Batasun kulturala. (Erromantizismoa). Ezaugarri kultural berdinak dituzten pertsonen komunitate bezala ulertzen dena (Alemaniaren ikuspegia).
3. Herri masa batekin identifikatu edo klase sozial menperatu batekin (Marxismoa).

Herria eta nazioa ez da gauza bera. Nazioa da, subiranotasunaren jabe den herria. Nazio bat eta bakarra dago, Espainiarra. gainerakoak, (euskaldunak, katalanak, galiziarrek, asturiarrak...) nazionalitate edo erregio izan daitezke, baina ez nazio.

3. Estatu erak eta gobernu erak:

Eredu politikoaren azterketan bi ikuspegi daude: estatu erari dagokiona eta gobernu erari dagokiona.

3.1 Estatu erak:

Estatu erak, botere subiranoa, lurraldea eta herria antolatze moduarekin zerikusia dauka.

1. **Unitarioa** (Frantzia): Frantzia eredu finkatzen duena da. Herria, lurraldea eta botereak, homogeneous, sinpleak eta uniformeak diren estatu mota. Frantzia Errepublikaren barruan, herri bakarra, Frantzia eta aitoren den hizkuntza bakarra, frantsesa. Frantzian, parlamentu bakarra, parlamentu nazionala. Departamentuak daude, zatiketa administratiboa dira, lurraldez lurralde eskumen batzuk kudeatzen dituen. Azpimarra non dago? Botere legegilea bat eta bakarra denean. Boterea edo ordenamendu juridikoa sinplea, homogeneous da.
2. **Konplexua:** ordenamendu juridikiko dibertsifikatua. Lurraldea, herria eta boterea ez dira homogeneous. Lurraldean, herrian eta boterean zatiketa daudela esan nahi du. Federala eta Konfederalaren arteko ezberdintasuna jakiteko gakoa, botere subiranoa non dagoen jakitea da.
 - a. Federala (Alemania): Botere maila subiranoa egitura federalean kokatzen da eta gero badaude azpi-estatu deitzen diren horiek zeinak bere botereak badituzten baina ez diren subiranoak kontsideratzen. Hortaz, erabaki subiranoak maila federalean hartu beharko lirateke.
 - b. Konfederala (Suitza?): Botere subiranoa eta erabaki subiranoak azpi-estatuen mailan mantenduko lirateke hemen. Hori dela eta, estatuaren subiranotasuna zatituta egongo dela esango da, azpiestatu horiek haien eskuetan baitutelako botere ahalmen hau.
3. **Erregionala / autonomikoa?(Espainia):** Batzutan elementu unitarioak batzen ditu eta beste batzuetan konplexuak. Hau da, tartean kokatzen da

3.3 Gobernu erak:

Aginte politikoaren antolaketa zehatza nolakoa den, zehazki erreparatzen dio estatuko hiru botere nagusiak nola banatzen eta harremantzen diren. Batez ere botere legegile eta exekutiboaren banaketa zehatzean enfokatuz.

1. **Sistema presidentzialista (AEB)** → Banaketa zorrotza botere exekutibo eta legegilearen artean. Bi botere horien artean zatiketa garbi bat ematen da. Estatu burua eta gobernu presidentea pertsona bera dira eta Estatuko Presidenteak dauka botere exekutiboa. Ez dago Presidentearen (exekutiboaren) erantzukizun politikorik Parlamentuaren aurrean, Presidenteak ez baitu Parlamentuak hautatzen. Hala ere, Impeachment prozesua bai existitzen da, baina ez da ardura politikoak exijitzeko, arau-hauste larrien aurreko erantzukizuna exijitzeko baizik. Bestalde, hauteskunde presidentzialak eta parlamentarioak daude.
2. **Sistema parlamentarioa (Espainia)** → Banaketa ez da hain zorrotza, elementua zentrala gobernuak parlamentuaren konfiantza politiko osoa behar duela delako. Herritarrek parlamentua hautatzen dute eta gero, parlamentuak aukeratzen du, gobernu burua. Gero, berak, gobernuakideak hautatzen ditu. Hau da, hauteskunde parlamentarioak daude, baina ez presidentzialak.

Parlamentua eta Gobernuaren arteko konfiantza ziurtatzeko hainbat lotura tresna daude, besteak beste:

- a. Inbestidura (99art.)
- b. Konfiantza-galdera (112art.) → gobernuak parlamentuari galdetu ea haiengan konfiantza izaten mantentzen duten. Kongresuak konfiantza berrestuz gero aurrera ekingo diote baina hori gerta ezean, ???dimisioa eman behar du eta zentsura???
- c. Zentsura-mozioa (113art) → Kongresuak exigitzen dio
- d. Parlamentuaren disoluzioa (115 art).(governuburuak disolba dezake) Gobernuaren erabakia da, nahiz eta, Erregeak onartu behar duen, baina, erregeak bere kabuz ezin duen erabakia hartu. Erabaki politikoa izan behar da.

Azpimarratzeko ezaugarria bat: Botere exekutiboa gobernuak dauka, ez estatu buruak. Estatu buruzagitzaren ereduaren arabera, monarkia ala errepublikan egon gaitzke.

3. **Sistema semi-presidentzialista (Frantzia)** → aurreko bien arteko nahasketa bat litzateke. Nahi bada, ezaugarriak azpimarragarriena da botere exekutiboa ez dagoela erakunde bakar baten esku. Alegia, Estatu buruak eta gobernuak dituzte ahalmen exekutiboak.

2. GAIA: Espainiar Estatuko historia konstituzionala

1. Espainiar konstituzionalismoaren ezaugarriak historian zehar

2. Mugarri historiko ezberdinak Euskal ikuspegi batetik

2.1. Guda karlistak eta bere ondorioak Euskal Herrian

2.2. 1931ko Errepublika demokratikoa

2.2.1. Gertakari historikoak

2.2.2. Prozesu konstituziogilea

2.2.3. 1931ko Konstituzioa:

2.2.4. Errepublikaren faseak:

2.2.5. Lurralde gatazka, Euskal Herrian

2.3. Sistema politiko franquista

3. Francoren diktaduratik 1978ko erregimen politikora

3.1 Trantsizio-aurrea

3.2 Trantsizioa

3.2.1.- Lehen fasea: (1975eko abendutik 1976ko ekainera)

3.2.2.- Bigarren fasea (1976ko uztaila-1978ko abendua)

3.2.3. Erreforma politikorako legea

3.3. 1978ko Konstituzioa

1. Espainiar konstituzionalismoaren ezaugarriak historian zehar

Hitz gutxitan laburbilduz, ezaugarri hauek nabarmentzen dira Espainiar Estatuko Konstituzionalismoan (berezi XIX. Mendean):

1. **Ezegonkortasuna:** konstituzio asko eta konstituzio proiektu ezberdinak ere. 8 Konstituzio gehi proiektu batzuk. Konstituzioak normalean irauteko daude pentsatuta, indarrean dagoen konstituzioak normaltasunez funtzionatzen badu ez dira aldatzen. Estatu krisia dagoenean emango dira konstituzioa aldatzeko ahalegin eta erreforma guztiak. Adibidea: Txile. Arrazoiak:
 - a. Iraultza frantsesak erreakzio mugimendu bat altxa zuen Europan. Gainera, Konstituzioaren ideia inbasio Napoleonikoarekin sartu zen, eta horrek Konstituzioaren ideia inbasore frantsesarekin lotzen zuen.
 - b. Espainiar estatuan ez zen benetako iraultza burgesik eman. Erregimen zaharreko egitura soziala mantentzen zen, non nobleziak eta elizak botere handia zuten. 1812ko Konstituzioak ez zuen babestuko zuen klase sozialik. Ez zen hegemonikoa.
 - c. Konstituzioen izaera pendularra. Izaera *partidista* zuten askotan. Aurrerakoi baten atzetik kontserbakorra zetorren. Halere, Konstituzio kontserbadoreak liberalen aurrean nagusitzen dira. Familia politiko jakin bati egokitzen zitzaizkion lege konstituzionalak. Aurrekoa kontsideratua da, testuinguru politikoarengatik, 1812koa 1791an Frantzian egin zen lehen konstituzioaren ondorengotzat hartu zen.
2. **Konstituzioen izaera eratorria:** Beste herrialdeetako eragina, elementurik kontserbadoreenetan izan ezik. Ez dago eraikuntza konstituzional propiorik, atzerrian sortutakoa bereganatuz. Hainbat eskola konstituzional egon ziren, Alemanian gorpuztu zen gehien bat, baina Italian badago ere eskola potente bat, baita Frantziaren ere, Espainian aldiz ez. Alderik kontserbadoreena Espainiatik sortu zela esan daiteke.
3. Konstituzioak **hausturaz** ezarri izan dira, ez erreforma prozeduren bidez. Normalean konstituzio liberal bat (1812, 1837, 1856, 1869) kontserbadore batek jarraitua zen (1834, 1845 eta 1876). Konstituzioak indarrean jarriko dira beti haustura juridiko baten gainean.

4. Tarteka: **Banatutako subiranotasuna eta nazio subiranotasuna**. Kontuz! ez nahastu subiranotasun nazionala eta demokrazia. Subiranotasun nazionala XIX. mendean, Parlamentuaren subiranotasuna zen, eta azken hau sufragio murriztuaz hautatzen zen.
5. Sistema politikoaren **hauteskunde oinarri ahula**
6. Gobernu era monarkikoa.
 - a. I. Errepublika da salbuespena (1873/02/11-1874/12/29)
7. Parlamentuaren bi ganberen egitura.
8. *Klientelismo* politikoa estatuaren administrazioan (segizio-zaletasuna).
9. Botere judizialaren ahultasuna
10. Askatasun eta eskubideen berme ahula
11. Konstituzio liberalak zurrinak dira eta konstituzio kontserbadoreak malguak
12. Zentralizazio formala eta ondoriozko nazionalismoaren agerpena.
 - a. Guda Karlistak (Euskal Herrian oso garrantzitsuak):
 - i. Lehena: 1833-1839
 - ii. Bigarrena: 1872-1876

2. Mugarri historiko ezberdinak Euskal ikuspegi batetik

2.1. Guda karlistak eta bere ondorioak Euskal Herrian

Behin Fernando VII.a hilik (1833ko irailan), guda zibil bat hasi zen Karlisten eta Liberalen artean.

- Karlistak: ideia tradizionalen defendatzaileak eta Karlos, erregearen anaiaren aldekoak.
- Liberalak: Isabel IIaren aldekoak (erregearen alaba). *Ley Sálica* delakoa behin aboliturik, tronua har zezakeena.

Erregina gobernadorea Maria Kristina de Borbón izan zen, Fernando VII.aren alarguna (4. Emaztea zen, eta bere lehengusina gainera, Napolitanoa) eta honek, Isabel adinez nagusia izan (1830ean jaio zen) arte bere oinordeko izendatu zuen. Hastapenetan absolutista moderatua izan zen, baina gero, herri babesa irabazi asmoz, liberalismora pasa zen (eta hori garaiko Konstituzioetan islatzen da)

Lehen guda karlista (1833-1839):

Benetako herri altxamendua izan zen Euskal Herrian. Izan ere, Aurrerakoiak Vs Kontserbadoreak errelatoa sinpleegia da. Karlistak, katolikoak eta kontserbadoreak ziren, hori ezin uka. Baina, gure autogobernua defendatzen zuten:

- Erresuma izaera (estatu izaera)
- Aduana Ebron
- Armadari ezezkua (kintoak)
- Lurraren jabetza komunala (eukaliptoak)
- Pase forala. Madriden onartzen zen legea bat foruen aurka bazijoan onartzen zen baina ez zen praktikara eramaten. (oso garrantzitsua)

Karlistek galdu egin zuten gerra. Bergaran Maroto-Espartero akordioa sinatu zen eta karlisten gradu militarrek mantentzen ziren, bakearen truke.

- 1839ko Legea, Foruak konfirmatzen zituena “sin perjuicio de la unidad constitucional de la Monarquía”.
- Nafarroan, 1841ean, “Ley Paccionada” delakoa.

2.2. 1931ko Errepublika demokratikoa

2.2.1. Gertakari historikoak

Primo de Riverak 1930eko urtarrilaren 28an dimisioa aurkeztu zuen, militarrek ez baizioten eskatutakoan konfiantzarik erakutsi eta Parisera joan ziren.

Alfontso XIII erregea erregimena salbatzen ahalegindu zen, baina alferrik. Gobernu berri bat osatu zen (Dámaso Berenguer jeneralak zuzendua), 1876eko Konstituzioa zin egin eta “diktablanda” martxan jarri zen (ikasleen liderrak askatu zituzten, irakasleei katedrak itzuli...). Baina, esan bezala, alferrik: grebak, ikasle istiluak, krisi ekonomikoa...

Liberalek ez zioten erregeari barkatu diktadura onartu izana.

1930eko abuztuaren 17an Donostiako Ituna sinatu zen, une hartako lider politiko garrantzitsuenen artean. Besteak beste, errepublikaren aldarrikapena, askatasun politiko eta erlijiosoa, eta abar.

Gobernu berriak erabaki zuen udal hauteskundeak Gorteetarako hauteskundeak baino lehenago egingo zirela. 1931ko apirilaren 12an egin ziren. Berez monarkikoei irabazi zituzten, baina herri eta hiri nagusi guztietan errepublikanoak nagusi izan ziren eta garaipena haiena zela ulertu. Aintzat hartu herri txikietan askatasuna murriztagoa zela, kazikeengatik...

Erregeak Frantziara ospa egin behar izan zuen. Orduan eratu zen behin behineko Gobernu, errepublikanoekin (laikoak eta katolikoak), sozialistekin eta erregionalistekin. Monarkikoak eta PSOEn ezkerretara zeudenak kanpo geratu ziren.

1931ko apirilaren 14an errepublika aldarrikatu zen, Batzorde Iraultzailea behin-behineko gobernu bihurtuz. Behin behineko araudia ezarri zen, banakako eskubideen errespetua ezarriz, jabetza eskubidea, amnistia politika, gizarte eta inprenta delituentzat; hauteskunde legea moldatu zen ere, baina emakumezkoen soilik sufragio pasiboa.

Egoera politikoa oso zaila: lurralde-antolaketa, eraldaketa militarra, nekazaritza-eraldaketa eta erlijio arazoa.

Lurralde antolaketa:

- Catalunyan errepublika aldarrikatu zuen Francésc Maciák, baina estatu katalanaren sorrera, negoziazioekin, eten egin zen. 1932an autonomi estatutu bat onartuz.
- EHn, 1931ko ekainaren 14an, euskal udalerrien biltzarra elkartu zen Lizarran, estatutu egitasmo bat onesteko. Ez zen bateragarri jo Konstituzioarekin.
- Armadaren eraldaketa, Azaña gerra ministroak sustatuta, Konstituzioari itxaron gabe.
- Nekazaritza: lehenengo neurriak hartu ziren. Errentari txikiak botatzeko debekua eta 8 ordutako lanaldia.
- Eliza: tenkadurak goraka egin zuen.

Hasierako egoera zail horretan, Gorte konstituziogileetarako hauteskundeak ospatu ziren ekainaren 28an. Gorteak uztailaren 14an eratu ziren, Bastillako espetxearen hartzearen urteurrenean. Ezkerra izan zen garaile, eskuin ez errepublikarrak ordezkari murriztu lortu zuelarik. Gorteen, gobernua (Alcalá Zamora) bere tokian berretsi zuten.

2.2.2. Prozesu konstituziogilea

Batzorde batek prestatu zuen proiektua. Eztabaida nagusiak. lurralde, gizarte eta erlijio gaiak izan ziren. Urria erdian dimisioak egon ziren, erlijioagatik. Tartean Alcalá Zamora. Horregatik, Manuel Azaña jarri zen presidente. Azkenean, 1931ko abenduaren 9an onartu zen Konstituzioa.

2.2.3. 1931ko Konstituzioa:

Legegintza teknika egokia, luzera ertaina.

Eraginak:

- Weimarreko Konstituzioaren (1919koa) eragina parlamentu-sistemari dagokionez.
- Austriako Konstituzioarena (1920koa) jurisdikzio konstituzionalean.
- Mexikoko Konstituzioaren eragina (Queretaro, 1917) ekonomia eta gizarte eskubideei dagokionez.

Ezaugarri nagusiak:

1. Herri subiranotasuna; baita tresna aurreratuekin:
 - a. Sufragio orokorra, gizon eta emakumeena. Sozialistak aurka, emakumeen botoa “kontserbadoreagoa” zela uste zutelako (1933ko hauteskundeak eskuinak irabazi zituen).
 - b. Zuzeneko demokrazia:
 - i. Erreferendum legegilea: herriak gorteetan onartutako lege bat indargabetzeko. Herritarren %15ek eskatu behar zuen, oso zaila beraz aplikatzeko.
 - ii. Herri ekimen legegilea barne: populazioaren %15a (oso zaila).
 - c. Estatu “Integrala”: erregio eta udalerrien autonomian oinarritua. Gorte unikameralak.
 - d. Eskubideak eta bermeak: indibidualak eta kolektiboak + eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen aitortza. Konstituzio bermatzailea. Babes helegitzea: oinarrizko eskubidea zapaltzen denean, ezohiko babesa eskubide hori defendatzeko
 - i. Jabetza eskubidea gizarte ikuspegi iraultzaile/aurrerazalea batekin arauturik.
 - ii. Lanerako eskubidea, ongizate estatua, nekazariei babesa...
 - e. Erlijioaren gatazka: Estatuak ez du erlijio ofizialik. Edozein erlijio praktikatzeko askatasuna, muga bakarra moral publikoari zor zitzaion errespetua. Desberdindu behar da, Fedea, kontu pribatua izango dela eta eremu publikoa.
 - f. Konstituzioaren balio araukorra.
 - i. Nagusitasun formala eta materiala.
 - g. Konstituzio Bermeen Auzitegia, organo konstituzional bezala. Egungo Auzitegi Konstituzionalaren antzeko funtzioekin.

2. 1931ko Konstituzioak

2.2.4. Errepublikaren faseak:

- *Biurteko eraldatzailea* (1931-1933): gobernu errepublikano eta sozialista
- *Biurteko beltza* (1933-1935): Eskuineko errepublikanoak eta Confederación Española de Derechas Autónomas.
- *Frente Popularra* eta Guda Zibila (1935-1939)

2.2.5. Lurralde gatazka, Euskal Herrian

Konstituzio printzipioak:

1931ko Konstituzioak egindako benetako berrikuntza, autonomia-erregioak onartzea izan zen. Estatuaren batasuna erregio-berezitasunekin ezkontzeko ahalegina izan zen.

Ezari zen formula estatu bateratuaren eta federalaren artekoa izan zen. Estatu “integral” deitu zitzaion. Aukera ematen zitzaien mugako probintziei autonomian bilakatzeko (12art). Udalen gehiengoaren ekimenez (edo populazioaren 2/3ak ordezkatzeko zituztenak), ondoren herri galdeketa (2/3) eta amaaitzeko Gorteek berretsi. Ez zen onartzen autonomien federazioa.

Kataluniak eta Euskadik estatutuak onartu eta indarrean sartu ziren. Galizakoa onartu bazen ere, ez zen indarrean sartu.

Euskal Estatutuaren ibilbide zaila:

Euskal Estatutuaren sorrera Kataluniakoa baino zailagoa izan zen. Autogobernu nahi handia zegoen 1876an foruak indargabetu zirenetik. Horregatik, Eusko Ikaskuntzak aurre-proiektu bat aurkeztu zuen, printzipio federalari erantzuten ziona eta bi estatutu proiektu egin ziren:

1. Lizarrakoa (Konstituzioaren aurrekoa): izaera nazionalista eta konfesionala zuen; alkateen mugimenduak sustatua eta Karlista zein abertzaleek babestua. Nafarroa barnebiltzen zuen. Ez zen baliozko jo Konstituzioak ezartzen zuen ereduarekin.
2. Gestoren estatutua: diputazioetako batzorde gestoreek kontrolatzen zituzten indar ezkertiar eta errepublikanoek sustatua (gestora hauek Espainiako gobernuak izendatuak ziren). Azkenean Nafarroa estatutik aldendu zen; eta nazionalista Vs

ezkertiarren arteko gatazkak zein integristen oposizioak traba gogorak suposatu zuten. Azkenean euskal udalen biltzarrak onetsi eta plebiszitua 1933ko azaroaren 5ean ospatu zen. Bizkaian eta Gipuzkoan baiezko, eta Araban ere (baina abstentzio eta ezezkoak baino txikiagoa).

1933ko azaroko hauteskundeak zentro-eskuinak irabazi zituenez gorteetan geldiarazi zen dena. 1936an Frente Popularrak irabazi arte itxaron behar izan zen. Gorteek 1936ko udaberrian eztabaidatu eta negoziatu zuten, eta 36ko urriaren 6an sartu zen indarrean.

2.3. Sistema politiko franquista

Guda Zibilaren ostean osatutako erregimen politikoan kokatzen gara. Honen ezaugarri nagusia kaudillajea zen (caudillo=buruzagi). Franko jeneralak botere osoak zituen, horregatik, sistema diktatorial-faxista eta agintekeria pertsonala ezarri zituen. Beraz, Ez dago Konstituziorik, baina, bai oinarrizko legeak (Leyes fundamentales).

- Lanaren Forua (Fuero del Trabajo) 1939koa: bizitza ekonomiko eta laborala arautzen zuen.
- Gorte Españolak sortzen zituen legea (1942koa), legeak prestatzeko eta egiteko ganbera bezala.
- Españolen Forua (1945): españolen eskubide eta betebeharrak arautzen ziren. Errekonozimendu formal hutsa zen, praktikan ez zegoen bermerik, sistema autoritarioa baitzen.
- Erreferendum legea (1945ekoa), Nazioari galdetzea ahalbidetzen zuena.
- Estatu buruzagitzaren oinordetzarako legea (1947koa), Espainia erresuma bezala konstituitu zuena, eta Francori estatu-buruzagitza ematen ziona bizi osorako. Erreferendumez onetsi zen.
- Mugimenduaren Oinarrizko Printzipioen legea (1958koa), estatuburuak promulgatua Gorteen aurrean.
- Estatuko Lege Organikoa (1967koa), aurreko lege batzuk aldatzen zituena eta konstituzio funtzioa bete nahi izan zuena. Erreferendumez onartua izan zen. Diktadoreak botere osoak mantentzen jarraitzen zuen.

Sistema politikoak lau hankadun egitura zuen. Botere batuketa eta demokrazia “organikoa”.

- Estatu buruzagitza: gobernuburua hautatzen zuen, legeak betatu zitzakeen, erreferenduma deitu...
- Gobernua: Presidentea, Ministro kontseilua eta bere batzorde delegatuek osatzen zuten. Politika zuzentzen zuen.
- Gorteak: Movimiento Nacional (alderdi bakarra); Organización sindical (bakarra); familia eta udalerrietako ordezkariak.
- Movimiento Nacional: erregimena mantentzen zuen alderdi bakarra. Ideologia faxistako alderdien batura zen.

Beraz, oinarrizko eskubideak eta botere banaketa ukatu egin ziren, errepresio basatia eta askatasun ezarekin

3. Francoren diktaduratik 1978ko erregimen politikora

Frankismoa krisian sartzen da eta dikotomia nagusia erreforma ala haustura da. Halere, bazegoen eskuinaren barruan bunkerra, jarraikortasuna defendatzeko. Franco esan bezala: “Lo dejo todo atado y bien atado”.

Bi momentu desberdintze dira, trantsizio-aurrea (pretransición) eta trantsizioa bera. Horren aurretik, frankismoaren lehen urteetan Espainiar estatua ia ia autarkia bat izan zen.

3.1 Trantsizio-aurrea

Aro hau, ordezkatu nahi zen sistemaren barruan gauzatu zen, hua da, trantsizioaren aurrekari izan zen, non trantsizioa prestatzen hasi zen.

60. hamarkadan aldaketa ekonomikoak, aktibazioa eta liberalizazioa egon ziren. Garai honetan gertaera garrantzitsu batzuk egon ziren.

- Desarrollismoa
- Gobernuan teknokratak
- Turismoaren gorakada
- Herrietatik hirietarako migrazioa

- Txokea ekonomia liberalizatuaren eta gogor kontrolatutako sistema politikoaren artean.

Saiakerak erregimenetik CEE (Europar Ekonomia Erkidegoa)ri atxikitzeko. Ez da lortzen demokrazia faltagatik, baina bai lortzen da komertzioaren liberalizaziorako tratatu bat.

1973-75 krisia areagotu egin zen eta gertakari nabarmen batzuk ditugu..

- 1969: Burgoseko Prozesua.
- 1973: Carrero Blancoren heriotza. Arias Navarro izendatzen du Francok gobernuko presidente. Nahiko kontinuitista (kontserbadorea, aldaketen aurkakoa).
- 1975: Francoren heriotza.
- Sistema ezin zen bere horretan mantendu.

3.2 Trantsizioa

Bi fase nagusitan gauzatu zen:

3.2.1.- Lehen fasea: (1975eko abendutik 1976ko ekainera)

Juan Carlos Borboikoa tronura igotzen da Franco hil ostean, Estatuburu bezala, Francok izendatua. Azaroaren 22an. Oinarrizko Legeak zin egin zituen eta modu horretan monarkia berrezarria geratu zen. Bere aitak bere alde abdikatu zuen.

Hala ere, Arias Navarrok gobernua jarraitzen du (eta Fraga, Garrigues...). Demokrazia “a la española” nahi zuen; kontinuitismoa. Demokrazia egongo da, baina, ez Europako beste herrialdeen mailan. Hala ere, irekiera minimo bat egongo da, biltzeko eskubidearen legea eta Asoziazio politikorako eskubidearen legeak onartzen direlako. Eskubide horiek “erraztu” egiten zituzten. (maiatza-ekaina). Baina, eskubide errekonozimendu partziala zen oraindik. Kanean bilkura bat egiteko adibidez, gobernuari eskatu behar zitzaion baimena.

3.2.2.- Bigarren fasea (1976ko uztaila-1978ko abendua)

Adolfo Suarez presidentzian sartzen da Arias Navarrok dimititu ostean. 1976ko uztaila. Movimiento Nacionaleko idazkari nagusi izandakoa zen.

Suarez, trantsizioa egiteko “legetik legera, legearen bidez”. Hau da, indarrean zeuden legeak erreformatu nahi zituen, haustura erradikal baten beharrik gabe. Aldaketak beraiek eman, nahi duten bidea jarraitzea bermatu ahal izateko.

Horretarako, gorte eta parlamentu frankistek onartutako erreforma politikorako legea ezarriko da (Trantsizioa egin ahal izateko lanabes juridiko nagusi gisa baliatuko dena) eta ondoren herritarrek berretsi egiten dute. Oinarrizko legeen erreforma bat zen.

Alderdi politikoen legeztapena ematen da, Alderdi Komunista barne.

1977ko ekaineko hauteskunde orokorrak, Kongresua eta Senatua hautatzeko. Amnistia partzial bat emango da baita ere, ostera amnistia oso bat lortuz.

Bigarren fase honetan kontzeptu klabe bat: “Konsensoa”. Errelato ofizialaren arabera, beste edozein alternatiba elkarrenganako suntsiketara eramango zuelakoan. Bi Espainia zaharren batuketa.

Monkloako itunak, maila politiko eta ekonomikoan, trantsizioa egin ahal izateko (1977/10/25).

3.2.3. Erreforma politikorako legea

Trantsizioaren instrumento juridiko nagusia izan zen. Formalki, oinarrizko lege bat zen (Ley Fundamental), zortzigarrena. Honen helburua, erregimenarekin haustura bat ez irudikatzea zen. Ezin dugu ahaztu erregeak mugimendu nazionalaren printzipioak zin egin zituela. Hala ere, materialki, zubi-lege bat zen, sistema batetik bestera pasatzeko.

Oinarrizko legeak bezala tramitatu zen. Gorte frankistetan onartua (gehiengo zabalaz), eta 1976/12/15 erreferendumean onartua.

Soilik bost artikulu:

1. erregimen berriaren printzipioak. Herri subiranotasuna. Oinarrizko eskubide bortxaezinak. Botere banaketa gutxieneko bat.
2. Gorte berriak, Kongresua eta Senatua. Demokrazia organikoarekin amaitzen da.
3. Akaso garrantzitsuena. Prozesu konstituziogilearen oinarria jarri zuen, nahiz eta ez zen horrela aipatzen. Erreformaz hitz egiten zen, baina ze konstituzio erreformatu, ez baitzegoen
4. Garrantzitsua: xedapen iragankorra. Hauteskunde araudia egiteko eskumena.

3.3. 1978ko Konstituzioa

Formalki: hitzaurrea, titulu preliminarra, titulu dogmatiko (edukiak, eskubideekin lotua) bat (lehena) eta beste 9 organiko (estatuko organoak zehaztu hori gauzatzeko) (II-X). 169 artikulu. Berez, bigarren gerraosteko konstituzionalismo demokratiko eta sozialaren parte da autore askoren arabera. Zehazki diktaduratik demokraziarako trantsizioa egindako Europa hegoaldeko herrialdeena (Portugal, Grezia, Espainia). Jatorrizko konstituzioa da? Batzuk baietz diote, aurreko erregimenarekin haustura egon zelako. Frankoren hitzetan “*Lo dejo todo atado y bien atado*”. Haustura egon zen?

Ezaugarriak

- Sinkretikoa: iturri askotatik edandakoa (Frantzia, Italia, Alemania, Escandinavia...)
- Demokrazia ordezkatailea (zuzenaren/parte-hartzailearen aurrean), alderdien bidez garatzen zena. Herritarrek bitartekarien bidez egiten da, zehaazki alderdi politikoen bidez. Izan ere, ez dira alderdi politikoak mekanimo bakarrak, beste mekanismo batzuk ere daude baina Espainian Alderdien bidez egiten da.
- “Kontsentsuzko Konstituzioa da”.
 - “Es el producto normativo de un clima histórico singular, seguramente irrepetible, dominado por la percepción de que la superación pacífica de la dictadura franquista y el apuntalamiento de una naciente democracia en condiciones de fragilidad exigían de todos altas dosis de transacción y renuncia a los próximos maximalismos”.

- Cesiones recíprocas y compromisos abiertos a desarrollos múltiples y contradictorios.
- Calculada ambigüedad.
- Normatiboa da, nominalismoa alboratuz. Ez nominala, konstituzioa dago kontzebituta espainiako legeetan goi erpinean kokatzeko juridikodi zein politikoki eta horrek duen ondorio guztiekin. Konstituzioaren nagusitasun hori juridikoki bermatuko duen lanabes nagusia, auzitegi konstituzionala izango da.
- Bermatzailea da, berme bikoitzekin. (Adb: Manifestaldi bat Leioako kanpuseaan egiten da baina Eusko Jaurlaritzak Debekatu egiten du. Tribunalen aurrean askatasuna daukat nere defendatzeko oinarrizko eskubide bat baita, kexatzeko eta gainera, berme konstituzionala dauka. Joan naiteke Bizkaiko Auzietziara eta hauek arrazoia ematen ez badit auzitegi konstituzionalaren aurrean defendatu dezaket Oinarrizko eskubidea bada manifestatzeko askatasuna daukadala.)
 - Eskubide eta askatasunen berme judiziala
 - Babes helegitea auzitegi konstituzionalaren aurrean (berme konstituzionala). Oinarrizko eskubideak bermatzeko erabil daitekeen prozesu bat izan liteke. Adib.: manifestazio bat antolatu nahi duzu Leioan eta ez dute onartzen, gero bizkaiko auzitegi probintzialera joko litzateke. Hori onartu ezean eta nora jotzeko aukerik gabe, auzitegi konstituzionalera joateko eskubidea daukagu.
- Zurruna da. Moldatzeko zaila. Prozesu bidegabea praktikoki eta gero eta autore gehiagok salatu dute egoera hori.
- Merkatu askatasunean oinarritzen den eredu ekonomikoa (38 art.).Merkatu ekonomia baten makroan dago. Ikuspegi konstituzionaletik estatuak parte-hartu dezake gehiago edo gutxieago. Gaur egun oso gutxi, sistema neoliberal baten aurrean gauden heinean. Bi konturekin: 1) pribatizazioa (negozioak dira, ez zerbitzu publikoak) Adib.: Petronor, Iberdrola, BBVA, Banco Santander... mozkinak biderkatzen dituzte.
- Eredu territorialean eredu "irekia". Zergatik? Ez duelako mapa autonomiko bat finkatzen konstituzioak. Bide ezberdinak planteatzen ditu autonomia batera iristeko. Irekia baina muga batekin "perimetro" batekin.

- Gauza batzuetarako, hau da, perimetro/muga batekin: Espainiaren batasuna ukiezina.
- *Mutazioa: ezkontzeko eskubidearen artikulua ez da aldatu Espainiako konstituzioan. Aldiz, 1978an konstituziogileak ez ziren pentsatzen ari sexu bereko ezkontzak. Gaur egun hori aldatu da eta konstituzionalki bideragarria da. Eutanasia ere beste adibide bat da.
- Konstituzio “irekia” kanpotiko ordenamendu supranazionalei (93. art).
 - Proiektu politiko ezberdinak demokratikoki garatzea bermatzen duena, pluralismo politikoan oinarriturik (1.1. art). Proiektu guztiak?
- Espainia zuzenbide estatu sozial eta demokratiko bezala eratzen du.
- Erregea, Koroaren jabe, eta Estatuaren batasun eta iraunkortasunaren sinbolo.

3.GAIA: Zuzenbide Estatu sozial eta demokratikoa

1. Sarrera: 1978ko Konstituzioaren helburuak
2. Zuzenbide estatua
 - 2.1. Definizioa eta helburua:
 - 2.2. Zuzenbide estatuaren osagaiak:
 - 2.3. Konstituzioaren nagusitasuna: superlegalitate formala eta materiala.
 - 2.4. Zuzenbide Estatua espainiar Konstituzioan:
3. Estatu demokratikoa
 - 3.1. Hausnarketa orokor bat demokraziaren inguruan
 - 3.2. Estatu demokratiko baten betekizunak:
 - 3.3. Demokrazia ereduak
 - 3.4. Aginduzko manua (mandato imperativo) eta ordezkarietzako manua (mandato representativo)
 - 3.5. Ordezkaritza demokrazia
 - 3.6. Hauteskunde sistemak
 - 3.7. Estatu demokratikoa espainiar Konstituzioan
4. Estatu soziala
 - 4.1. Definizioa eta jatorri historikoa:
 - 4.2. Estatu sozialaren oinarriak:
 - 4.3. Estatu soziala 1978ko Konstituzioan

1. Sarrera: 1978ko Konstituzioaren helburuak

Espainiar Konstituzioak, Konstituzio gehienek beren hitzaurreetan (interpretatiboak izan ohi dira, ez normatibo) egin bezala, Konstituzioaren helburuak finkatzen ditu:

- Bizikidetzaren demokratikoa, ordena ekonomiko eta sozial justu baten arabera.
- Zuzenbide-estatu bat sendotzea, legearen agintea ziurtatuko duena, herriaren borondate den aldetik.
- Babesa ematea espainiar guztiei eta Espainiako herri guztiei, hala giza eskubideen arloan nola bere kultura eta tradizio, hizkuntza eta instituzioetan.
- Kulturaren eta ekonomiaren aurrerabidea bultzatzea, guztiei bizi-kalitate duina segurtatzearen.
- Gizarte demokratiko aurreratu bat eratzea, eta
- Lurreko herri guztien arteko harreman baketsu eta lankidetzaren emankorrekoak sendotzen laguntzea.

Zertaz ari da, bada, Espainiar Konstituzioa, helburu hauek finkatzean? Azken batean, zuzenbide estatu sozial eta demokratiko bat finkatzeko nahiaz (Konstituzioaren letra eta izpiritua hori da; beste eztabaida bat da horretarako eskaintzen dituen bitarteko eta tresnak egokiak edota eraginkorrak diren).

Hori esanik, aintzat hartu behar da Konstituzioaren hitzaurreak ez daukala balio normatiborik, soilik balio interpretatiboa duela. Alegia, hitzaurreak Konstituzioko artikuluetan interpretatzeko parametro bat ematen digu (Konstituzioko artikuluetan bere argitara interpretatu behar dira) baina ez da loteslea bertan esaten dena (ezin da pretentsio juridiko bat horretan soilik oinarritu).

Konstituzioaren hitzaurrea alde batera utzita, **lehen artikuluan** bertan esaten da: Espainia zuzenbide-estatu sozial eta demokratiko gisa eratzen da, bere ordenamenduaren balio goren hartzen dituelarik askatasuna, justizia, berdintasuna eta pluralismo politikoa. Artikulu honek bai, gainerako beste guztiek bezala, balio normatiboa dauka.

Kapitulu honetan banan-banan jorratuko dira Zuzenbide Estatuak, Estatu demokratikoa eta Estatu sozialaren kontzeptuak. Zer dira? Zein ezaugarri dituzte? Eta horrekin batera, ze bitarteko aurreikusten dira Konstituzioan horiek bermatzeko?

Galdera horiek erantzuten hasi aurretik, baina, hainbat elementu argi izan behar ditugu, 1978ko Konstituzioak propio dituen elementu batzuk, planteatzen diren helburuak gauzatzeko bidean funtsezkoa direnak.

- Indar juridiko loteslea: Konstituzioaren aginduak juridikoki galdagarriak dira (artikulu batzuek, ikusiko dugunez, zuzeneko erabilgarritasuna ez badute ere).
- Konstituzioaren subiranotasuna: Estatuko botere guztiak, legegilea barne, bere menpeko dira. “Konstituzioa dagoela guztien gainetik”
 - Oinarrizko eskubideak errespetatu behar dira.
 - Botere legegileak Konstituzioa eraldatu dezake, baina horretarako ezin du prozedura legegile arrunta erabili, mekanismo indartuak baitaude (Konstituzioan bertan, 167 eta 168 artikuluetan arautzen dira Konstituzio erreformarako daude bi bideak).
 - Konstituzioa babesteko erakunde berezitua dago: Auzitegi Konstituzionala.
- Konstituzioa balore sistema bezala: zehatza eta koherentea den baloreen aukeraketa egiten du Konstituzioak. Ez da besterik gabe erakunde publikoen eta norbanakoen eskubideen lotura gabeko arau multzo bat. Horrela, Zuzenbide estatu sozial eta demokratikoa aldarrikatzen da, askatasuna, justizia, berdintasuna eta aniztasun politikoa direlarik bere balio gorenak. (Konstituzioa testu koerente, kohesionatua dela, balore batzuk aldarrikatzen dituena)

2. Zuzenbide estatua

2.1. Definizioa eta helburua:

Zer da zuzenbide estatu bat? hiritarrak eta botere organoak arau juridikoen menpeko diren Estatua, zeinetan Konstituzioak eta legeek aldarrikatzen dituzten herritarren oinarritzko eskubideak errespetatzen baitiren. Denak legearen menpeko diren Estatua. Herritarrek zein **botere publikoak** legearen menpeko izango dira, azken hau azpimarratu behar da.

Helburu nagusia boterearen erabilera diskrezionala edota arbitrarioa ekiditea da (botere publikoek ezin dute nahieran funtzionatu bazik eta legeak diotenaren arabera funtzionatu behar dute) , eta, horregatik, legalitate printzipioa funtsezko egiten da. Botere publikoek ezin dute nahieran jokatu, ezin dute loturarik gabe jardun; aitzitik, aurretik onetsi diren legeetan oinarritu behar da estatu-botereen funtzionamendua.

Eta hau guztia **zergatik**? Bada, nagusiki herritarra babestea estatu-botereen organoen arbitrariotasunetik. Aintzat hartu behar da, ikuspegi historikotik, Zuzenbide Estatuaren ideia absolutismo politikoaren aurkako txerto bezala planteatzen dela, hain zuzen ere, monarkia absolutuen agintekeriari aurre egin eta muga jartzeko.

Testuinguruan kokatuz, iraultza antiabsolutistetatik dator. Botere publikoak mesfidantz ikusten dira eta zuzenbide estatuarekin herritarrek babestu nahi dituzte eta hortik planteatuko da zuzenbide estatuaren ideia.

2.2. Zuzenbide estatuaren osagaiak:

Zuzenbide Estatuaren osagai nagusiak hiru lirateke:

- Legearen nagusitasunaren printzipioa (gaztelaniazko “el Imperio de la Ley”). Zer esan nahi da honekin? Legea Estatuko beste ekintza guztien gainetik egon behar dela, edo, bestela esanda, botere publikoen (eta herritarren) jarduna legeak mugatu egiten duela. Aintzat hartu beharrekoak dira, gainera, hierarkia printzipioaren indarra (arauak mailakaturik daude: Konstituzioa-Legea-Erregelamendua) eta Administrazio Publikoaren legalitate printzipioa (administrazioak erregimen juridiko propioa dauka eta aurrez emaniko legeen arabera jokatu behar du). *arbitrariotasuna.....
- Botere banaketaren printzipioa (paradigma *montesquianoaren* arabera): botere kontzentrazio oro ekidin behar da, gobernu erek, modu horretan, degeneratzen

dutelakoan. Txertoa, beraz, botereen banaketa argi bat finkatzea da, Estatu botere ezberdinen arteko oreka sistema bat planteatuz (Check & Balances = frenos y contrapesos).

- Oinarrizko eskubide eta askatasunen bermea: Ohikoa izan den arren ikuspegi formalista hutsetik, Zuzenbide Estatuaren existentziaz hitz egitea legearen nagusitasunaren eta botere banaketaren printzipioekin, ikuspegi material batetik, ezin gaitzke benetako Zuzenbide Estatu batez ez bada gizabanakoen eskubideen bermeari lotuta. Gero, eztabaidagarria izango da ze eskubide, ze berme... baina oinarrizko eskubide eta askatasunen bermea, irizpide bezala, funtsezko osagaia da. Nahiz eta eskubide asko aitortzen diren badira babeste maila ezberdinak hauen artean.

2.3. Konstituzioaren nagusitasuna: superlegalitate formala eta materiala.

Honezkerok jakin badakigunez, Konstituzioa “lex superior” da; alegia, posizio hierarkikoki nagusia du ordenamendu juridikoaren barruan. Hori horrela dela bermatzeko, hain zuzen ere, martxan jartzen da Konstituzionaltasun kontrola, Konstituzio Auzitegiak aurrera eramaten duena. Bera da Konstituzioaren interprete gorena eta bermatu egiten du ordenamendu juridiko osoaren Konstituzioaren arabeko interpretazioa egiten dela, arau guztiak Konstituziotik eratortzen baitira eta denek bere edukia errespetatu behar baitute.

Hori esanda, Konstituzioaren nagusitasunak ikuspegi formala eta materiala dauka, eta horregatik hitz egiten da superlegalitate formala eta materialaz.

- Superlegalitate formala: Konstituzioak botere publikoak nola sortzen diren eta nola funtzionatzen duten ezartzen du (beren ahalmenak, funtzionamendua, prozedurak...). Horiek guztiak errespetatu beharrekoak dira, kasu guztietan; bestela, arrazoi formal edo prozedimentalengatik, Konstituzio kontrako ekintza baten aurrean egongo gara.
- Superlegalitate materiala: botere publikoek ezin dute Konstituzioan jasotako balore, printzipio, eskubide edota eduki materialen aurka jo. Formak/prozedurak errespetatuta ere edukiak gordetzen ez badira, Konstituzio kontrako ekintza baten aurrean egongo gara.

2.4. Zuzenbide Estatua espainiar Konstituzioan:

Legearen nagusitasunaren printzipioa:

- Konstituzionalitate printzipioa (9.1. art.): Herritarrak eta botere publikoak *Konstituzioaren* eta gainerako ordenamendu juridikoaren *mende* daude.
- Legalitate printzipioa (9.3. art.): Konstituzioak bermatzen ditu: *legezkotasun printzipioa*, arau-hierarkia, arauak publiko egitea, aldekoak ez diren edo norbanakoen eskubideak murrizten dituzten zigor-xedapenen atzeraeraginik eza, segurtasun juridikoa eta *botere publikoen erantzukizuna eta arbitrariotasun-debekua*.

Botere banaketa:

- Botere banaketa horizontala: legegilea gorteak (66.2), betearazlea gobernua (97), eta jurisdikzionala epaileak (117.3) *Justizia herriarengandik dator, baino, magistratu eta epaileek bakarrik epaitu dezakete. Espainiako parlamentua, zuzenbide konstituzionaleko epaileak erabakitzen ditu (97art)*
- Botere banaketa bertikala: Estatu zentrala eta autonomi erkidegoen artean egiten den botere banaketari deitu ohi zaio boterearen banaketa bertikala. Espainiar Konstituzioan VIII. Tituluan zehaztu egiten da (batzuen eta besteen eskumen banaketa zehatza 148, 149 eta 150 artikuluetan).

Oinarrizko eskubideen aitortza eta bermea: Eskubide guztiak Konstituzioaren I. tituluan jaso egiten badira ere (10-55 art.), Konstituzioak ez die eskubide guztiei babes eta berme maila bera ematen. 5. gaian ikusiko dugunez, Konstituzioak, bermeei dagokienez, mailakatze bat egiten du, gutxienez 3 maila ezberdin egituratuz:

- Oinarrizko eskubideak (14-29 art. + 30.2 art.): babes juridiko maila gorena dutenak.
- Eskubideak eta betebeharrak (30-38 art.): babes maila ertainarekin
- Politika sozial eta ekonomikoa gidatzeko printzipioak (39-52 art.): zinez babes maila baxuarekin (“eskubide” hauek, zeintzuen artean eskubide sozial gehienak kokatzen baitiren, ez dira zuzenean eraginkorrak, lege garapena behar dute eta).

3. Estatu demokratikoa

3.1. Hausnarketa orokor bat demokraziaren inguruan

Demokrazia definitzerako garaian argi izan behar dugun lehen kontua da definitzeko zailtasunak ematen dituen kontzeptua dela. Zer da, berez, demokrazia? AEBtan demokrazia dago? Eta Kuban? Espainiar Estatuan? Zergatik? Galderok ez dute erantzun biribilik, ikuspegiaren arabera bateko eta besteko erantzunak eman baitaitezke.

Askotan, ikuspegi historikotik, Abraham Lincoln AEBtako presidente ohiaren hitzak erabili ohi dira demokrazia herriaren gobernu bezala definitzeko (bere hitzetan, “government of the people, by the people and for the people”). Printzipioz, beraz, demokraziak herriaren gobernu esan nahi du. Hau da: komunitate politiko jakin batean, herritarrek, erabaki politikoak hartzerako orduan, berdintasunean parte-hartzen dute.

Hortik aurrera, baina, demokrazia orok izaera zehatz bat dauka, norabide bat, nortasun bat, “abizen” bat: demokrazia liberala, demokrazia burgesa, demokrazia popularra, demokrazia sozialista... ez dago eredu bakarrik. Hau ere argi izatea komeni da.

Etimologikoki bi osagai ditu demokraziak: *demos* eta *kratos*. Herria eta boterea. Gaur egun, gure sistemetan sufragio unibertsala dagoenez gero, balirudike *demos*-a egon badagoela... baina *kratos*-a? non dago boterea? Herritarrek hautatzen dituzten ordezkariak agintzen al dute ala beraien gainera bestelako botereak egon badaude? Ez al dago boterea herritarrengandik geroz eta hurrunago? Grezia klasikoan demokraziaren arazoa kontrakoa omen zen: *kratos*-a egon bazegoen, boterea, herritarren asanbladak hartzen baitzituen erabaki politikoak; aitzitik, ez zegoen *demos*-a, hiritartasuna ez baitzen unibertsala (emakumeak ez, esklaboak ez...).

Hausnarketa orokor honekin bukatzeko, komeni da gogoraraztea demokraziaz, gutxienik, bi ikuspegi ezberdin gailentzen direla; prozedimentala bata, materiala bestea.

- Ikuspegi prozedimentala (edo prozedimentalista): demokrazia soilik erakunde-prozedura multzo bezala ulertzen duen ikuspegi.
- Ikuspegi materiala: demokrazia, prozedura multzo batetik harago, sistema sozial eta politiko bezala ulertzen duen ikuspegi, zeinean botere baldintzak berdintasunean eta norbanakoen askatasunean oinarritzen diren (eta zeinean askatasunaren oinarri materialak gorde egiten diren).

- Benetako demokraziarik egoten ahal da osasun, hezkuntza, etxebizitza edota lan zerbitzu publiko indartsurik gabe?
- Askatasunez erabaki dezake gose den herri batek? Eta hezkuntzarik ez duenak?

3.2. Estatu demokratiko baten betekizunak:

Aurreko guztia esanda, normalean, testu liburuak betekizun batzuk nabarmendu ohi dituzte Estatu jakin baten izaera demokratikoa onartu ahal izateko. Hauek dira:

- Herri subiranotasuna: sufragio unibertsal maskulino eta femeninoari lotuta; herriak du, formalki behintzat, botere gorena.
- Hiritar guztien parte hartzea ahalbidetu eta sustatzea, bai gizarte erakundeetan nola ekimen politiko zein legegilean (balizko Estatu-teknokratizazio baten aurrean). Baieztapen honen atzea hausnarketa bat legoke: politika gauza garrantzitsuegia da politikarien eskuetan (soilik) uzteko.
- Pluralismo politikoa: Elkarte, sindikatu eta alderdi politiko demokratikoak ahalbidetzea.
- Eskubideen aitortza eta bermea: honezkero ikusi dugu oso modu ezberdinetan gauza daitekeela betekizun hau.

Gehiago aipa litezke? Esaterako...

- Jendarte sektore pribilegiatuenean aukerarik behar lukete politikan parte hartzeko? Galdera hau eztabaidatua izan da hainbat prozesu iraultzaileetan, hala nola, Frantziar Iraultzan (1789) eta Sobietar Iraultzan (1917).
- Edozein sistema demokratikok gutxienean oinarri material batzuk (bizi baldintza batzuk) bermatu beharko lituzke? Esaterako Lana, osasuna, etxebizitza, hezkuntza, aisia...
- Demokrazia soilik eremu politiko-instituzionalari dagokio ala terreno ekonomikora hedatu behar da? Ekonomia “demokratizatu” beharko litzateke? Ba al da benetako demokraziarik ekonomiaren gaineko kontrol sozialik gabe?
- Gure testuinguru geopolitikoan, bateragarriak al dira neoliberalismoa eta demokrazia?

3.3. Demokrazia ereduak

Testu liburuetan aurki daitezkeen sailkapenak askotarikoak dira, baina erabilienetako batek 3 eredu ezberdintzen ditu mundu mailan (gainerako sistema politikoak demokraziatik kanpo utziz).

- Demokrazia liberal-bermatzailea (gaztelaniaz, democracia liberal garantista): liberalismoaren oinarriko ereduak litzateke. Ideologia liberalari jarraiki, bi oinarri nagusi izango lituzke: 1) Boterearen kontrola, boterea (edo botere publikoa), berez, zerbait “txar” bezala ikusten delako; eta 2) Norbanakoari egindako gorazarrea, tipikoa den indibidualismo liberalean oinarrituz. Hortik aurrera, bere ezaugarri nagusiak lirateke:
 - Norbanakoa estatuarengandik babestu behar da. Horretarako ezartzen dira, besteak beste, botere banaketa eta ordezkarienganako kontrol mekanismoak (zeharkakoak beti, ez zuzenak).
 - Eskubide zibilak aitortu egiten dira, esaterako: adierazpen askatasuna, informazio askatasuna, jabetza pribatua...
 - Sistemak gobernatu (herritarren) oniritzi edo adostasuna du oinarri.
- Demokrazia parte-hartzailea (gaztelaniaz, democracia participativa): aurrekoari egindako kritika da abiapuntua. Batetik, ezin da norbanakoa era isolatuan ulertu, jendartean txertaturik baizik. Eta bestetik, demokrazia liberal bermatzaileak ia-ia politika errefusatzeko du. Demokrazia ez da boterearengandik independenteak diren herritarren joko bat, baizik eta erabaki kolektiboek administrazioarekin bat egiten duten eremu bat. Aintzat hartuta edozein prozesu parte-hartzailek hiru oinarri dituela (informazioa-irritzia-erabakia), demokrazia eredu honen ezaugarriak lirateke:
 - Herritargo informatu bat, parte-hartzen duena. Herri parte-hartzea.
 - Deliberazio konjuntua jendartearen partetik erabakiak hartzean.
 - Autogobernu kolektiboaren bermea.
 - Norbanakoaren garapena politikan parte-hartuz.
 - Sufragio unibertsala eta erakunde publikoen erabilera herritarren partetik.
 - Arazoa: nola egin parte-hartzeak funtziona dezan? Nola bilakatu sistema eraginkor?

- Demokrazia lehiakor-pluralista (gaztelaniaz, democracia competitiva pluralista): demokraziaren ikuskera honek joko demokratikoa elite batzuen esku geratzen dela kontsideratzen du. Azken batean, “ongi prestatuak” eliteak hautatzeko eta gobernuak baimentzeko sistema bat da. Honek zer dakar?
 - Konpetentzia dago auto-hautatu diren bi politikari talderen artean.
 - Hautesleriaren papera ez da erabaki politikoen gainean eztabaidatu eta erabakitzea, baizik eta hori egingo duten ordezkariak hautatzea.
 - Ikuspegi honek atzean duen irakurketa demokrazia zerbait garrantzitsuegia dela herritarren eskuetan uzteko. Demokraziaren ikuspegi oligarkikoa da.

Beste sailkapen batzuk ere aurki daitezke testu liburu ezberdinetan. Esaterako:

- Sistema politikoaren arabera: Liberal-bermatzailea; sozialista; baztertzatzailea...
- Prozeduraren arabera: ordezkatzatzailea, parte-hartzailea...

3.4. Aginduzko manua (mandato imperativo) eta ordezkarietzako manua (mandato representativo)

Sistema politiko jakin batean herritarrek ordezkariari eman diezaioketen manua, nagusiki, bi motatakoa izan daiteke:

- Ordezkarietzako mandatua (gaztelaniaz, mandato representativo): mandatu politikorako forma bat da, orokorra (ez zehatza), askea, eta ezin dena atzera bota (gaztelaniaz, no revocable). Alegia, ordezkariak irizpide propioak erabili ditzake boza ematerako garaian, herritarrei emandako hitzetik aldendu. Hau da, ez ditu zertan kanpainan agertutako konpromisoak bete behar.
- Aginduzko mandatua (gaztelaniaz, mandato imperativo): erakunde edota kide batengan delegatzen den boterea da, zeina hautatua izan baiten edukian eta denboran definiturik dagoen jarduera bat egiteko, irizpide zehatzak jarraituz, zeintzuetatik ezin baiten aldendu. Bere oinarri filosofikoa Rousseuren ideietan dago, zeinak esaten baitzuen: “diputatuak ez dira herri ordezkariak, komisarioak dira. Beren kasa ezin dute deus *definitiboki* erabaki”.

Hala ere, esan egin behar da Estatu konstituzionalaren markoan, ikuspegi historikotik, botere politikoa ordezkatzeko boterea izan dela eta badela. Rousseauren ideien kaltetan, Estatu konstituzionalak ordezkariak erakundeak orokortu zituen eta horregatik ordezkariak demokrazia batean bizi garela esan ohi da. Areago, Espainiar Konstituzioak aginduzko manua debekatu egiten du bere 67.2 artikuluan (“Gorte Nagusietako kideak ez dira aginduzko mandatuz loturik egongo”).

3.5. Ordezkaritza demokrazia

Zertaz ari gara, bada, ordezkariak demokrazia ari garenean? askeak eta aldizkakoak diren hauteskundeetan herritarren ordezkariak hautatzen diren sistemaz, zeinetan ordezkariak aske baitauden herritarrei emandako hitzetik, ez baitago aginduzko mandaturik. Konstituzionalismo demokratiko bezala ezagutzen dena horretan oinarritu da, gaur arte bederen.

Eta zergatik nagusitzen da ordezkariak demokrazia demokrazia parte-hartzailearen aurrean? Testuliburuetan erantzun ezberdinak topa daitezke:

- Batzuen iritziz, esaterako, gaur egungo Estatu konstituzionalean demokrazia zuzena ezinezko aspirazioa litzateke, ameskeria, ezin baitira herritarrak iraunkorki bildu eta parte-hartzera bideratu. Ordezkaritzak gainera, esan ohi da, komunitate baten zuzendaritza politikoa errazten du.
- Beste batzuen iritziz, aldiz, eliteen nahimena dago horren atzetik, askatasunez erabakitzeke aukera gorde nahi baitute, herritarrak eguneroko politikatik urrunduz.

Behin hori esanda, zeintzuk dira ordezkariak demokraziaren funtzionamendurako osagaiak?

- Sufragio eskubidea (aktiboa/pasiboa): boz eskubidea / bozkatua izateko eskubidea.
 - inabilitazioa: epai judizial baten bidez sufragio aktibo zein pasiborako eskubidea indargabetzea.
 - inkapazitazioa: ezgaitasun mentala zutenek lehen ezin zuten bozkatu koerzionatuta bozkatzeko zutela uste zelako baina gaur egun bai.
- Hautesleria: edo hautesle gorputza: boz eskubidea duten norbanakoen multzoa. Hautesleria eta herria ez dira berdinak, herriaren parte diren guztiak ez direla bozka eskubidearen jabe.

- Nazionala (edo nazionalizatua), adinez nagusia eta debeku judizialik gabea izan behar.
- Alderdi politikoak: “hauteskunde eskaintza arrazionala eta erabilgarria” egiteko lanabesak lirateke, gauza eztabaidagarria den arren. Helburua hori da ala herritarren parte-hartzea mugatzea?
- Hauteskunde sistema: hautesleriaren erabakia bideratzeko prozedura-baliabidea.

Ordezkaritza demokraziarekin bukatzeko, galdera bat: krisian dago? Bai, ez, zergatik? Zertan islatzen da? Herriak erabakitzen du?

3.6. Hauteskunde sistemak

Hauteskunde sistema bezala definitzen dugu hautesleriaren borondatea juridikoki sortzen duen prozedura; hautesle gorpuaren erabakia bideratzen duena. Ez da erabaki neutral bat, oso erabaki politikoa da hauteskunde/sistema bat edo bestea ezartzea edo indarrean jartzea, juridikoki zeresan handia dauka. (Gaur egungo hauteskunde arauak Adolfo Suarezek ezarri. Suarezek lortu frankismoaren barruan zegoen sektore kontserbadoreena konbentzitzea... Egonkortze politikoa lortzeko, sistema bipartidista.)

Edozein hauteskunde sistemetan aintzat hartu behar dira: *epaitzerakoan hauteskunde sistema bat*

- **Hauteskunde era**: gehiengodun sistemak eta sistema proportzionalak ezberdintzen dira.
- **Hauteskunde barrutiak**.
- **Eserleku kopurua barruti bakoitzeko**.
- **Eserleku bat lortzeko lege-langa egotea ala ez**. Gaur egun lege langa dago%3a. Lege langa horretara ez bazara heltzen aulkien jokoan kanpo gelditzen zara. Hori ez da neutrala eta alderdi handiei mesede egiten die. Normalean %5a.

Hauteskunde legearen siglak (LOREG: Ley Organica De Regimen Electoral General) bertatik arautu hauteskunde lege guztiak.

Gehiengodun sistemak:

- Oinarria: garaile geratzen den zerrendari ematen zaizkio barruti jakin bakoitzeko eserlekuak. Irabazleak ordezkariak eramatean du.
- Ezaugarriak: gutxiengoak kaltetzen ditu. Erabateko gehiengo absolutuko gobernuek errazten ditu eta alderdibitasunerako joera indartu.
- Hemen senatuan gehiengo sistema dago. Gehiengo sistema *corregido*.

Sistema proportzionalak:

- Oinarria: Alderdi bakoitzak eserleku zenbaki zehatz bat lortuko du lortutako boz kopuruaren proportzioaren arabera.
- Zuzenki proportzionala ez den arren, sistema proportzionalen artean aurkitzen da Espainiar ordenamendu juridikoan indarrean den sistema, D'ont sistema alegia.
 - Nola banatzen dira eserlekuak D'ont sisteman? Hautagaien zerrenda bakoitzak lortu duen boz-kopurua zenbatu ondoren, emaitza hori zenbaki kardinalen artean zatitu egiten da, batetik hasi eta barruti horretan hautatu beharreko aulki kopurua bete arte. Eserlekuak zatidura handienak dituztenentzat dira.

3.7. Estatu demokratikoa espainiar Konstituzioan

Espainiar Konstituzioan zehar Estatuaren izaera demokratikoari erreferentzia egiten dioten hainbat aipamen ageri dira. Besteak beste:

- Espainia zuzenbide estatu sozial eta demokratikoa dela aitortzen da (1.1 art.).
- Printzipio demokratikoa garatzen duten artikulak
 - Subiranotasun nazionala herriari dagokio (1.2. art.).
 - Gorte Nagusiek Espainiako herria ordeztzen dute (66.1. art.).
 - Gobernu Presidentearen inbestidura saioa (99. art.)
 - Justizia herriarengandik dator, eta Botere Judiziala eratzten duten epaile eta magistratuek administratzen dute, Erregearen izenean (117.1. art.).
 - Herritarrek eskubidea dute gai publikoetan sufragio unibertsalaren bidez parte-hartzeko eta funtzio publikoetara berdintasunean heltzeko (23. art.).
- Pluralismoa: aniztasun politiko eta soziala alderdi, sindikatu eta elkarteentz bitartez islatu behar da (6, 7 eta 22. art.). Hemen demokrazia militantearen kontzeptua.

Demokrazia eredu bat exijitzen duena sistemarekiko atxikimendu positibo bat, sistemaren barruan jokatu edo parte hartu ahal izateko. Espainia juridikoki ez da demokrazia militantea, konstituzioak ez du exijitzen atxikimendu positibo hori, Alemanian adibidez bai. Espainian alderdi independentista erregistratu dezakezu, eta Espainiaren konstituzioaren oinarriaren aurka dago. Tolerantzen dira alderdi independentistak baina gero ezin dago demokratikoki bide independentista egiteko aukerarik. Konstituzioak exijitzen duena barne egiturez eta funtzionamenduz demokratikoa izatea.

- Besteak:
 - Nazio aniztasuna aitortu egiten da, Espainia autonomiarako eskubidea duten “nazionalitate eta erregioz” osaturik dagoela aitortzean (2. art.).
 - Aniztasun erlijioso eta ideologikoa aldarrikatzen da (16.1 art.).
 - Hizkuntza aniztasuna jasotzen da, espainolaren nagusitasuna ezarri egiten bada ere (3. art.).

4. Estatu soziala

4.1. Definizioa eta jatorri historikoa:

Definizio bat eman beharko bagenu, esango genuke Estatu soziala gizarte-ongizatearekin konprometitu dagoen estatua dela, izaera liberalekoa, eta egitura ekonomiko eta sozial kapitalista bat duena.

Estatu sozialaren sorrera, lanaren eta kapitalaren arteko hitzarmen bezala azaldu ohi da, zer eta Estatu liberala zentzu sozialago batean erreformatzeko. Ondorioz, ekonomia kapitalistaren marko orokorra mantendu egiten da bertan (ez dago haustura edota iraultzarik) baina Estatua, terreno ekonomiko eta sozialean bereziki, abstentzionista izatetik interbentzionista-hornitzaile izatera pasatzen da, betiere, argi esan dugunez, Estatuaren izaera liberala galdu gabe.

Estatu sozialera eraman zuten elementuen artean arrazoi ezberdinak daude:

- Estatu liberalaren krisia: ikuspegi sozialetik, geroz eta langile pobre gehiago zegoelako (proletariorza); ikuspegi demokratikotik (gabezia nabarmenak zituelako, besteak beste, sufragio unibertsalik eza); nazioarteko ikuspegitik, harreman baketsuak

mantentzeko gai ez zelako (Estatu liberalaren “kolapsoa” I. Mundu Gerran emango da)...

- Alternatiba integral baten eraikuntza ekialdean: Errusian langile iraultza arrakastatsua izan zen eta sistema osoki alternatibo bat jarri zen martxan, sozialismo errealaena, erabateko haustura suposatzen zuena Estatu liberalarekiko. Sistema hori, gainera, 2. Mundu Gerraren testuinguruan mendebalderantz zabaldu egin zen (Alemaniaraino). Horrek, argi denez, mehatxu zuzena suposatzen zuen mendebaldeko kapitalistentzat, zeinak nahiago izan baitzuten langileekin minimo batzuk hitzartu, iraultzarako arriskua asumitu baino.
- 29ko krak ekonomikoa eta Keynesianismoa: 1929ko krisialdi ekonomikoak liberalismo ekonomikoaren mito ekonomikoak (esku ikusezina) hautsi zituen, ikusi baitzen merkatua, bera bakarrik, ez zela gai krisia gainditzeko, eta ondorioz Estatuaren “bultzada” behar zuela, atzeraldi ekonomikoko garaietan, politika kontrazikliko edo espansionistak egiteko. Horretan datza keynesianismoa delakoa, ez dena ideologia antikapitalista bat, sistema kapitalista mendebaldean bizirauteko formula jakin eta zehatza baizik.

Horrek guztiak bide eman zion, Mendebaldeko herrialdeetan Estatu sozialaren eraikuntza eta zabalpenari, zeinaren aurrekari izan daitezkeen Erresuma Batuko gizarte erreformak, Weimarko Errepublika, AEBtako *New Deal* delakoa, Roosevelt presidenteak planteatu zuena, edota Espainiako II. Errepublika.

Estatu sozialak 3 hamarkadatarako loraldia bizi izan zuen 2. Mundu Gerraren ondotik (mundu mendebaldirrean), 1973ko petrolioaren krisiak eztanda egin zuen arte. Petrolioaren prezioaren igoerak inflazioa eta geldialdi ekonomikoa ekarri zituen, eta ondoriozko Estatuaren diru-sarreraren murrizketa nabarmena, zeintzuk ezin baitzioten eutsi ordura arteko gastu sozialari.

Ondorengoa ezaguna da. Politika neoliberalak, pribatizazioak, gastu sozialaren murrizketa bortitzak eta merkatuen desarautzea.

4.2. Estatu sozialaren oinarriak:

Oinarri ezberdinak aipa badaitezke ere, guk honakoak aipatuko ditugu:

- Estatuaren esku-hartzea ekonomian. Alegia, Estatu abstentzionismo liberaletik interbentzionismora pasako da: enpresa publikoak, prezioen kontrolak, sektore estrategikoen nazionalizazioa...
- Gizarte prestazioak: gizarte laguntza ezberdinak bereizkeria soziala ekiditeko eta berdintasun materiala bermatzeko.
- Ekonomia mixtoa: publikoa eta pribatua, ez soilik pribatua, gaur egungoa bezala.
- Eskubide sozialen eskagarritasun juridikoa: Estatu sozialaren markoan ez dira soilik eskubide zibil eta politikoak aitortuko, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen aitortza ere emango da. Horietako eskubide batzuk eskagarritasun juridikoa izango badute ere (osasuna edo hezkuntza kasu), oro har, beraien babes juridikoa eskubide zibil eta politikoena baino apalagoa izango da.
- Ordezkaritza demokrazia: horixe da Estatu sozialak hartzen duen forma politikoa.

4.3. Estatu soziala 1978ko Konstituzioan

Ezer baino lehen argi izan behar dugu Konstituzioa, erabaki politikoak hartzeaz aparte, erabaki ekonomikoak ere hartzen dituela. Besteak beste, Espainiar Konstituzioan aipagarriak dira:

- Berdintasun materialaren printzipioa (9.2 art.). Klabea da, Estatu soziala azaltzerako orduan.
- Konstituzio ekonomikoa
 - Askatasun ekonomiko klasikoak baimentzen ditu: jabetza pribatua, gizarte funtzioak mugaturik (33. Art.) Konstituzionalizatu zen jabetza pribatua ez da jabetza pribatu liberala, interes orokorra eta jabetza pribatuan talka emango bazen, interes orokorrak irabaziko luke. ; enpresa askatasuna (38. Art.)
 - Bizitza ekonomikoan esku-hartze publikoa baimentzen du eta ekonomiak sektore publikoa izan dezan bideratzen du (128 art.). Hau ere, interes orokorraren menpekoea dela adierazten du konstituzioak.
 - Ekonomi-plangintza aurreikusten du (131 art.). Estatu ezindu merkatua eliminatu, baina bai mugak ezarri.

- Eskubide sozialen aitortza eta bermea; besteak beste: zerbitzu publikoak, lan harremanen konfigurazioa, bazterketa sozialeko egoeran daudenen babes, ingurumena... eta abar. Beren babes maila, oro har, oinarrizko eskubideena baino apalagoa da (5. gailan ikusiko denez).

4. GAIA: Zuzenbidearen iturriak

- 1- Kontzeptua
2. Baliozkotasuna, eraginkortasuna, eraginkortasuna eta jadanekotasuna
3. Konstituzioa
4. Lege lerruna duten zuzenbide iturriak
 - 4.1. Lege arruntak eta lege organikoak
 - 4.2. Lege-dekretua
 - 4.3. Dekretu legegilea
5. Erreglamendu iturriak

1-. Kontzeptua

Ezer baino lehen, zuzenbidearen iturriez ari garenean zertaz ari garen finkatzea komeni da. Zer dira, bada, Zuzenbidearen iturriak?

Definiziorik zabalduenetako baten arabera, zuzenbidearen iturriak ordenamendu juridiko jakin baten arabera, arau juridikoak sortzeko gai diren gertakari edota ekintzen multzoa dira (gertakari bat, esaterako, ohitura bat izan daiteke, espainiar ordenamendu juridikoan zuzenbidearen iturri kategorია duena; ekintza batez ari garenean, adibidez, lege edo dekretu batez ariko ginateke nagusiki –idatzizko arau batez-).

Beraz, funtsean, zuzenbidearen iturri adigaiarekin ordenamendu juridiko jakin batean dauden kategoria normatibo ezberdinei egiten diegu erreferentzia. Hori bai, soilik zuzenbidearen iturri kontsideratuko ditugu *erga omnes* eragina duten arauak (Konstituzioa, legeak, dekretuak...) eta ez aldiz *inter partes* eragina dutenak (kontratuak...).

Gainontzeko Estatuetan bezala, Espainiar Estatuan ere Zuzenbide positiboan arauturik dago zeintzuk diren zuzenbidearen iturriak, Kode Zibilaren 1.1 artikuluan zehazki, zeinak esaten baituen:

“Zuzenbidearen iturri dira legea, ohitura eta zuzenbidearen printzipio orokorrak” (Lege dioenean, idatzizko arau interpretatu behar).

Horrekin batera, Konstituzioak, Estatuaren eskumen eksklusiboak finkatzerakoan honakoa esaten du:

“EK 149.1.8 art.: Estatuaren eskumena da zuzenbidearen iturriak zeintzuk diren finkatzea.

2. Baliozkotasuna, eraginkortasuna, eraginkortasuna eta jadanekotasuna

Zuzenbidearen iturriez ari garelarik, horiek zeintzuk diren definitu aurretik hiru kontzeptu argi finkatzea funtsezkoa da: baliozkotasuna, eraginkortasuna eta jadanekotasuna.

Baliozkotasuna, existentzia juridikoa da. Noiz da arau bat baliozkoa? Eskuduna den subjektuak, dagokion prozeduraz sortu duenean, dagokion arau formarekin eta lerrun altuagokoak diren arauen edukia errespetatuz.

Arauen eraginkortasuna bi ikuspegi ezberdinetatik aztertu daiteke: juridiko-formala eta materiala.

- Juridiko-formala: arauak aurreikusten dituen ondorio juridikoak betetzeari egiten dio erreferentzia (hartzaileen betetze derrigorrezkoa, agente juridikoen aplikazioa...).
- Materiala: efektibitateari dago loturik. Arauak bere helburuak betetzen ditu errealitatearekiko?

Adibidez, *sólo sí es sí* legea. Eraginkorra da? Juridiko-formalki, erasotzaileek aurreikusitako zigorrak jasotzen dituzte? Materialki, indarkeria sexistarekin amaitzen laguntzen du?

Jadanekotasuna-ri dagokionez, baliozkotasunaren eta jadanekotasunaren arteko zubia litzateke; arau juridiko baten existentziaren hasiera arau bezala. Alegia, jadanekotasunak inplikatzeko araua indarrean dagoela. Normalean, arauan bertan finkatzen da noiz sartzen den indarrean, eta ez da beti berehalakoan izaten. Hortik, *vacatio legis* kontzeptua, jadanekotasuna argitalpenetik atzeratu egiten denean. Espainiar Estatuaren kasuan, besterik ezean, 20 egun (Kode Zibilaren 2.1. art.).

3. Konstituzioa

1978ko Konstituzioa, Konstituzio normatibo bat da. Horrek zuzenbide iturri izaera ematen dio Konstituzioari. Baina Konstituzioa ez da zuzenbidearen iturri simple bat, iturri gorenaren izaera dauka (formalki, behintzat, bai, neoliberalismoak gauzak asko aldatu baditu ere). Horrexegatik, ordenamendu juridikora inkorporatzen diren arau konstituzionalen euskarria da Konstituzioa.

Iraganean, legea zen zuzenbidearen iturri nagusi. Horixe izan zen irizpide nagusia hainbat mendetan. Gaur egun, baina, Konstituzioa da zuzenbidearen iturri gorena. Berak finkatzen du arauen produkzioarako prozedura eta eduki minimoa.

Hori esanik, Konstituzioaren gorentasuna zertan nabaritzen da? Gutxienez bi kontutan:

- **Jurisdikzio konstituzionala:** Konstituzio Auzitegiak bermatzen du Konstituzioaren gorentasuna, bere aurka egiten duten legeak ordenamendu juridikotik kanporatuz.
- **Konstituzioaren zurruntasuna:** Konstituzioa eraldatzeko prozedura, legea eraldatzekoa baina dezentez zurrunagoa da, zailagoa, quorum indartuak eskatzen direlako, gehiengo simple edo absolutua beharrean.

Konstituzioaren erreformaz:

Erreforma ez da soilik Konstituzioaren gorentasuna bermatzeko bitarteko, baita Konstituzioa errealitate sozialari eguneratzeko bitartekoa ere.

Espainiar Konstituzioa erreformatzeko bi bide daude:

- Erreforma arrunta: EK 167. art.
- Eta berrikuspen orokorra: EK 168. art. Autore ezberdinen arabera, Konstituzioaren berrikuspen orokorrerako bide jakin bat finkatu bazen ere, materialki (praktikan) bide horrek bideraezin egiten du Konstituzioaren eraldaketa.

Batean eta bestean, herri ekimena ukatu egiten da.

Hori esanik, zeintzuk dira Erreformaren mugak?

- Konstituzioak ez du muga materialik jasotzen; ezer ez dago berez blindatuta.
- Alta, autore askoren iritzian, Erreforma bidez ezin dira Konstituzioaren elementu esentzialak ukitu. Horretarako botere konstituziogilea legoke, prozesu konstituziogile baten bidez bideratuko litzatekeena. Izan ere, erreformatzea eguneratzea da, moldatzea, baina dagoenaren muinari/esentziari eutsiz (superkonstituzioa). Baina guztizko erreforma egin nahian edo esentzia aldatu nahi ez gero, prozesu konstituziogile berri batean murgildu beharko ginateke. Errealitatean, erreforma operazio bidez gauzatu izan dira prozesu konstituziogileak, Txileko kasuan ikus daitekeen bezalaxe.

4. Lege lerruna duten zuzenbide iturriak

4.1. Lege arruntak eta lege organikoak

Konstituzioaren 81. artikulua definitzen du zeintzuk diren lege organikoak (lege organikorako erreserba eginez): kongresuan **gehiengo absolutuz** behar dira lege organikoak onartu ahal izateko.

- Materiak: oinarrizko eskubideak (15.art-29.art., lege organikoak adierazi behar da), autonomi estatutuak, hauteskunde erregimena eta konstituzioak ezartzen dituen besteak (estatu aparatuek arautzen dituztenak adibidez: LOTC, LOPJ...).
- Onarpenerako: gehiengo absolutua exijitzen dute Kongresuan, proiektua osotasunean bozkatuz.

Lege arruntak lirateke lege organiko ez direnak, alegia, beste guztiak, zeinak **gehiengo simplez** onartzen baitiren.

4.2. Lege-dekretua

Gobernuak egindako lege mailako arau bat da, baina Parlamentuaren halabeharrezko parte-hartzeaz definitiboki onartua.

Araubidea: EK 86. art.

- 86.1: definizioa eta mugak.
- 86.2: kontrolerako prozedura Kongresuan.
- 86.3: lege proiektu bezala tramitatzeko aukera.

Botere exekutiboak bere ahalmen normatiboak handitzen joan da, eta gaur egun, lege mailako arauak egiteko ahalmena du kasu batzuetan (behar urgente bat dagoenean). Printzipioz ez ohiko izaera du eta Parlamentuaren kontrola exijitzen du.

Nahiz eta printzipioz lege dekretuak urgentziatzko legegintzaren parte diren, praktikan ez da hori gertatu, eta Tribunalek, gainera, hori onetsi egin dute (AKk). Egun, Gorte Orokorren lanaren deskarga moduan konfiguratu da kasik. Gobernuaren eta Parlamentuaren adostasuna exijitzen du.

Mugak: hiru motatakoak dira

- Egoerazkoak: printzipioz ez ohiko eta urgentea den beharra behar da. Praktikan, AKk ohiko bitarteko bilakatu du. Erabaki POLITIKOA da behar hori dagoen zehaztea. Ez da behar absolutu bat, arrisku larria suposatzen duena; behar erlatibo bat da, zeinean gobernuak azkartasuna behar duen bere helburuak betetzeko.
- Materialak (edukizkoak): Lege Organikorako erreserbatuak dauden materiak ezin dira lege-dekretu bidez arautu.
- Tenporalak: lege-dekretuak behin behinekoak dira Kongresuak baiezkoa ematen duen arte. Berrespena (edo konbalidazioa) argitaratu eta 30 egunetako epean eman behar da, eta ez bada ematen, indargabeturik geratuko da, jadanekotasunik gabe.

Konbalidazioa: ezin dira emendakinak aurkeztu. Eztabaida lege-dekretuaren osotasunaren gainean egiten da.

Lege-dekretuaren kontrola: Auzitegi Konstituzionalak konstituzionaltasun kontrola egingo du. Forma, prozedura, eta edukia kontrolatuz.

4.3. Dekretu legegilea

Dekretu legegilea lege lerruna duen arau bat da, Parlamentuaren eta Gobernuaren arteko elkarlanean oinarritzen dena.

Lege dekretuak ez bezala, dekretu legegileak aurrez Gorteeek Gobernuarengan eskuordetza/delegazioa egitea eskatzen du, lege bidez egiten dena. Delegaziorik ez badago sortutako araua ez da baliozkoa izango.

Dekretu legegile motak, bi dira:

- Testu artikulatua (texto articulado): oinarri-lege baten bidez egiten da eskuordetza (lege arrunta da). Alegia, oinarri orokor batzuk ematen zaizkio gobernuari materia bat arautu dezan.
- Testu bategina (texto refundido), lege arrunt baten bidez egiten da eskuordetza. Kasu honetan ez dira irizpide orokor batzuk ematen, helburu bakarra indarrean dagoen araudia ordenatzea baita.

Legegintzarako eskuordetzaren mugak:

- Eskuordetza legeari: (Parlamentuari)
 - Muga komunak bientzat:
 - Ezin dio lege organikora erreserbatutako materia bati eragin.
 - Delegazioa espresa izan behar da, materia zehatz baten gainean eta epe jakin baterako.
 - Delegazioa atzera bota daiteke.
 - Delegazioa gobernuari egiten zaio, eta eskuordetza legeak ezin dio honi beste subjektu batengan delegatzeko ahalmena eman.
- Dekretu legegileari: (Gobernuari)

- Behin bakarrik erabiltzen ahal da eskuordetza. Horrek ez du esan nahi dekretu bakarra egin daitekeenik. Baina behin eginda, ezin da moldatu.
- Ezin da subdelegaziorik egin. Ministro batek, zuzendari batek... ezin du dekretu-legegile bat diktatu.
- Dekretu legegileen kontrola:
 - Konstituzionala, Konstituzio Auzitegiak egina: arau forma, prozedura eta edukia aztertu behar.
 - Jurisdikzionala: Konstituzionaltasun galderaren bidez.
 - Parlamentarioa: kontrol politikoa da. Diputatu bat kexatu daiteke, eta orduan batzorde batek diktamen bat egin beharko du. Halere, eragina soilik politikoa izango da.

5. Erreklamendu iturriak

Egiari zor, askotariko arauak dute espainiar ordenamendu juridikoan “erreklamendu” izaera; hori bai, oro har, gobernutik edo administraziotik datozen arauak dira, botere exekutibo bezala ezagutzen dugunetik. Hortik aurrera:

Erreklamenduak legearen menpekoak dira; lerrun baxuagoa dute. Legalitate printzipioa bete behar dute.

Halere, egon badaude izaera berezia duten Erreklamenduak.

- Erreklamendu Parlamentarioak, zeintzuk lege lerruna baituten.
- Auzitegi Konstituzionalaren, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren edota beste Estatu organismo batzuen erreklamendu propioak.
- KONTUZ: Europar Batasunaren markoan badira “erreklamendu” izena duten arauak, lege mailako lerruna dutenak eta lehentasunez aplikatzen direnak espainiar ordenamendu juridikoarekiko (espainiar arauak ezin dute kontraesan).

Erreklamendu ahalmenaren titularitatea. Nork dauka?

- Gobernuak, bere osotasunean, Konstituzioaren 97. artikulua araberak.

- Gobernuaren legeak dio Presidenteak eta Ministroek ere aukera dutela.
 - Lehenak Gobernu Presidentearen Errege Dekretuak emateko.
 - Bigarrenek, ministro-aginduen bidez (Órdenes Ministeriales).

Erregelamendu motak

- Independentek. Materia bat arautzeko legerik ez dagoenean.
- Exekutiboak/betearazleak: erregelamenduak legearekin “kolaboratzen” duenean materia bat arautzeko. Antolakuntza bitartekoak ezartzen ditu erregelamenduak, baina ez hori soilik, baita legea bete, garatu, zehaztu, aplikatu, osatu, exekutatu.

5. GAIA: Oinarrizko eskubide eta askatasunen sistema espainiar konstituzioan

1.- Sarrera: oinarrizko eskubideen kontzeptua, izaera, ezaugarriak eta sailkapena

1.1 Kontzeptua:

1.2 Izaera

1.3 Eskubideen sailkapena

1.4 Oinarrizko eskubideen sistemari kritika

2. Oinarrizko eskubide eta askatasunen aitortza konstituzionalaren ezaugarriak

3.1 Eraginkortasuna

3.2 Mugak

4. Oinarrizko eskubide eta askatasunen interpretazioa

5. Oinarrizko eskubide eta askatasunen titulartasuna eta erabilera baldintzak

5.1. Sarrera

5.2. Adin nagusitasuna:

5.3. Naziotasuna

5.4. Atzerritartasuna

1.- Sarrera: oinarrizko eskubideen kontzeptua, izaera, ezaugarriak eta sailkapena

1.1 Kontzeptua:

Zer dira oinarrizko eskubideak?

Ordenamendu juridiko jakin batek bermatzen dituen giza eskubideak, normalean Konstituzioan jasoak, eta babes berezia eta indartua dutenak (babes maila gorena ordenamendu barruan).

Estatu konstituzional baten funtsezko elementu dira eta Konstituzioaren atal dogmatikoaren nukleo esentziala osatzen dute. Horregatik, Konstituzioek modu zabal batean jasotzen dituzte bere berme normatibo, instituzional eta jurisdikzionalak.

Zerk egiten du eskubide bat “oinarrizko”?

Ez dago irizpide unibertsalik. Oinarrizkoak dira zuzenbideak tokian toki hala markatzen dituenak, eta hori modu ezberdinetan egiten da:

- Herrialde batzuetan Konstituzioan jasotzen dira, modu zabalean (Alemania, Portugal, Frantzia).
- Beste batzuetan testu historikoetara igorpen bat egiten da (Frantzia)
- Beste batzuetan idatzi gabeko berme bezala jasotzen dira, beren zuzenbidea ohituran oinarritzen delako (Erresuma Batua).

Norberto Bobbio italiar legelari ospetsuaren iritzian, “Konstituzio batean herritar guztiei, edozein baldintza dela ere, aitortzen zaizkien eskubideak” dira oinarrizko eskubide. Giza behar oinarrizko eta zentraleri erantzuna ematen dieten eskubideez arituko ginateke..

Non dago eskubideen jatorria?

Erantzuna emateko, iritzi korrante ezberdinak aipa ditzakegu:

- Iusnaturalismoa: pertsonak pertsona direlako dituzten eskubideak, bere duintasunari lotuak, eta Estatuaren aurrekoak direnak. Kritika: Baloreetan geratzeko arriskua dago, eta gainera, historikoki konprobatu da eskubide hauen kopuru eta edukia aldatu egin dela.
- Eszeptizismoa: ez dago giza eskubide unibertsalik, mundu mailan aplikagarria denik.

- Positibismoa: oinarrizko eskubide dira botereak hala izendatzen dituenak. Argia da metodo hau, baina orduan edozein boteredunek edozein modutan finka litzake.

Seguruena hiruetatik zerbait hartu beharko litzateke, baina egia da, behintzat eskubideen eraginkortasunari begira, *positibizazioa* funtsezko elementu bezala agertzen zaigula. Hortaz, funtsezkoa da botere publiko guztiei muga bezala eragitea eta hauek beren oinarrizko edukia errespetatu behar izatea.

1.2 Izaera

Oinarrizko eskubideek izaera bikoitza daukate: subjektiboa eta objektiboa.

Subjektiboki: Eskubide subjektiboak dira (epaile baten aurrean aldarrikatu daitezke, Konstituzioak “erabilgarritasun zuzena” aitortzen dielako), eta herritar batek Estatuaren aurrean eta beste herritarren aurrean duen estatutu juridikoa konformatzen dute. Konstituzioaren 10.1 artikulua giza duintasunarekin eta pertsonalitatearen garapen askearekin lotzen ditu.

Objektiboki: oinarrizko eskubide eta askatasunak kontsentsu sozial eta politikoaren presupuestoak lirateke, alegia, herritarren arteko oinarrizko akordioaren emaitza (hitzarmen soziala). Horregatik, izaera axiologikoa daukate, sistema konstituzional osoa informatu eta zilegitu egiten dutelarik.

Beraz, oinarrizko eskubide eta askatasunak ez dira soilik Estatuari edota beste herritarrei jarritako mugak, baizik eta, positiboki kontsideratuta, balore eta helburu multzo bat dira, giza elkarbizitza eta Estatu-botereen ekinbidea markatzen dutenak.

1.3 Eskubideen sailkapena

Ikuspegi diakroniko batetik, doktrinak 3 eskubide belaunaldi ezberdin ohi ditu, Frantziar iraultzaren 3 baloreetan oinarrituz (askatasuna, berdintasuna eta elkartasuna):

- Lehen belaunaldia:
 - Testuingurua: Frantziako eta Iparramerikako Iraultzak.
 - Aitortutako eskubideak: eskubide zibil eta politikoak.
 - Oinarria: askatasuna.
- Bigarren belaunaldia:
 - Testuingurua: Iraultza sozialistak, langile mugimenduaren indartzea.

- Aitortutako eskubideak: Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak
 - Oinarria: berdintasuna.
- Hirugarren belaunaldia:
 - Testuingurua: kolonialismoaren aurkako iraultzak, globalizazioa...
 - Aitortutako eskubideak: bakea, ingurumena, garapenerako eskubidea...
 - Oinarria: elkartasuna.

Lehen belaunaldiak, beraz, eskubide zibil eta politikoak barne hartzen ditu. Eskubide horiek izan ziren XVIII. mendearen amaieran, Estatu Batuen Independentzian eta Frantziako Iraultzan legez onartuak izan ziren lehenak. Pertsonen askatasuna bermatzen saiatzen diren eskubideak dira. Bere eginkizun nagusia da botereak pertsonen bizitza pribatuan duen esku-hartzea mugatzea, eta gai publikoetan “guztien” parte-hartzea bermatzea. Eskubide zibil garrantzitsuenak aipa daitezke: bizitzeko eskubidea, ideologia- eta erlijio-askatasunerako eskubidea, adierazpen askerako eskubidea edo jabetzarako eskubidea. Bestetik, oinarrizko eskubide politiko bezala ditugu: botoa emateko eskubidea, grebarako eskubidea, alderdi politiko bat edo sindikatu bat osatzeko eskubidea, elkartzeko eskubidea, etab.

Bigarren belaunaldiak eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak jasotzen ditu. Eskubide horiek pixkanaka-pixkanaka sartu ziren legedian XIX. mendearen amaieran eta XX. mendean. Pertsonen arteko benetako berdintasuna sustatzen saiatzen dira, guztiei bizitza duina garatzeko aukera berdinak eskainiz. Estatuaren ekintza sustatzea dute eginkizun, guztiek bizi-baldintza egokiak izango dituztela bermatzeko. Bigarren belaunaldiko eskubide batzuk honako hauek lirateke: hezkuntzarako eskubidea, osasunerako eskubidea, lanerako eskubidea, etxebizitza duina izateko eskubidea, etab.

Eskubideen hirugarren belaunaldia XX. mendearen amaieran eta XXI. mendearen hasieran sartu da legeetan. Mundu osoko herrien eta pertsonen arteko elkartasuna sustatu nahi da. Bere eginkizuna harreman baketsu eta eraikitzaileak sustatzea da, gizateriak aurrean dituen erronka berriei aurre egin ahal izateko. Hirugarren belaunaldiko eskubideen artean honako hauek azpimarra ditzakegu: bakerako eskubidea, garapenerako eskubidea eta guztiok goza dezakegun ingurumen garbi baterako eskubidea.

Gaur egun, informazio eta komunikazio teknologien garapenari loturik (eta zientziaren aurrerakadari loturik oro har) eskubideen laugarren belaunaldi batez hitz egiten da.

1.4 Oinarrizko eskubideen sistemari kritika

Gure inguruko Konstituzio gehienetan, Espainiakoan barne, eskubideen banaketa bat dago ezarria: oinarrizko eskubideen eta funtsezkoak ez direnen arteko banaketa. Ez da kasualitatezko bereizketa bat, arrazoi historikoak ditu eta konstituzio-ikuskera jakin batez blaituta dago, liberala, gure ustez, gainditu beharko litzatekeena. Zergatik? Pertsonaren duintasunaren onarpen osoaren eta nazioarteko zuzenbideak ezarritako giza eskubideen zatiezintasun, interdependentzia eta interrelazio printzipioen aurkakoa delako.

Gerra hotzaren hasierak amaiera eman zion XX. mende hasieratik ematen ari zen eskubideen aintzatespenari eta bermeari buruzko eztabaida integralari, zeina Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala borobildu baitzen. Adierazpen horrek era guztietako eskubideak aitortzen ditu, bereizi gabe eta nahastuta.

Bere onarpenaz geroztik, baina, bi herrialde-bloke handi eratu ziren, kapitalista eta sozialista, eskubideak zatikatu eta kategorizatu zituztenak beren proiektu politikoaren edo ikuskera ideologikoaren arabera. Bi sistemetako bakoitzean eskubide desberdinak aitortu eta bermatzen ziren: bloke kapitalistan zibilak eta politikoak, bloke sozialistan sozialak. Beraz, eskubide batzuk babesten ziren eta beste batzuk baztertzen. Batzuk funtsezkotzat jotzen ziren eta besteak ez. Pixkanaka, eskubideak partzialki ukatzeko bi eredu desberdin indarrean jarri ziren.

“Eskubideak partzialki ukatzeko eredu” deitzen diegu sektore bati eskubide horien aitortpena mugatzen dioten eredu edo sistemei, eta horrek esan nahi du eskubide batzuk onartzen direla eta beste batzuk baztertu egiten direla, funtsean arrazoi ideologikoetan oinarrituta, eta kanpoan uzten direla norberaren ikusmoldearekin bat ez datozenak.

Beraz, eskubideak zatitzeko edo atomizatzeko ereduak dira, eta, adierazi dugun bezala, eskubide horien zatiezintasun-, interrelazio- eta interdependentzia-printzipioen aurkakoak.

Bi eredu horiek nazioartean gauzatu ziren gertaera historiko nagusia izan zen NBEn ezinezkoa izan zela Giza Eskubideen aldeko Nazioarteko Itun bakarra onartzea, eta, 1966an, 2 eskubide-itun handiak onartu ziren: Eskubide Zibil eta Politikoaren aldeko Nazioarteko Ituna eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen aldeko Nazioarteko Ituna.

Aurrekoak ondorio argiak izan zituen, eta gaur egunera arte iritsi dira. Horrela, gure inguruko konstituzioek, eskubide zibil eta politikoak oinarrizkotzat eta eskubide sozial gehienak

ez-oinarrizkotzat jotzean, lehenengoak botere publikoak eta partikularrak lotzen dituzten lehen mailako eskubide gisa kokatzen dituzte, eta gizarte-eskubideak bigarren mailako eskubide gisa, zuzenean ez-eskubide edo printzipio huts ez badira.

Nola justifikatu izan da hau guztiau?

Gehien erabiltzen den azalpenetako bat honako hau da: eskubide zibil eta politikoak eskubide negatiboak diren eta kosturik sortzen ez duten bitartean, eskubide sozialak positiboak dira eta inbertsio handia dakarte. Baina badakigu hori ez dela guztiz egia: botoa emateko edo babes judizial eraginkorra izateko eskubideak, bi adibide aipatzearen, betebeharrak positiboak ezartzen dizkiote Estatuari. Bestalde, eskubide sozialak aitortzea kostu handiagoa izateak ez du justifikatzen eskubide horien erabateko eraginkortasuna ez bermatzea. Pentsatu, adibidez, hezkuntzarako eskubidean.

Antzeko beste justifikazio batek azaltzen du baliabide urriak dituen mundu batean guztien beharrak ezin direla ase, eta, beraz, ezin dela onartu beharra duten guztiek beren eskaerak betetzeko behar dituzten baliabideak izateko eskubidea izatea. Hala ere, erantzun daitezke Estatu baten baliabideak mugatuak izateak eta, beraz, pertsona bati bestearen aurretik lehentasuna eman behar izateak ez duela esan nahi bigarrena dagokion eskubidearen titularra ez denik.

Guztiarekin, giza duintasuna zatiezina den bezala, eskubideek ere, zibilak, politikoak, sozialak edo kulturalak izan, zatiezinak izan behar lukete, guztiek giza duintasunarekin duten lotura zuzenagatik tratatu bera eskatuz.

Ildo horretan, 1993an Vienan egindako Giza Eskubideei buruzko Mundu Konferentziaren azken adierazpenak adierazi zuen giza eskubide guztiak unibertsalak, zatiezinak, elkarren mendekoak eta elkarri lotuak direla.

Aurrekoarekin, badirudi argudio nahikoak daudela oinarrizko eskubideen eta oinarrizkoak ez direnen arteko bereizketa eza lortzeko bidean aurrera egin behar dela baieztatzeko. Eta horixe bera egin da Latinoamerikako Konstituzionalismo Berriaren Konstituzioetan, ez baitituzte bereizten oinarrizko eskubideak eta oinarrizkoak ez direnak; aitzitik, eskubideez hitz egiten dute soilik (ezberdintzerik gabe), guztiei berme juridiko berdinak emanez.

2. Oinarrizko eskubide eta askatasunen aitortza konstituzionalaren ezaugarriak

Espainiar Konstituzioan, I. tituluaren barruan jasotzen dira oinarrizko eskubideak, oinarrizkoak ez diren beste eskubide batzuekin zerrenda luzea osatuz, zerrenda horretan toki pribilegiatua emanez (hasieran) eta haientzako berme mekanismo ezberdinak aurreikusiz.

Konstituzioaren I. titulua 10. artikuluekin hasten da.

1. Lehen xedapenean, iusnaturalismoaz blai, pertsonari berez dagozkiola esaten da, osotasun bokazioarekin, eta abar.
2. Bigarren xedapenean, berriz, Giza Eskubideen Aitorpen Unibertsalarekin bat eginez interpretatu beharra dagoela ezartzen da.

Lehen kapituluan (11-13. artikulua), espainolen eta atzerritarren estatusa mugatzen da; alegia: Naziotasuna, adin-nagusitasuna eta atzerritarren eskubideak.

Bigarren kapitulua 14 artikuluekin irekitzen da, zeinak ezarri egiten baituen espainolak berdinak dira legearen aurrean. Baieztapen hau aurrebaldintza bat da eskubideen erabilerari dagokionez: ezin da diskriminatu. Ondoren bi atal datoz:

- Lehena: oinarrizko eskubide eta askatasunak (15-29).
- Bigarrena: hiritarren eskubide eta betebeharrak (30-38).

53 artikulua arabera (eskubideen bermeak finkatzen dituena), babes maila ezberdina dute.

Hirugarren kapituluan (39-52 art.) “eskubide” ekonomiko sozial eta kulturalak daude, “printzipio zuzentzaile” huts bezala konstituzionalizatzen direlarik. Horrek esan nahi du legegintza positiboa, epaileen eta, oro har, Estatuko botere ezberdinen jarduna “informatu” egiten dutela, norabidetu. Baina ezin alega daitezke epaile baten aurrean ez bada legeak hala aitortzen duelako (ikus etxebizitza eskubidearekin gertatzen dena).

Laugarren kapituluan (53-54 art.) eskubideen bermeak ezarri egiten dira. Bermeak, nagusiki, bi motatakoak dira: orokorrak eta zehatzak.

Berme orokorrak baliabide abstraktuak dira. Herri-aginteen jarduerak edo jarduerarik ezak Konstituzioan dauden oinarrizko eskubideak urratzeko edo ez onartzeko arriskua saihesteko erabiltzen dira, eta baita ere konstituzioan eskubideentzat hartzen den gutxieneko edukia galtzen denean. Beraz,

berme horien hartzailea ez da gizabanakoa, kolektibitatea baizik. Hauen artean kokatzen dira oinarrizko eskubideen zuzeneko erabilgarritasuna, lege-erreserba eta funtsezko edukiaren bermea.

Berme zehatzak, aldiz, erreakzio-baliabideak dira. Hiritarrei eskaintzen zaizkie, kasuz kasu, oinarrizko eskubide bat urratu dela uste izandakoan, eskubidea babestu edo berreskuratzeko horietara jotzeko modua izan dezaten. Funtsean berme juridikozionalaz ari gara: epaileen babes, lehentasunezkoa eta sumarioa den prozedura eta babes-helegitea.

Hauetatik aparte, Pérez Royok berme “organiko” bezala deitzen duena legoke, Herriaren Defendatzailea edo Arartekoa, oinarrizko eskubideen defentsa egiteko pentsatua dagoen organoa, hori egin ahal izateko oso eskumen ahulak baditu ere.

Bukatzeko, bosgarren kapituluan (55. art.) eskubideen suspentsioa arautu egiten da, kolektiboa ala indibiduala izan daitekeena. Kolektiboa, salbuespen eta setio egoeren kasuan, eta indibiduala, legedia antiterrorista pean atxilotuak diren norbanakoen kasuan.

3. Oinarrizko eskubide eta askatasunen eraginkortasuna eta mugak

3.1 Eraginkortasuna

Oinarrizko eskubideek (14-29. art. + 30.2) zuzenki aplikagarria den zuzenbidea osatzen dute, botere publiko guztiak lotzen dituztelarik, 53.1 artikulua dioen moduan. Hau da, ez dira printzipio programatiko soilak, eskubide/betebeharren berehalako jatorri baizik. Oinarrizko eskubideak, beraz, eskubide subjektiboak dira, eta botere publikoentzat berehalakoa eta zuzena den eragina dute.

Esaten duguna ulertzeko adibide bat aipatzearren: kontzientzia eragozpena ez zen 1984ra arte arautu lege bidez, baina horrek ez zuen eragotzi eskubidea hori egin aurretik bermatzea. Nola egin zen? Armadarako inkorporazioa *sine die* atzeratuz, kontzientzia eragozpena legez aratu zen arte.

3.2 Mugak

Eskubide orok mugak ditu. 10.1 artikulua adibidez, “legearekiko errespetua eta besteen eskubideekiko errespetua” ezartzen ditu muga orokor moduan.

Muga horiek espresuki behar dute Konstituzioan jasoak egon, edo bestela ere, muga horiek baimenduak egon behar dute, inplizituki bada ere, Konstituzioan.

Doktrinak, horrexegatik, muga intrinseko eta extrinsekoak aurreikusten ditu:

- Intrinsekoak (berezkoak): eskubidearen izaera bertatik eratortzen direnak.
 - Adibidez: Katedra askatasunak irakasleak bere funtzioetan babesten ditu hezkuntza sistema barruan, baina ez bestelako kasuetan. Horretarako adierazpen askatasuna legoke.
- Extrinsekoak (kanpokoak): ordenamendu juridikoak berak ezarri dituenak.
 - Adibidez: adierazpen askatasunerako 20.4 artikulua: ohore eskubidea, intimitatea, adingabekoen babes; erlijio edo ideologi askatasunerako ordena publikoa errespetatzearen beharra (16 art.); eta abar.

Edozein kasu, ezarritako mugapenak ere mugak dituzte:

- Eskubidearen oinarrizko edukiarekiko errespetua (53.1 CE).
- Proporzionaltasuna. Auzitegi konstituzionalak zera esan du: Ezin dute mugapenak eskubidea oztopatu arrazoizkoa dena baino gehiago. (Adibidea: Covid murrizketak. Epaileek beharrezkotasuna, egokitasuna eta proporzionaltasuna baloratu egiten zuten).

4. Oinarrizko eskubide eta askatasunen interpretazioa

Oinarrizko eskubideen interpretazioaz aritzean ezin da bistatik galdu eskubide hauek ordenamendu juridikoan paper zentrala dutela. Berez, arau guztiak interpretatu behar dira Konstituzioan jasotakoaren arabera, baina, Konstituzio Auzitegiaren arabera, hori zorrotasun bereziz egin behar da oinarrizko eskubide eta askatasunei eragiten dieten araez ari garenean. Eta zertan dauka itzulpena horrek?

1. Aintzat hartu behar da Konstituzioaren 10. artikulua esaten duenean oinarrizko eskubideak ordena politikoaren oinarri direla eta haiek interpretatzerakoan giza eskubideen nazioarteko zuzenbideari erreparatu behar zaiola.
2. Edozein kasu, interpretazioan zalantza badago, beti eskubideari indar gehien ematen dion interpretazioa lehenetsi behar da.
3. Legegileak ezartzen dituen mugapenak beti ikuspegi murriztuarekin interpretatu behar dira.

5. Oinarrizko eskubide eta askatasunen titulartasuna eta erabilera baldintzak

5.1. Sarrera

Oinarrizko eskubide eta askatasunak, eta Konstituzioak jasotzen dituen bermeak, ez dira herritar guztientzat berdinak[1]. Ezberdindu egin behar da:

- Eskubide osoen titularrak diren herritarak (pertsonalitate juridiko osoa) eta mugapenak dituztenak (atzeritarrak eskubide politikoekiko).
- Eskubide osoen titular izanik, bere erabilera mugak dituztenak, eta bitartekari bat behar dutenak: adingabeak, inkapazituak, inhabilitatuak, eta abar.

Konstituzioak hiru aldagai ezberdintzen ditu eskubideen jabetza eta erabilera baldintzatzen dutenak: Naziotasuna (11 art.), adin nagusitasuna (12 art.) eta atzeritartasuna (13 art.).

5.2. Adin nagusitasuna:

Eskubideak erabiltzeko ahalmen osoa, Konstituzioaren arabera, 18 urterekin lortzen da. Hala ere, batzuetan, eskubideak erabiltzeko ahalmena lehenago onartzen da:

- Testamentua emateko: 14 urte (KZ 663 art.).
- Ezkontzeko: 14 urte, adingabe emantzipatuen kasuan (Ikus KZ 46 eta 48 art.)
- Erantzukizun penala: 14 urtetik aurrera.

5.3. Naziotasuna

Naziotasunak, Estatu batek duen herria osatzen duten herritarren eta Estatuak zein ordenamenduaren arteko lotura adierazten du, eta beharrezko baldintza da legeak eta Konstituzioak ezartzen dituzten eskubide eta askatasun guztiak ematen dituen herritar estatusa lortzeko. Beraz, beharrezko baldintza da mugarik gabe eskubideen jabe izateko eta horiek mugapenik gabe erabiltzeko.

Konstituzioak hiru aipu egiten ditu naziotasunaren inguruan:

- Legeak ezartzen du naziotasuna nola hartu, gorde eta galtzen den.
- Jatorrizko espainolei ezin zaie naziotasuna kendu.
- Baimendua dago naziotasun bikoitza.

5.4. Atzerritartasuna

Atzerritarrak dira naziotasun espainolik ez dutenak, eta beren estatusa Konstituzioaren 13. Artikuluan arautzen da:

- Atzerritarrek Konstituzioak aitortzen dituen eskubideak dituzte, baina beren edukia murrizten ahal da legeek eta nazioarteko tratatuek diotenaren arabera. Hori bai, Konstituzio Auzitegiak zehaztu du betiere oinarrizko edukia errespetatu egin behar dela.
- Atzerritarrak ez dira 23. artikuluan biltzen diren eskubideen titular. Ez dute berez bozka emateko edo hautagai izateko eskubiderik, ez bada udal hauteskundeetan eta betiere nazioarteko tratatu batek hala baimentzen badu. Bestetik, ezin dute funtzionari publiko izan, administrazio publiko batekin lan kontratua egin dezaketen arren.

[1] Argipen teoriko bat egitea komeni da. Gauza bat da nortasun juridikoa (gaztelaniaz, “personalidad jurídica” esaten dena) eta existentzia juridikoa esan nahi duena; beste bat gaitasun juridikoa (gaztelaniazko “capacidad jurídica”), erreferentzia egiten diona subjektu batek eskubide eta betebeharrak izateko duen ahalmenari; eta beste bat jarduteko ahalmena (gaztelaniazko “capacidad de obrar”): gauza bat da “orokorrean” eskubide eta betebeharrak izateko ahalmena, eta beste bat, “zehatzean” egoera konkretu batean eskubide horiek erabiltzeko ahalmena izatea

6.-GAIA: Estatuaren forma politikoa. Monarkia Parlamentarioa

- 1.-Sarrera
2. Monarkiaren bilakaera
3. Monarkia parlamentarioaren erregulazioa 1978ko konstituzioan
 - 3.1. Monarkia trantsizioan eta 1978ko Konstituzioan
 - 3.2. Koroa konfiguratzeko duten elementuak:
4. Erregearen ekintzen izaera eta berrespenaren beharra
 - 4.1. Erregearen funtzioen izaera juridikoa
 - 4.2. Erregearen bortxaezintasuna, erantzunik eza eta ondoriozko Erregearen ekintzen berrespenaren beharra
5. Koroaren funtzioak (erregearenak)
 - 5.1. Botere exekutiboari dagokionez:
 - 5.2. Botere legegileari dagokionez
 - 5.3. Botere judizialari dagokionez
 - 5.4. Bestelako funtzioak

1.-Sarrera

Dakigunez, Konstituzioaren 1.3 artikuluan ezarri egiten da Estatuaren forma politikoa monarkia parlamentarioa dela. Hortxe hasten da monarkiaren erregulazioa Espainiar Konstituzioan, hori bai, aurrez ezarri egiten delarik Espainia zuzenbide estatu sozial eta demokratikoa dela (1.1. art.) eta Estatu botereak espainiar naziotik jaiotzen direla, zeina subiranotasunaren jabe baiten (1.2. art.).

Hortik aurrera, “Koroa” Konstituzioaren II. Tituluan arautzen da, Estatuko botere legegile, betearazle eta judizialaren aurretik. Eta zergatik aurretik? Kasualitatea al da?

Bere tokia konstituzioan polemikoa da. Gaur egun Carta Magnan daukan tokia, Estatu botereen aurretik eta ez beraien artean, ez dauka aurrekaririk. Espainiar Konstituzionalismo historikoari erreparatuz, behintzat, ikusiko genuke normalean Estatu botere ezberdinen artean arautu dela, gehienetan, botere legegilearen atzetik. Zergatik bada Estatu botereen aurretik arautu?

Pérez Royok azaltzen duenez, Monarkia “despolitizatu” nahi izan zen ez zedin izan, iraganean bezala, jendartearen banaketarako elementu politiko bat. Hori bai, ustezko despolitizazio horren ordaina, “irrelebantzia politiko” litzateke.

Zer esan nahi da honekin? Bada, egun, Monarkiak ez duela “nazio espainiarrarengandik” eratortzen den inolako botererik erabiltzen (art. 1.2). Estatu botereak hiru dira; exekutibo, legegile eta judiziala, eta Monarkia hortik kanpo geratzen da. Eta logikoa dirudi, autore berak dioenez, Estatu demokratiko batean ezin baitu botere efektibo bat izan. Horregatik, “soilik beste organo juridiko edo politikoek ematen dituzten erabakiak formalizatzerara mugatzen da. Ez du beraz botere errealik”.

Ingalaterrara begiratzen badugu, Walter Bagehot juristak bi alde ezberdintzen ditu Konstituzio Ingelesean: *dignified part* eta *efficient part of the Constitution*. Koroa lehenaren parte litzateke, Estatu botereak (errealak) bigarrenaren parte. Bada, bere hausnarketa Espainiar Estatura ekarrita, Koroa ere *dignified part* dela esan genezake, sinbolikoa, funtzio jakin eta tasatu batzuk betetzen dituena, baina ez botere erreal bat (*efficient*).

Hori esanda, egungo Monarkia, Espainiar Konstituzioan inkorporaturik dago 1978an huraxe izan zelako orduko elite politiko eta ekonomikoaren nahia; Erregimen frankistaren Oinarrizko Legeriak ezartzen zituen oinordekotza aurreikuspenak bete nahi izan zirelako, zuzenean

herriari galdetu orde. Oroitu, Pérez Royo jarraituz: helburua Monarkiaren berrezarpena zen (horrek suposatzen zuen guztiarekin); Europan homologagarria izango zen sistema demokratikoa eratzea, operazio hura bideratzeko modua besterik ez zen izan (ezin zitekeen beste modu baten egin).

Gainera, ez ahaztu, Koroarekin zerikusia duen guztia Konstituzioaren 168. artikuluekin babestu zuten, praktikan erreforma bideraezin egiten duena.

Sarrerarekin amaitzeko: 56.1 artikuluan (Pérez Royoren arabera “sinbolikoa, literarioa eta ez araukorra” dena) Estatu buruzagitza ematen zaio Erregeari, eta hau ere kritikatu egiten du Sevillako juristak.

Bere ustez, Estatu buruzagitza (ez soilik monarkia) instituzio irrazionala da, soilik arrazoi historikoengatik bizi dena. Zergatik? Bada, lasai asko Estatu buruzagiaren egungo funtzioak beste organo konstituzionalek asumi ditzaketelako. Eta ongi pentsatuta, egia da botere banaketaren teoriak ez duela Estatu buruzagitzarentzat inolako funtziorik aurreikusten. Horrela bada, zertarako konstituzionalizatu?

2. Monarkiaren bilakaera

Historikoki, printzipio demokratikoan eta printzipio monarkikoan oinarriturik egon diren gobernu formak aurrez aurre egon dira. Historiak hori erakusten du. Alta, Monarkia parlamentarioarekin, monarkia demokraziarekin bateragarria egiten saiatu ziren. Nola? Parlamentarismoa egokituz eta Monarkiaren boterea asko mugatuz, praktikan botere sinboliko bezala utzi arte.

Espainiar Estuari dagokionez aintzat hartu behar ditugu:

Estatuaren buruzagitzaren oinordekotza legea (1946): Franco hiltzean monarkia berrezarria geratuko zela finkatu zen, baina Estatu buruzagitzan oinordekorik izendatu gabe.

Estatuaren Lege Organikoak (1967) eta 1969ko uztailaren 22ko legeak osagarritu zuten aurreko legea, Juan Carlos I-ri tronua emanaz. Are gehiago, ezaguna ez den arren, Franco gaixorik zela, Erregeak bitan asumitu zuen behin-behineko estatu buruzagitza.

Koronazioa, behin Franko hilda, gorte frankistetan eman zen. Hau da, oinordekotza legeek aurreikusten zutena hitzez hitz bete zen.

Adolfo Suarezki Europako agintariak Monarkia Vs. Errepublikari erreferenduma antolatzen eskatu bazioten ere, berak uko egin zion. Horren ordez, Monarkia Erreforma Politikoaren legean sartu zuen, trikimailu honen bidez monarkia etorkizuneko demokraziari lotuta utziz. Nola Oinarrizko Lege hori erreferendum bidez onetsia izan zen, monarkiaren etorkizuna blindaturik geratu zen (aintzat hartu behar da Adolfo Suarezek berak aitortu zuela, bi hamarkada beranduago, ez zuela Europatik agindutako erreferenduma antolatu monarkikoek galtzen zutelako).

1978an monarkia Konstituzioan jasotzen da Estatuko alderdi nagusien babesarekin (PCE barne). Behin erreferendumean berretsita, guztiz zilegiturik geratu zen. Gainera, Juan de Borbonen (Juan Carlos erregearen aitaren) abdikazioak erregearen zilegitasun dinastikoa handitua zuen aurretik (1977ko maiatzean eman zen).

3. Monarkia parlamentarioaren erregulazioa 1978ko konstituzioan

3.1. Monarkia trantsizioan eta 1978ko Konstituzioan

Konstituzioan Monarkia jasotzea nola justifikatu zen? Ikusi berri dugun bezala, indarrean zegoen legediaren arabera, Monarkiak jarraitu behar zuen. Erregimen frankistarekiko jarraikortasuna beharrean haustura demokratiko bat gauzatu izan balitz (esaterako, Portugalen bezala), Monarkia, frankismoarekin zituen lotura historikoengatik, instituzio demokratikoen artetik desagerraraztea litzateke zentzuzkoena. Gainera, bere legitimazio demokratikoa oso zaila zen garai hartan, baina egin zuten.

Pérez Royoren ustez, baina, anomalia historiko bat besterik ez da, arrazionalki justifikatzerik ez dagoena. Bi elementu nagusiren gainean eraikitzen du bere kritika:

1. Monarkia, ikuspegi konstituzional batetik, ez da Estatu botere bat, haien arteko arbitro bat baizik. Baina Estatu botere bat ez bada, are zailagoa egiten da bere beharra justifikatzea, hain zuzen ere beste organo moderatzaile bat egon badagoelako, Estatu botereen arteko gatazkak konpontzeko eskumena duena: Konstituzio Auzitegia.
2. Egungo sistemaren muina ordezkatarratasuna da, eta, Monarkia berriz, ez da instituzio ordezkatzailea. Horrexegatik oso zaila egiten da arrazionalki justifikatu nahi izatea, ikuspegi demokratiko-ordezkatzaile batetik ez baitago nondik hartu.

Hori esanik, gogoratu behar da Erregea (eta Koroa instituzio gisa) Konstituzioaren menpeko dela, eta soilik Konstituzioak esleitzen dizkion funtzioak bete ditzakeela.

3.2. Koroa konfiguratzeko duten elementuak:

Lau elementu nagusi ezberdindu ditugu:

1. Erregea:

Konstituzioaren 56. artikulua estatu buruzagitza ematen dio. Erregeak Koroa pertsonifikatzen du eta Estatuaren batasun eta iraunkortasunaren ikurra da. Hori esanik, Konstituzioaren menpekoa da. Konstituzioa zin egin behar du (61.1 art).

2. Oinordekotza (gaztelaniaz, “sucesión regia”):

Jakina denez, hereditarioa da, 57.1 artikuluan finkatzen direlarik horretarako irizpide nagusiak. Primotasuna da irizpide nagusia, gizonezkoa emakumezkoari nagusitzen zaiolarik gradu bereko senideen artean.

Talka al dago 14. artikulua konsakratzen duen legearen aurreko berdintasunarekin? Balirudike baietz, 2006an 33/2006 legea onartu behar izan baitzen, *emakume eta gizonezkoen arteko berdintasunarena titulu nobiliarioen oinordekotzan*. Salbuespena, orain, Erregea da, zeinean gizonezkoa emakumezkoari gailentzen jarraitzen baitzaion.

3. Erregeordetza (gaztelaniazko *regencia*): 59 art.

Bi egoeratarako dago aurreikusita: oinordekoa adingabekoa denerako edota Erregea gaitasungabetu dutenerako. Adingabekoen kasuan, aita edo ama erregeorde izango dira, edo bestela, oinordekotza lerroan hurrengo adinez nagusia. Gaitasungabetze prozesu bat eman bada, orduan Erregeordea printzea litzateke adinez nagusia balitz, eta bestela, 57 artikulua jarraituz.

4. Errege etxea (gaztelaniazko *Casa Real*): 65 art.

Aurrekontu orokorretan partida bat egongo da beti Errege Etxearen mantentzeko. Erregeak libreki kudeatzen du aurrekontu hori.

4. Erregearen ekintzen izaera eta berrespenaren beharra

4.1. Erregearen funtzioen izaera juridikoa

Esan dugu aurretik Espainiar Konstituzioari dagokionez Koroa ez dela botere “erreal” bat, eta hori egia da. Estatuko hiru botereak betearazlea, legegilea eta judiziala dira, eta Koroa hortik kanpo kokatzen da.

Hortik aurrera, Koroaren sinbolismoaz mintzatu gara, Konstituzioak ezarri egiten baitu Erregea dela Estatuaren batasun eta iraunkortasunaren sinbolo. Alta, hori esanik, zehaztu behar da Erregearen funtzioak ez direla soilik sinbolikoak. Bere funtzioek eragin juridiko-konstituzionala dute. Eragin juridikoa du bere jardunak.

Esaterako: Konstituzioak esaten badu lege batek lege izateko Erregearen aldarrikapena eta berronespena behar duela, hala behar du izan. Erregeak ez du erabakimenik, Parlamentuak onartutako legea aldarrikatu eta berronetsi behar du, bai ala bai. Baina hori argi izanik, Erregearen aldarrikapen eta berronespenik gabe legea ez da lege.

4.2. Erregearen bortxaezintasuna, erantzunik eza eta ondoriozko Erregearen ekintzen berrespenaren beharra

Puntu honetan jorratuko dugu Espainiako Koroaren auzirik eztabaidatuenetariko bat: Erregearen bortxaezintasuna eta erantzunik ezarena.

Konstituzioaren 56.3 artikulua araberan, “Espainiako erregearen pertsona bortxaezina da, eta erantzunik (erantzunik legea, esan nahi da) libre dago”. Zer esan nahi du honek? Bada, Erregea ezin dela legalki jazarria izan karguan egiten dituen ekintzen ondorioz eta ez dela egiten duenaren erantzule legala.

Horrexegatik, hain zuzen, Konstituzioak ezarri egiten du Erregearen ekintzen berrespenaren beharra, beste instantzia batek Erregeak egiten dituen ekintzen erantzukizuna bere gain hartzen duelarik (64.2 art.). Zehazki nork? Erantzuna 64.1 artikuluan dator: Batetik, Gobernu Presidenteak eta Ministroek. Bestetik, Kongresuko Presidenteak (99 artikuluan ezartzen diren funtzioetarako: Inbestidura saioa eta Parlamentuaren disoluzioa). Ez dute berrespenik behar kontu pertsonalek eta errege etxearekin zerikusia dutenak.

Non dago bada polemika? Bere bortxaezintasunaren hedaduran. Noraino zabaltzen da? Bistan da Erregea bere funtzioak egikaritzen ari denean babesturik geratzen dela, parlamentariak ere

babesturik dauden bezala; baina ekintza pribatuetan? Saudi Arabiako AHTa enpresa espainol batek egin dezan bitartekari lana egiteagatik legez kanpoko komisioak kobratzen baditu, babesturik dago? Emakumen bat akosatu edota erasotzen badu?

Printzipioz ez dirudi oso logikoa horrelakoen aurrean babesturik geratzea, ekintzok ez baitute zer ikustekorik bere lan instituzionalarekin. Alta, Tribunalek, Erregearen bortxaezintasuna modu absolutu eta total batean interpretatu dute, praktikan bortxaezintasuna inpunitate bilakatu delarik.

Gainera, Koroak, egiten zuena egiten zuela, beti kontatu du Estatuko alderdi politiko nagusien babesarekin, eta jakina bada ere azken hamarkadatan lege hauste larri ezberdinak egin dituela, horiek estaltzeko ahalegina bizia izan da. Ikusi besterik ez dago ezinezkoa izan dela, hainbatetan eskatu bada ere, Kongresuan ikerketa batzorde bat martxan jartzea Koroak egindakoa ikertzeko, funtsean, alderdi politiko nagusiek ekimenari bidea itxi diotelako.

5. Koroaren funtzioak (erregearenak)

Koroak funtzio ezberdinak betetzen ditu Estatuko botere betearazle, legegile eta judizialari dagokionez:

5.1. Botere exekutiboari dagokionez:

Gobernu Presidenterako hautagaia aurkezten du, baita izendatu eta eten ere, betiere Konstituzioak dioenari jarraiki (62.d art.). Horretarako kontsultak egin behar ditu alderdietako ordezkariekin (99 art).

Gainerakoak:

- Ministroen izendapena, presidentearen proposamenari jarraiki.
- Ministro kontseiluaren dekretuen bidalketa (expedición).
- Estatu aferen gaineko informazioa jasotzea
- Ministroen kontseiluko saioen presidentzia, presidenteak hala eskatuta.

Bere diskurtso politikoak arautu gabe daude (esaterako, gabonetako diskurtsoa), baina ez daude berrespena behar duten ekintzen artean. Zinez polemikoa izan zen, esaterako, Kataluniako urriaren 1eko erreferendumaren ostean eman zuen diskurtsoa, askoren iritzian,

bere posizio instituzionala (neutralitatea) guztiz galdu zuelako, bataila politiko baten erdian parte baten alde eginez.

5.2. Botere legegileari dagokionez

Erregeari legeen berronespena (sanción) eta aldarrikapena (promulgación) egitea dagokio. Ez dira ekintza askeak, zeintzuen gainean Erregeak askatasuna duen, ekintza arautuak baizik. Erregea derrigortua dago eta 15 egunetako epean egin behar du (62 art). Ikus ditzagun bata eta bestea:

- Berronespena: Legean sinatzea da, bere zigilua jarri. Monarkia parlamentarioetan Erregea eta Parlamentuaren arteko ko-subiranotasunaren lorratza baino ez da. Esan bezala, beharrezko ekintza da, zeinaren gainean erregeak ez duen erabakimenik. Aldiz, sistema presidentzialistetan bi botereen bereizketa zorrotzaren isla da, eta horren arabera Presidenteak legea betatu dezake (beto debolutiboa edo beto suspentsiboa ezarriz).
- Aldarrikapena: Araua perfekzionatu dela eta obeditu behar dela adierazteko ekintza da. Modu honetan, onartutako legea autentifikatu egiten da eta ordenamendu juridikora inkorporatu egiten da. Berez ekintza deklaratihoa da, zeinaren arabera formalki adierazten den lege bat onartu dela eta herritarrek eta botereek bete behar dutela. Horretarako, gainera, formula zehatza dago:

“D. Juan Carlos I Rey de España, A todos los que la presente vieren y entendieren. Sabed: Que las Cortes Generales han aprobado y Yo, vengo en sancionar la siguiente Ley”. Legearen bukaeran, honakoa gehitzen da: “Por tanto, Mando a todos los españoles, particulares y autoridades, que guarden y hagan guardar la presente Ley”.

Horrekin batera, legeen publikazioa agintzen du (dakigunez, legeek ez dute jadanekotasunik publikatuak diren arte). Gainera, Gorteak deitu eta disolbatzea ere badago bere funtzioen artean, baina berez erabaki politiko aurretiko bat formalizatu besterik ez du egiten, Konstituzioaren 99 artikulua gobernuko presidenteari eskuetan uzten duena. Hauteskundeak eta erreferendumak ere berak deitzen ditu, formalki soilik, materialki, erabakia beste batena delako (Gobernuarena).

5.3. Botere judizialari dagokionez

Konstituzioaren 117 artikulua araberan “Justizia herriarengandik dator, eta Botere Judiziala eratze duten epaile eta magistratuek administratzen dute, *Erregearen izenean*”. Honen aurrean, beste behin, esan egin behar da formula historiko baten aurrean gaudela, Erregeak ez baitu inolako eskumen errealik. Sinbolikoki, ikasturte judizialaren hasiera ekitaldian presente dago.

62.i artikulua araberan “gaziako eskubidea baliatzea” dagokio, “legearekin ados”. Berez, funtzio hau ere Ministroen kontseiluari dagokio.

5.4. Bestelako funtzioak

Konstituzioaren 65.2 artikuluan zehazten dira Erregeak askatasunez egiten ahal dituen ekintzak, hirugarren pertsoneri eragiten ez dietenak. Zeintzuk dira? Bada, Errege Etxearen kudeaketa zehatzarekin zerikusia dutenak. Izendapenak, asignazioak...

7.GAIA: Espainiar estatuko parlamentua: Gorte Nagusiak

1-. Gorte nagusien posizio konstituzionala

1.1.Gorte Nagusiak gobernu sistema parlamentarioan

1.2. Gorte Nagusien osaketa eta hautaketa

1.3. Autonomia parlamentarioa

2. Parlamentuaren erregelamendua(k)

3. Subjektu parlamentarioak: legebiltzarkideak eta legebiltzar taldeak

3.1. Legebiltzarkideak eta beraien estatutu juridikoa

3.1.1. Hautapen baldintzak eta bateraezintasunak:

3.1.2. Parlamentari karguaren hartzea, suspentsioa eta galera

3.1.3. Parlamentarien eskubide eta betebeharrak

3.1.4. Parlamentarien prerrogatibak (zuzenbideak ematen dioen babes parlamentariari)

3.2. Legebiltzar taldeak (edo talde parlamentarioak)

4.1. Gorteetako Gobernu Organoak

4.1.1. Presidentzia

4.1.2. Mahaia

4.1.3. Bozeramaileen batzordea

4.2. Funtzionamendu eta deliberazio organoak

4.2.1. Osoko bilkura

4.2.2) Batzordeak

4.3. Jarraikotasun organoak: Diputazio iraunkorrak

5. Gorte Nagusien funtzioak

5.1. Funtzio legegilea

5.2. Aurrekontu funtzioa (EK 134 art.)

5.3. Kontrola, fiskalizazioa eta erantzukizun politikoaren exigentzia

5.4. Bestelako funtzioak

1-. Gorte nagusien posizio konstituzionala

1.1.Gorte Nagusiak gobernu sistema parlamentarioan

Parlamentuak instituzio zentrala dira egungo sistema politikoetan, izan ere, ordezkaritza politikorako instituzio nagusia dira. Espainiar Estatuari dagokionez, Konstituzioak parlamentu bikamerala ezarri egiten du, Diputatuen Kongresuak eta Senatuak osatzen dutena. Bien batura “Gorte Orokorrak” bezala ezagutzen da (EK 61 art). Gorte Orokorrak dira herriarekin lotura berehalakoa eta zuzena duten botere bakarra (zilegitasun demokratikoaren ikuspegitik).

Juridikoki eta politikoki, Espainiar Estatuaren “zentrua” direla dio Pérez Royok. Politikoki, Gobernu hautatzen dutelako; juridikoki, legegintzaren monopolioa haien eskuetan dagoelako.

Hori esanik, Espainiar Konstituzioan bikameralismoa ez dago orekatua. Kongresuaren aldekoa eta senatuaren aurkakoa da, modu nabarmenean gainera. Adibideak asko dira. Ikusi besterik ez dago Gobernu Presidentearen inbestidurarekin gertatzen dena: Kongresuan egiten da soilik. Eta lege proiektuekin ere antzeko gertatzen da: lege proiektuak Kongresuan hasten dira. Senatuak soilik Kongresuak egindakoa berretsi dezake, emendakinak egin (baina Kongresuak onartu beharrekoak) edo betoa jarri (baina kongresuak altxa dezakeena). Zentsura eta konfiantza mozioetan ere berdin-berdin, inbestiduran bezala, senatuak ez du parte-hartzen. Bukatzeko, erreferendum kontsultiboen kasuan, baimentzea Kongresuari dagokio (EK 92 art).

Kasu bakarrean da espainiar bikameralismoa ordekatua: erreforma agrabatuaren kasuan (Konstituzioarne 168 artikuluko “berrikuspen orokorraren” kasuan. Hor bai, bikameralismoa perfektoa da, Kongresuaren eta Senatuaren 3/5ak exijituz Konstituzio erreforma aurrera ateratzeko.

1.2. Gorte Nagusien osaketa eta hautaketa

Espainiar konstituzionalismoan gorteen egitura bikamerala eduki dute gehienetan, 1812koan eta 1931koan salbu. Konstituzioaren arabera instituzio iraunkorrak dira eta agintaldi tenporala dute, “modu askean hautatuak baitira aldizkako hauteskundeetan”, lau urtetarako (EK 23.1). Printzipioz, eta honezkero badakigunez, hautesle eta hautagai dira beren eskubide politiko osoak erabil ditzaketen espainiar herritarrak

Kongresuaren osaketa eta hautaketari dagokionez:

- Konstituzioak dio 300 eta 400 kide artean izango dituela. HEOLOk 350etan finkatu zituen.
- Probintziak dira barrutiak eta proportzionalki hautatuak dira, Ceuta eta Melillaren kasuan izan ezik, diputatu bana hautatzen dutenak.
- Probintzia bakoitzak 2 hautatzen ditu + populazioaren arabekoak. (HEOLO 162 art.).
- Eserlekuak banatzeko: D’Ont sistema eta %3ko gutxienekoa.
- Barrutiak hain txikiak direnez sistema proportzionala beharrean maioritario bilakatzen da probintzia batzuetan (argi ikusten da sistema bipartidista bat martxan jartzea zela helburua).

Senatuaren osaketa eta hautaketari dagokionez:

- Gaur egun 266 senatari daude, bi modutan hautatzen direnak: barrutietan eta parlamentu autonomiekoetan.
- Barrutien kasuan: probintzia bakoitzak 4 senatari hautatzen ditu (3 markatu daitezke bozka paperean); Irla handiek 3na (Tenerife, Gran Kanaria eta Mallorca; 2 markatuz) eta bana txikiak (batzuk batu behar). Era berean Ceuta eta Melillak 2na senatari hautatzen dituzte.
- Parlamentu autonomikoen kasuan: senatari bat + beste senatari bat autonomia horrek duen milioi biztanleko.
- Eserlekuak banatzeko: sistema maioritarioa erabiltzen da, zerrenda irekietan, gutxiengoaren ordezkariak bermatuz (3+1).

1.3. Autonomia parlamentarioa

Zer da? Legebiltzarrak duen ahalmena bere burua arautu eta kudeatzeko, betiere bere helburu/funtzioak betetze aldera. Horregatik, Konstituzioaren 72 artikuluan oinarrituz, ganberak beren erregelamenduak onartzen dituzte, beren aurrekontuak onartu, eta adostasunean, Gorte orokorretako pertsonalaren estatutua arautzen dute.

Historikoki prerrogatiba bat izan da, exekutiboaren aurrean eta baita botere judizialaren aurrean ere, Parlamentuaren funtzionamendu askea bermatzeko, bestelako botereen kanpo injerentziarik gabe.

Hortaz, autonomiaren arabera:

- Beren funtzionamendu erregelamenduak onartzen dituzte.
- Beren presidentiak eta mahaiak hautatu.
- Aurrekontu propioa dute.

2. Parlamentuaren erregelamendua(k)

Erregelamendu parlamentarioak Kongresuaren eta Senatuaren funtzionamendurako arauak dira, beren interprete gorenak Ganbera bakoitzeko Presidentea delarik.

Lege proposamen bezala tramitatzen dira, eta beraz, gobernuak ez du parte hartzerik beraien elaborazioan. Behin tramitera onartuta, ondoren, ohiko prozedura legegilea jarraitzen da beraien onarpenerako, gehiago absolutuz onartu behar badira ere, proiektuaren osotasunaren gainean egindako bozketan.

Helburu argia dute: ganbera bakoitzaren auto-antolakuntzari bide ematea, autonomia parlamentarioa oinarri.

Edukiari dagokionez, zer arautzen dute? Kongresuaren zein senatuaren antolakuntza eta funtzionatzeko modua; bertako kideen estatutua; prozedura legegilearen nondik norakoak; nazioarteko tratatuen baimentzea; aurrekontuen onespena; Konstituzio erreforma eta gobernuaren kontrol prozedurak.

Auzitegi Konstituzionalaren arabera lege mailako arauak dira. Horrek esan nahi du "erregelamendu" izena badaramate ere, lege ikuspegitik izaera berezia dutela, ez baikaude legez azpiko arauen aurrean. Gainera, konstituzionaltasun blokearen parte diren neurrian, konstituzionaltasun kontrola egiteko ere funtsezko elementu dira.

3. Subjektu parlamentarioak: legebiltzarkideak eta legebiltzar taldeak

3.1. Legebiltzarkideak eta beraien estatutu juridikoa

Zertaz ari gara parlamentarien estatutu juridikoaz ari garenean? Funtsean, parlamentarien eskubideak, prerrogatibak eta betebeharrak biltzen dituen araudiaz. Hor barruan sar ditzakegu hautapen baldintza eta bateraezintasunak; kargu hartzea, suspentsioa eta galera; eskubide eta betebeharrak; eta prerrogatibak.

3.1.1. Hautapen baldintzak eta bateraezintasunak:

Ezer baino lehen: hautapen baldintzak dira hauteskunderen aurretik hautagai batek izan ditzakeen baldintza eta mugak; bateraezintasunez ari garelarik, behin hauteskundeak pasata, hautatua izan denak kargu hartzeko izan ditzakeen mugez ari gara.

Behin hori argituta, Espainiar Estatuan hautagai izan daitezke horretarako debekurik ez duten herritar espainolak, adinez nagusi direnak (LOREG 6 art). Nortzuk ez daitezke izan? Errege familiako kideak, AKko epaileak, Arartekoa, epaile eta fiskalak (aktiboan badaude), militarrek eta poliziak, hauteskunde batzordeko kideak... edota sententzia judizial irmo batean zigor hori dutenak (hautatu ezinak edo "inelegibles"). Baita ere atzerriko Estatu batean kargu bat dutenak, Erkidego autonomoetako gobernuetako kideak... dena HEOLoren 154 artikuluan zehazten da.

Inkonpatibilitate edo bateraezintasunei dagokionez, agertzen direnean kargu bat ala besteren artean hautatu beharko da. Hautatuak ez badu hautaketa egiten, eserlekuari uko egiten diola aurreikusten da. Zein kasuetan ematen dira bateraezintasunak? Aurreko berdinak dira + 2 kasu (EK 67): batetik, ezin da parlamentari autonomiko eta diputatu izan; eta bestetik, ezin da une berean Kongresuko eta Senatuko kide izan.

3.1.2. Parlamentari karguaren hartzea, suspentsioa eta galera

- Kargu hartzea: Kredentziala (hauteskunde administrazioak emana); bere aktibitate eta ondasunen aurkezpena; Konstituzioaren zin egitea.
- Karguaren galera: hautaketa bertan behera uzten duen epai irmoa; kargu publikorako inhabilitazio zigorra; heriotza; inkapazitazioa (epai judizial bidez); agintaldiaren amaiera; karguari uko egitea (dimisioa).
- Suspentsioa: adibidez, behin behineko espetxealdi kasuan edota inhabilitazio zigorra bere agintaldia baino laburragoa den kasuetan.

3.1.3. Parlamentarien eskubide eta betebeharrak

- Eskubideak: soldata, pleno eta batzordeetara joatea, informazioa izan eta eskatzea.
- Betebeharrak: pleno eta batzordeetara joatea; ordena, kortesia eta diziplina parlamentarioa gordetzea; harreman ekonomikoetan bere parlamentari izaeraren berri ez ematea.

3.1.4. Parlamentarien prerrogatibak (zuzenbideak ematen dioen babes parlamentariari)

Prerrogatibez ari garelarik, eskubide “gehiago” izateaz ari gara. Parlamentarietiek herritarrek ez dituzten eskubide “propio” batzuk dituzte, Parlamentuaren independentzia eta askatasunaren berme direnak. Funtsean hiru dira: bortxaezintasuna, immunitatea eta foru berezia.

- Bortxaezintasuna: ez dira beren funtzioen betetzean ematen dituzten iritzien arduradun juridikoak. Ezin dira beren lan parlamentarioan egin dutenagatik judizialki jazarriak izan (Adibidea: Salaberria kasua). Esan beharra dago Konstituzio Auzitegiak modu murriztailean interpretatu duela bortxaezintasuna, soilik ekintza parlamentarioetara hedatzen dela finkatuz. Pérez Royo, besteen artean, ez dago ados, ekintza politiko guztietara zabaldu beharko litzatekeela uste duelako. Babestuta dauzkate, gorroto delituak. Adibidez, “Putos Negros”.
- Immunitatea: parlamentariak soilik atxilotuak izan daitezke berehalako delitu baten aurrean (gaztelaniaz, delito flagrante). Eta gainera, inkulpatuak eta prozesatuak izateko ganberen baimena behar da (suplikatorio bezala ezagutzen dena). Soilik eremu penalean babesten du (ikusitu genuenez, Erregearen kasuan eremu zibilera ere zabaltzen zen). Tribunalek suplikatorioa egin behar dute eta 60 egunetan erantzunik ez badago, ukatua izan dela ulertuko da.
- Foru berezia (aforamendua): diputatu eta senatarien aurkako prozesuetan Auzitegi Goreneko Penaleko Sala izango da auzitegi eskuduna, epaile “naturalaren” arau orokorra baztertu egiten delarik. Zein da elementu eztabaidagarriena? Bada, azkenean, Botere Judizialaren Kontseilu Gorenaren bidez alderdi nagusiak direla goi auzitegi-tako magistratuak izendatzen dituztenak, Auzitegi Gorenekoak barne. Horiek izango badira parlamentarien ustelkeria kasuak epaituko dituztenak... ze berme dago epaiketa independente eta justu bat egon dadin?

Eztabaidarako: prerrogatibak pribilegioak dira? Zentzua badute gaur egun? Pérez Royoren iritziz ez dira pribilegio pertsonalak, berme funtzionalak baizik, ez dutenak parlamentaria babesten bere horretan, funtzio parlamentaria baizik.

3.2. Legebiltzar taldeak (edo talde parlamentarioak)

Definizioz, legebiltzar taldeak ganbera bateko kideen talde-batasuna dira, beren alderdi politikoaren borondatea adierazten dutenak. Horretarako antolaketa eta diziplina iraunkor batekin funtzionatzen dute (horretan “talde mistoa” delakoa salbuespena delarik). Azken batean, alderdi politikoek ganbera barruan duten presentziaren isla dira.

- Talde parlamentario bat osatzeko: Kongresuan, printzipioz, 15 kide behar dira, baina onartu egiten da 5 diputaturekin taldea osatzea Estatuko osoan bozen %5a jaso bada edo alderdia aurkeztu den barruti(et)an bozen %15a jaso bada. Senatuan, berriz, 10 senatari behar dira.

Hori esanik, praktika parlamentarioan ohikoa izan da parlamentariak maileguan uztea edota baita bozkak ere, legeak exijitutako portzentaletara heldu ahal izateko. Bestela, inora batu ez diren parlamentariak talde mistora pasatzen dira.

- Talde parlamentario baten amaierari dagokionez (gaztelaniaz, extinción del grupo parlamentario) hainbat arrazoi dela eta eman daiteke. Esaterako: taldearen beraren erabakiz; taldea murriztu delako diputatu edo senatari batzuek utzi dutela eta (Senatuan 6 senatari behar dira gutxienez taldea mantentzeko, kongresuan erdia; erdia baino gutxiago badira desegin egiten da); erabaki judizial baten bidez (Batasuna alderdi politikoaren ilegalizazioaren kasua).

- Egiturari dagokionez: nabarmentzekoak dira bozeramailea; presidentea (ordezkari gorena); idazkari orokorra (koordinatzailea); batzordeetako arduradunak...

Funtzioei dagokionez, lau nabarmenduko ditugu:

- Izendapenak: batzordeetako kideak eta diputazio iraunkorrekoak.
- Ganberako zuzendaritza organoetan presentzia.
- Legegintzan:
 - Osoko emendakinak haiek bakarrik aurkez ditzakete.
 - Ekimen legegileari dagokionez, 15 diputatu edo talde parlamentario bat behar da lege proposamen bat aurkezteko.
 - Gobernuarekiko kontrola

4. Gorte Nagusien funtzionamendua eta antolaketa

4.1. Gorteetako Gobernu Organoak

4.1.1. Presidentzia

Ganbera bakoitzeko autoritate gorena da, bai Kongresuak eta bai Senatuak bakoitzak autonomoki hautatzen dutena. Gehiengo absolutua behar da lehen itzulian hautatua izateko, eta bestela, bigarren itzulian aski izango da gehiengo simple batekin (bi bozkatuenak pasatzen dira bigarren itzulira).

Eskumenei dagokionez, presidenteari dagozkio: Estatuko gainontzeko organoekin harremanak; Ganberaren pribilegioen defentsa: autonomia...; lan parlamentarioen zuzendaritza (prestaketa -gai ordena- eta eztabaiden zuzendaritza); ganbera barruko diziplina finkatzen du; **Erregelamendua aplikatu eta interpretatzen du.** → Batzuetan interpretazioareko ahaleman eskaitzen dute hainbat legeek, hori horrela, presidentearen ikuspuntua bertan txertatzeko aukera ematen da.

4.1.2. Mahaia

Ganbera bakoitzaren organo errektorea kontsideratzen da eta bere ordezkartza kolegiatua da, ordezkartza indibiduala presidentearen esku geratzen delarik. Presidentearen kasuan bezala, Ganbera bakoitzak autonomoki hautatzen du bere Mahaia. Kongresuaren kasuan lehendakari bat, lau lehendakari ordeak eta lau bokalek osatzen dutena; eta Senatuaren kasuan Lehendakari bat, bi lehendakari ordeak eta lau bokal.

Hautatzeko, lehendakaria lehenik, lehendakari ordeak gero eta bokalak azkenik hautatzen dira, bozka paperean soilik izen bat sartzen delarik bozketan aldi bakoitzeko. Horrela, normalena da talde parlamentarioek ordezkartza izatea (Normalean adostasun politikoak daude baina egia da azken urteetan oso polemikoa izaten ari dela).

Eskuduntzei dagokionez, zer dagokio Mahaiari?

- Ekimenen kalifikazioa: ikuskatzen dute ia ekimen batek baldintzak betetzen dituen eta zein prozedura jarraituko den finkatu egiten dute. Izan galdera parlamentarioak, interpelazioak, mozioak, proposamen legegileak... organo honek onartzen ditu tramitera.

- Lan parlamentarioen zuzendaritza: gai ezberdinen programazioa eta banaketa bere esku geratzen da. Egutegia finkatzen du, bozemaileen batzordea entzunda.
- Ganbera bakoitzaren barne-gobernua eta administrazioa dagokio, eta baita, horren barruan, aurrekontuaren elaborazioa eta exekuzioa ere.
- Ahalmen diziplinarioak. Zigorrek hizpatzea (estipular) edota osoko bilkurari proposatzea.

4.1.3. Bozemaileen batzordea

Dimensio instituzionala eta politikoa nahasten dituen organoa da. Talde parlamentarioek ganberako funtzioen prestaketa eta koordinazio lanean duten parte-hartze organoa da. Ganberako Lehendakariak eta talde parlamentarioen bozemaileek parte-hartzen dute (kide batek lagun baditzake ere, bozkarik gabe).

Elementu garrantzitsu bat: bozka ponderatua da. Alegia, alderdiaren indarraren erakusgarri da ordezkari bakoitzaren pisua bozemaileen batzordean.

Nagusiki, hiru funtzio betetzen ditu:

- Gobernu organoak talde parlamentarioekin harremanetan jarri.
- Talde parlamentarioen arteko adostasunak erraztu.
- Lehen aurre-topatze (gaztelaniaz, encuentro preliminar) bat ematen da gobernuaren eta oposizioaren artean.
- Lan parlamentarioaren programazioan parte hartzen du (gai ordena).

Orokorrean bere eskuduntzak kontsultiboak dira eta astean behin biltzen da. Halere, Pérez Royok dio *de facto* Gorte Orokorren zuzendaritza *politikoa* direla.

4.2. Funtzionamendu eta deliberazio organoak

4.2.1. Osoko bilkura

Ganbera osatzen duten kide guztien bilkura da (ez konfunditu instituzio osoarekin) eta baita funtzio parlamentario nagusien jabea ere. Presidenteak konbokatu eta presiditzen du. Konstituzioaren 79.1 artikulua araberak, ongi bilduta egoteko, gutxienez kideen erdiak gehi batek egon behar dute (gaztelaniaz, quorum de presencia).

4.2.2) Batzordeak

Organo kolegiatu bat dira, parlamentari gutxi batzuek osatzen dutena, eta osoko bilkuran ondoren tratatuko diren gaiak prestatzen dituztena. Batzuetan, gainera, osoko bilkura ordezkari dezake, legeak onartuz edo gobernuaren kontrola eginez. Batzorde bakoitzak bere mahai propioa dauka, lehendakari batekin, bi lehendakari orde eta bi idazkarirekin.

Hortik aurrera, mota ezberdinetako batzordeak topa ditzakegu:

- Batzorde iraunkor legegileak: Lege proiektu eta proposamenak aztertzen dituzte. Gainera, delegazio legegilea izaten ahal dute haien alde.
- Iraunkor ez legegileak: Parlamentarien estatutua, bateraezintasunak, suplikatorioak, izendapenak...
- Beste batzuk: Bi ganberen batzorde mistoa; ikasketa eta ikerketarako batzordeak...

4.3. Jarraikortasun organoak: Diputazio iraunkorrak

Diputazio iraunkorrak Parlamentuaren iraunkortasuna bermatzeko daude; hau da, ganbera legegileek funtzionatzen ez duten uneetan funtzionatzen dute. 21 kidek osatzen dituzte (proportzionalki hautatuak) eta nagusiki, hiru momentutan biltzen dira:

- Legegintzaldia bukatu denean (4 urteak pasa direnean)
- Ganberak disolbatuak izan direnean
- Bi saio-aldien artean, oporraldi parlamentarioa dagoenean (urtero bi saio-aldi daude: iraila-abendua eta otsaila-ekaina).

Funtzioei dagokienez:

- Opor garaian: ganberaren botereak mantendu eta ez ohiko bilkurak deitu ditzakete.
- Disoluzioaren aurrean. Kongresuaren kasuan: lege-dekretuak konbalidatu eta salbuespen egoeretan interbenitu dezake.

5. Gorte Nagusien funtzioak

Hauek dira Gorte orokorren funtzio nagusiak:

5.1. Funtzio legegilea

Funtzio legegilea bere funtzio nagusia da, eta hala izan da historikoki ere. Funtzio legegilearen barruan hainbat fase ezberdindu daitezke:

- Ekimena (EK 87 art.): Gobernuarena bada lege proiektu baten aurrean egongo gara; aldiz, ekimena parlamentutik bertatik abiatzen bada, lege proposamen baten aurrean egongo gara, zeinetarako 15 diputatu, 25 senatari edota talde parlamentario baten babes behar den.

Autonomiek ere badute ekimena abiatzeko ahalmena. Horrela, parlamentu autonomikoek gobernuari lege proiektua eskatzen ahal diote, edo zuzenean lege proposamena Estatuko parlamentura bidali. Benetan, ekimen proposamena da. Lehenengo kasuan gobernuak ez dago aintzat hartzerik beharirik, baina bigarrenaren kasuan, osoko bilkurak aintzat hartu behar du.

Aurrekoekin batera, herri ekimen legegilea ere existitu egiten da, zeinetarako 500.000 sinadura behar baitiren.

- Tramitazioa: Lehenik eta behin, Mahaiak lege testua jaso eta kalifikatu egiten du. Ondoren dator aintzat hartzea eta, hala badagokio, emendakin epearen irekitzea (lege proiektuen kasuan osoko emendakinak lehenbizi). Ekimena aurrera joatea erabakitzen bada, batzordera bidaltzen da. Batzordeak ponentzia (batzordean dagoen talde txiki bat, informeak edo txostenak egin ditzaten) bat antolatzen du *informe* edo txosten bat egin dezan. Behin informe hori batzordean eztabaidatu ondotik, *diktamen* bat egiten da. Eta horrela osoko bilkurara bidaltzen da. Osoko bilkuran onartzen bada, testua Senatura bidali egiten da, eta bertan hiru gauza gerta daitezke:

- Aldaketarik txertatu gabe Senatuak testua onartzea.
- Senatuak betoa ezartzea, baina Kongresuak altxa dezakeena.
- Senatuak emendakinak txertatzea. Kasu honetan testua Kongresura itzultzen da eta honek onar ditzake ala ez.
- Konklusio/amaiera fasea.

Erregeak testua berronetsi eta aldarrikatu behar du, eta ondoren Estatuko Agerkari Ofizialean publikatu dadila agindu.

5.2. Aurrekontu funtzioa (EK 134 art.)

Jakina denez, urtero Gobernuak aurrekontu orokorrak prestatu egiten ditu eta ondoren lege proiektu bezala onartu, Kongresura bidaltzeko (beranduenez urriaren 1ean aurkeztu behar du proiektua Gobernuak, ze atzeratu egiten bada, Parlamentua ere atzeratu daiteke, eta ez dira urte amaierarako onartuko). Gorteei dagokie proiektua aztertu, emendakinak aurkeztu eta aurrekontuak onartzea, zeinetarako prozedura legegile arrunta erabiltzen baiten.

Gastu publikoaren igoera suposatzen duten emendakinek, sekzio berean beherapen berdina proposatu beharko dute, eta gobernuaren onespena beharko dute.

Aurrekontu berririk ez badago epean, zaharrak luzatzen dira, berriak onartzen ez diren artean. Eta bukatzeko, aurrekontu legeak ezin ditu zergak sortu.

5.3. Kontrola, fiskalizazioa eta erantzukizun politikoaren exigentzia

Gorte Orokorren hirugarren funtzio klasikoa kontrola da, kontrol politikoa. Bi motatakoa izan daiteke:

- Ohikoa: gobernuaren eguneroko lana fiskalizatzen duena. Gobernuaren kontrol saioak astero ospatzen dira, astearte arratsaldetan Senatuan eta asteazken goizetan Kongresuan.
- Ez ohikoa: erantzukizun politikoa exijitzen duena, alegia, gobernuaren erorketa ala berrespena bilatzen duena, izan zentsura mozioaren bidez nola konfiantza kuestioaren bidez.

5.4. Bestelako funtzioak

Bestelako funtzioen artean aipagarrienak izan daitezke:

- Konstituzio Auzitegiko eta Botere Judizialaren Kontseilu Orokorreko kideen izendapena.
- Arartekoaren hautaketa. (Defensor del pueblo)
- Konstituzio kontrakotasun helegitea jartzea (50 diputatuk edo senatarik).

8. GAIA: Gobernua eta administrazioa

1-. Gobernua eta gobernu sistema parlamentarioa

2-. Gobernuaren osaketa

2.1) Presidentearen inbestidura

2.2) Gobernuaren osaketa eta izendapena

3. Gobernu kideak

3.1. Organo kolegiatuak

3.1.1. Ministroen kontseilua

3.1.2) Batzorde delegatuak

3.1.3. Kolaborazio eta laguntza organoak

3.2. Organo unipertsonalak

3.2.1. Gobernu presidentea

3.2.2. Presidenteordeak

3.2.3. Ministroak

3.2.4. Legeak ezarritako beste kideak. Estatu idazkariak

4. Gobernu kideen estatua

5.- Gobernuaren funtzioak

5.1. Zuzendaritza politikoa

5.2. Barne politikaren zuzendaritza funtzioa

5.3. Kanpo politikaren zuzendaritza funtzioa

5.4. Administrazio zibil eta militarren zuzendaritza eta Estatuaren defentsa

5.5. Funtzio betearazlea eta reglamentarioa

6. Gobernuaren agintaldiaren amaitzea eta jarduneko gobernuaren jarraipena.

7. Estatu kontseilua, gobernuaren kontsulta-organoa.

8. Administrazio publikoa

1-. Gobernua eta gobernu sistema parlamentarioa

Dakigunez, gobernu sistema parlamentarioetan Parlamentuak dauka gobernua (gobernu presidentea) hautatzeko ahalmena, inbestidura prozesuaren bidez. Espainiar Estatuan, Konstituzioaren 99. Artikuluan arautzen da prozesu hori.

Inbestidurak eta gobernu osaketak hauteskundeetan agertutako borondate orokorra gobernu programa bilakatzen dute, zeinaren zuzendaritza presidentean pertsonalizatzen baiten. Gobernuak, azken batean, hauteskundeak irabazi dituen gehiengo soziala ordezkatzeko du.

Botere betearazlearen jabe bada ere, Gobernuak, berez, ez du soilik funtzio betearazlea betetzen (legeak aplikatu); herrialdearen zuzendaritza politikoa egitea ere berari dagokio, neurri ezberdinetan islatzen dena: aurrekontuak egin, lege egitasmoak bideratu... Konstituzioaren 97. artikuluan arabera barne eta kanpo politika zuzentzen ditu, baita administrazio zibil eta militarra eta Estatuaren defentsa ere.

Historikoki organo homogeen eta kolegiatuak izan da, baina horrek ez du eragozten koalizio gobernuen existentzia (egun dagoenaren modukoa).

Bere ekinbidea finkatzen duten printzipioak honakoak dira:

- Kolegialitate printzipioa: akordioak kolektiboki deliberatu eta hartzen ditu. Osozotasun bat bezala hartzen ditu erabakiak, ez zatika.
- Lehendakariaren nagusitasunaren printzipioa: gobernuaren bizitza eta ekinbide oro presidenteari bueltan ematen da. Beste herrialde batzuetan, lehendakariak ez dauka hainbesteko indarra. Espainiar estatuan aldiz, oso garrantzitsua da.
- Printzipio departamentala: kolegiatuak izatea eta lehendakariaren nagusitasunari kalte egin gabe, ministroek beren departamentuaren eskuduntza propioa bereganatzen dute. Ministeritza bakoitzaren goiko erpinean ministroa kokatzen da, bere ardura da ministeritza aurrera eramatea, nahiz eta, erabakiak kolektiboki hartzen diren.
- Legalitate printzipioa: konstituzioaren eta legeen arabera funtzionatu behar du. Gobernua egiten duenaren arduradun politiko eta juridikoa da.

2-. Gobernuaren osaketa

Gobernuaren osaketari dagokionez, Gobernuaren izendapena (99 art.) eta Ministroena (100 art.) ezberdindu behar dira.

2.1) Presidentearen inbestidura

Noiz aplikatzen da?

1. Kongresua berriro denean
2. Heriotza kasuan
3. Dimisioa edo uko boluntarioa eman denean
4. Konfiantza kuestioa galduta, behartutako dimisioa ematen denean (114 CE).

Zein da prozedura?

Erregeak kontsulta protokolariorak egiten ditu alderdiekin eta, Kongresuko Presidentearen berrespenaz hautagai bat proposatzen du inbestidurarako. Plenoaren aurrean hautagaiak programa politikoa aurkezten du, eta ganberaren konfiantza eskatu. Ondoren, legebiltzar taldeek beren interbentzioak egiten dituzte, hautagaiak erreplikarako aukera duelarik, eta behin eztabaida amaituta bozketa egiten da.

Nolakoa da bozketa?

Lehen itzulian gehiengo absolutua exijitzen da, bigarrenean berriz erlatiboa. Ez bada gehiengorik lortzen, berriz ere zirkuito bera errepikatu beharko da eta lehen bozketatik 2 hilabete pasatakoan hautagairik hautatua izan ez bada, Erregeak gorteak disolbatu eta hauteskunde berriak deituko ditu, Konstituzioak hala aginduta.

2.2) Gobernuaren osaketa eta izendapena

Behin presidentea izendatu delarik, Gobernuko gainerako kideen izendapena berari dagokio. Bere nagusitasun posizioaz baliatuz berak egiten ditu ministroen izendapenak, askatasunez. Formalki, beste hainbatetan bezala, Erregeari dagokio Ministroak izendatzea, baina materialki erabakia ez da berea, Gobernu presidentearena baizik.

Argi izan beharreko kontu bat: Kongresuak ez du ministroen izendapen hauetan interbenitzen. Presidenteak erabateko askatasuna du.

Gobernuaren osaketari dagokionez: Konstituzioaren 98. artikuluan esaten da Presidenteak, Ministroak eta, hala badagokio, presidenteordeek osatuko dutela Gobernuak.

3. Gobernu kideak

3.1. Organo kolegiatuak

Gobernuko kideak Ministroen Kontseiluan eta gobernuaren batzorde delegatuetan biltzen dira (GL 1.3).

3.1.1. Ministroen kontseilua

Normalean Gobernuarekin identifikatzen da, gobernuaren adierazpen kolegiatua baita. Bere funtzio nagusia, Gobernuaren erabaki politikoak juridikoki formalizatzea da (soilik presidenteari ez dagozkion kasuetan).

Zeintzuk dira bere ahalmenak?

- Araudiari dagokionez: lege proiektuak, aurrekontu proiektua, lege-dekretuak, dekretu legegileak, nazioarteko tratatuen negoziaketa eta sinadura edota erregelamenduak onartzea dagokio.
- Ekintza administratiboei dagokionez: zor publikoaren emisioa, departamenduaren zuzendaritza organoen aldaketa, estatu idazkarien izendapena...
- Alarma eta salbuespen egoerak aldarrika ditzake, eta setio egoera (zuzenbidean dagoen egoerari larriena) Kongresuari proposatu.

Elementu garrantzitsu bezala: bere deliberazioak sekretuak dira.

3.1.2 Batzorde delegatuak

Ministroen Kontseiluan sortu, aldatu edota deuseztatuak izan daitezke, presidentearen proposamenaz. Arazo orokorrak tratatzen dituzte, zenbait ministerioekin zerikusia dutenak. Ezagunena Gai Ekonomikoen Batzorde Delegatua da, baina egun, beste batzuk daude: Segurtasun nazionala, inteligentzia, erronka demografikoa, 2030 agenda eta politika zientifiko zein teknologikoa.

3.1.3. Kolaborazio eta laguntza organoak

- Estatu idazkari eta idazkariordeen batzorde orokorra: presidenteordeak edota presidentzia ministroak presiditzen du.
- Ministro kontseiluen saioak prestatzen dituzte. Prezeptiboak dira. Kontseilua tratatuko diren gai guztiak aurrez hortik pasa behar.
- Gobernuaren idazkaritza (secretariado): lanaren antolakuntza teknikoaz arduratzen dira. Deialdiak, aktak...
- Gabinetek: aholkularitza politiko eta teknikoa. Ez dira estatuko administrazioaren parte. Konfiantzazkoak dira.

3.2. Organo unipertsonalak

3.2.1. Gobernu presidentea

Gobernuaren ekimena zuzentzen du eta gobernukideen funtzioak koordinatzen ditu (EK 98.2).

Bere ahalmenak honakoak dira:

- Gobernu ekinbidearen zuzendaritza: gobernua ordezkatu, programa politikoa ezarri, irizpideak eman, defentsa zuzendu...
- Gobernukideen funtzioen koordinazioa: bilerak deitu, koordinatu eta gai-ordena finkatu; Ministerioak sortu, aldatu edo ezabatu; Irizpideak eman; Gatazkak konpondu...
- Bere funtzio propioak, bereak direnak soilik: erreferendum kontsultiboaren proposamena, erregearen ekintzen berrespena, konstituzio kontraktotasun helegitea jarri...
- Gobernabilitate krisi garaietan: gorteen disoluzioa proposatzen du eta konfiantza kuestioa planteatzen ahal dio Kongresuari.

3.2.2. Presidenteordeak

Ez dira derrigorrezkoak eta bere funtzioak presidenteak finkatzen ditu.

3.2.3. Ministroak

Gobernuaren beharrezko kideak dira eta kondizio bikoitza dute: batetik gobernukide dira eta bestetik, bakoitzaren departamendu ministerialaren buru. Alegia, organo politiko eta administratiboa dira.

Bere funtzioen artean honakoak nabarmendu daitezke:

- Beren departamenduan gobernu ekintza aurrera eramatea

- Potestate reglamentarioa erabiltzea (agindu ministerialak)
- Legeak dioenak
- Erregearen ekintzak berretsi, beren departamendukoak direnean.

Datu aipagarri moduan: nahiz eta ez den oso ohikoa, karterarik (ardurarik) gabeko ministroak egon daitezke.

3.2.4. Legeak ezarritako beste kideak. Estatu idazkariak

Ministroen ondorengoak dira dagokion ministerioaren hierarkia barruan. Ez dira berez gobernu kideak (legearen arabera). Kolaborazio organoak dira, oso kualifikatuak.

4. Gobernu kideen estatua

Gobernu Legearen II. Tituluan arautzen da eta bertan Konstituzioak dioena berretsi egiten da, gobernukide izateko baldintza, bateraezintasun eta estatutu prozesalari dagokionez.

Zeintzuk dira gobernukide izateko baldintzak (GL 11 art)? Naziotasun espainola izatea, adinez nagusia, eskubideen jabe izanik eta epai irmo bidezko inhabilitaziorik gabekoa (ohiko betekizunak dira).

Bateraezintasunei dagokionez, gobernu kideen dedikazioa eksklusiboa da. Ezin da bateratu beste ezein aktibitate profesionalekin, izan publiko zein pribatu (ordezkari politikoa ezin da izan, diputatu edo senatari izan ezik).

Estatutu prozesalari dagokionez, gobernu kideek ez dute ez immunitaterik ez eta bortxaezintasunik, eta hortaz, delitu guztien aurrean erantzun behar dute, ez bada diputatu edo senatari direlako (orduna bortxaezinak eta immuneak izango zirelako). Hori bai, forudunak dira eta soilik Auzitegi Gorenak epai ditzake.

Traizioagatik edo estatuaren segurtasunaren aurkako delituengatik epaituak izateko soilik Kongresuaren laurdenaren ekimenez eta bere gehiengo absolutuaren onespenez izan daiteke.

Bukatzeko: ezin dira indultatuak izan (102.3 CE).

5.- Gobernuaren funtzioak

Gobernuaren funtzioen artean bost ezberdinduko ditugu: zuzendaritza politikoa, barne politikaren zuzendaritza, kanpo politikaren zuzendaritza, administrazio zibil eta militarren zuzendaritza eta, bukatzeko, funtzio betearazle eta erreglamentarioa.

5.1. Zuzendaritza politikoa

Boterearen tripartizioan Gobernua botere exekutiboarekin identifikatzen bada ere, bere funtzioak ez dira soilik exekutiboak. Legeak betearazi baino askoz gehiago egiten du. Besteak beste, Estatuaren zuzendaritza politikoa aurrera darama; alegia, Estatu organoek bete beharreko helburuak finkatu egiten ditu eta horretarako bitartekoak jarri (erabakiak hartu). Egia hori, bere funtzio nagusia da, eta funtzio horretan, dakigunez, Konstituzioari eta ordenamendu juridiko osoari lotzen zaio.

5.2. Barne politikaren zuzendaritza funtzioa

Gobernuak bere programaren helburuak planifikatu eta betearazten ditu Estatu barruari begira. Zer esan nahi dugu honekin?

- Ahalmen normatiboan parte hartzen du: ekimen legegilea du, Gorteekin batera legislatzen du, erregelamendu ahalmena betetzen du...
- Politika ekonomikoa zuzentzen du: aurrekontuen elaborazioa, planifikazio ekonomikoko proiektuak...
- Organo konstituzional ezberdinekiko harremanak garatzen ditu, besteak beste: Gortetik, beren disoluzioa, hauteskundeak deia eta abar; Koroarekiko, berrespenak eta informazioa; Auzitegi Konstituzionalarekiko konstituzio kontraktasun helegiteak, legeen suspentsioak...
- Ohiz kanpoko egoeratan:
 - Alarma eta salbuespen egoerak aldarrikatzen ditu, eta setio egoera proposatu.
 - Ekimena abiatzen du Konstituzioaren 155 artikulua aplikatzeko (beren betebeharrak betetzen ez dituzten erkidego autonomoak behartu, interes orokorraren mesedetan).

5.3. Kanpo politikaren zuzendaritza funtzioa

Bi gauza aintzat hartu behar dira hemen:

Batetik, Erregeak "Estatuaren ordezkartza gorena" duela esaten den arren, bere funtzioa soilik sinbolikoa da. Kanpo politika gobernuak zuzentzen du.

Bestetik, Nazioarteko Harremanak Estatuaren eskuduntza dira (149.1.3 CE) eta beraz, Erkidego Autonomoek ezin dituzte nazioarteko harremanak garatu.

5.4. Administrazio zibil eta militarren zuzendaritza eta Estatuaren defentsa

Administrazio zibilari dagokionez:

- Antolaketa
- Goi karguen izendapena
- Poliziaren zuzendaritza
- Helegite administratiboaren erresoluzioa → Esaterako, pisu baten obra bat egiterakoan udaletxeari eskatzen diozu baimena, baina hau ukatua bada helegite administratiboa aurkezten duzu eta galddu naz.
- Gobernu delegatuaren izendapena, Erkidego Autonomo ezberdinetan Estatuko administrazioa zuzentzeko.

Administrazio militarra eta Estatuaren defentsari dagokionez:

- Gobernuari dagokio Indar Armatuaren zuzendaritza, Konstituzioak, sinbolikoki, aginte gorena Erregea dela esaten duen arren.

- Gerra deklarazioa Gobernuak egiten du, Kongresuaren baimenaz, formalki deklarazioa Erregeak egiten badu ere (Estatu buru moduan). Erregearen aldarrikapenak, edonola ere, Gobernu Presidentearen berrespena behar du.

5.5. Funtzio betearazlea eta reglamentarioa

- Funtzio betearazlea: ordenamenduaren aplikazioa (Gobernuari).
- Funtzio reglamentarioa: lege azpiko arau orokorrak emateko ahalmena.

6. Gobernuaren agintaldiaren amaitzea eta jarduneko gobernuaren jarraipena.

Gobernuaren agintaldia Konstituzioaren 101 artikuluan zehaztutako arrazoien ondorioz amai daiteke, alegia:

- Hauteskunde orokorren ondotik.
- Konfiantza parlamentarioa galdu duenean (zentsura ala konfiantza mozioaren ondorioz)
- Gobernu Presidentearen dimisioa ala heriotza eman denean.

Gobernuaren agintaldiaren amaiera Erregeak dekretatzen du presidentearen berrespenaz, salbu eta hilik badago. Kasu horretan presidente-ordeak egingo luke.

Edozein modutan, Gobernuak jardunean jarraituko du, jarduneko gobernu bezala (gaztelaniazko *Gobierno en funciones*).

Gobernu Legean esaten denez, jarduneko Gobernuak Gobernu berriaren osaketa prozesua erraztuko du, eta baita botere traspasoa ere (21.3 art.). Ondorioz, bere kudeaketa ohiko gaiei bide ematea izango da, eta ezin izango du beste motatako erabakirik hartu. Soilik urgentziazkoak direla demostratu den gaitan, eta beti ere interes orokorraren mesedetan direla akreditatzen bada, erabakiak hartzen ahalko ditu (baina salbuespena da).

Gobernu honek ez du beraz zuzendaritza politikoaren funtzioa betetzen. Ezingo du aurrekontu proiektua egin, delegazio legegilea garatu, erreferenduma antolatu, Gorteak disolbatu... Itxaron dezakeen edozein erabakik itxaron beharko du.

7. Estatu kontseilua, gobernuaren kontsulta-organoa. (ez da garrantzitsua, bakarrik azken lerroa)

Konstituzioaren 107. artikulua arabera, Estatu Kontseilua Gobernuaren kontsulta-organo goren da. Lege organiko batek bere osaketa eta eskuduntzak arautuko ditu.

Bere ezaugarriei dagokienez, autonomia organiko, funtzional eta reglamentarioa dauka eta Estatu osoan ditu eskuduntzak, AAEE batzuek beren kontsulta-organo propioak osatu badituzte ere (Nafarroan, esaterako, erro historikoak dituen Nafarroako Kontseilua). Berez, legalitatea eta interes orokorra betetzen direla bermatzeko berme bezala konfiguratutik dago.

Bere osaketa honakoa da:

- Lehendakaria. Gobernuak izendatua, izen handiko legelarien artean.

- Kontseilariak:
 - Iraunkorrek: ezin dira kanporatu izan eta beren agintaldiak ez du epemugarik. Hautatuak dira ministro, kontseilari edota letradu nagusien artean.
 - Jaiotzetikoak: gobernu presidente ohiak, Errege Akademiaren Presidentea, ...
 - Elektiboak: 4 urtetarako hautatuak direnak.

Kontseiluaren irizpenak (gaztelaniazko dictamen) ez dira lotesleak, baina kasu askotan bai nahitaezkoak (Konstituzio erreforma...).

8. Administrazio publikoa

Administrazioa komunitatearen zerbitzura dagoen antolakuntza-konplexu bat da, Gobernuak zuzentzen duena baina organikoki Gobernuarengandik bereizten dena (EK 97 art.). Ministroak dira eremuz eremu administrazioaren gailurrean kokatzen direnak, bakoitza dagokion eremuan.

Horrela, Gobernuak ekinbide politikoa zuzentzen du eta administrazioak betearazi.

Dakigunez, administrazio ezberdinak daude:

- Estatuaren administrazio orokorra. Argaltzen joan da, AAEEen mesedetan.
- Administrazio autonomikoa, urteen poderioz potolotzen joan da.
- Tokiko administrazioa: udalerrri eta probintziez osatua.
- Estatuari lotutako ente edo korporazioak: RTVE...
- Administrazio europarra (Europar dagoen administrazio espainola litzatekeena).

Funtzionamenduari dagokionez, hautaturiko karguek zuzentzen dute administrazioa (edo horiek izendatutakoek) eta funtzionarioek egiten dute lana (azken hauek berdintasun, meritu eta kapazitate printzipioetan oinarritu den prozesu baten bidez lortu duten lanpostua; ez dira libreki izendatuak izan).

Funtzionamendurako printzipio orokorrei dagokionez, honakoak dira:

- Legalitatea: ez dago legearen menpekoa ez den administrazio atalik.
- Objektibotasuna: helburu orokorren mesedetan objektibotasunez lan egiten du.
- Eraginkortasuna: helburuak bete behar ditu eta kalitatezko zerbitzua eman.
- Hierarkia: egitura piramidala dauka, gailurrean Ministroa dagoelarik.
- Deszentralizazioa: Estatua eta Erkidego Autonomoen artean. Bi administrazio ezberdinen artean ematen denean zerbitzua.
- Deskontzentrazioa: funtzioen banaketa ematen da administrazio beraren barruan. Administrazio beraren barruan lurralde sakabanaketa ematen denean.

- Koordinazioa, administrazioen artean eta barruan.
- Parte-hartzea.
 - Herritarrak entzun.
 - Informaziorako sarrera.

Bukatzeko, nola egiten da administrazioaren erabakien kontrola? Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren esku geratzen da eta indemnitazioak eska daitezke.

9. GAIA: Botere Judiziala

1.- Sarrera

2.- Botere judizialaren inguruko oinarritzko kontzeptu batzuk

3.- Botere judizialaren printzipio konstituzionalak

3.1. Zilegitasun demokratikoa eta jurisdikzio eskusibotasuna

3.2. Antolakuntza eta funtzionamendu printzipioak

4. Epailearen estatutua

5. Jurisdikzioa antolatzeko irizpideak

6) Justiziaren gobernuak: botere judizialaren kontseilu nagusia

7. Botere judizialaren batasuna eta autonomien estatuaren garapena

8. Ministerio fiskala

1.- Sarrera

Dakigunez, Montesquieuren boterearen tripartizioa oinarri, Espainiar Konstituzioak Estatuak 3 botere ezberdinetan antolatzen ditu: betearazlea, legegilea eta judiziala. Zehazki, botere judizialari VI. Titulua eskaintzen dio, antolakuntza antolakuntza konstituzional konplexu baten bidez funtzio jurisdikzionala arautuz, askotariko organo judizialak aurreikusiz.

Hori esanik, zein da botere judizialaren misioa? Nagusiki, subjektu ezberdinen arteko gatazketan aplikatuko den zuzenbidea zein den esan, erabaki eta adierazi. Bere bidez, Estatuak hirugarren arteko gatazkek edota hauek eta estatu botereen artekoak konponbidean jartzen ditu, organo batzuei horiek baketzeko funtzioa emanaz, zuzenbidea aplikatuz.

Hori egin ahal izateko epaitegiek autoritate posizioa dute, gatazkan dauden bi aldeei nagusitzen zaie hirugarren inpartzial eta independente baten posizioa hartzen dutelarik (teorian behintzat) eta prozedura arautu baten bidez beren lana garatzen dutelarik (prozesu judiziala), zeinean aldeek beren burua defendatzeko aukera dute.

2.- Botere judizialaren inguruko oinarrizko kontzeptu batzuk

Gaia sakontzen hasi aurretik kontzeptu batzuk argitzea garrantzitsua da. Besteak beste:

- Justizia: hitz polisemikoa da, esanahi askotarikoa. Konstituzioan, ordenamendu juridikoaren balore goren bezala (1.1. art.) eta Estatuaren funtzio bezala (117.3. art.) arautu egiten da.
- Epaitegi eta tribunalak: hizkera arruntean baliokide bezala erabiltzen diren arren, berez, ez dira gauza bera. Lehenak botere judizialaren organo unipertsonalak dira; bigarrenak, berriz, organo kolegiatuak.
- Epaile eta magistratu: antzeko arazoa gertatzen da epaile eta magistratu hitzekin, modu arruntean baliokide bezala erabiltzen direla. Alta, epaitegietan epaileek egiten dute lan, Tribunaletan Magistratuek lan egiten dutelarik.

Aurreko definizioekin batera, botere judizialaren inguruko hiru ohar:

- Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia epaileen gobernu organoa da, baina ez da botere judizialaren parte, ez baitu funtzio jurisdikzionalik betetzen.
- Konstituzio Auzitegia ere ez da botere judizialaren parte (Konstituzioan aparteko titulu batean arautzen da, IX. Tituluan hain zuzen).
- Auzitegi Gorenari dagokionez (gaztelaniaz, Tribunal Supremo), ez da instantzia organo bat, kasaziokoa baizik. Zer esan nahi du horrek? Bada, Zuzenbidearen aplikazioa eta interpretazioa aztertzen dituela, baina ez gertakariak. Auzitegi Gorenak bost sala ezberdin ditu: zibila, penala, soziala, administrazio-auziena eta militarra.

3.- Botere judizialaren printzipio konstituzionalak

3.1. Zilegitasun demokratikoa eta jurisdikzio eskusibotasuna

Botere Judizialaren printzipioetan lehean zilegitasun demokratikoarena da, eta bere abiapuntua Konstituzioaren 117.1 artikuluan kokatzen da, esaten duenean “Justizia herritik sortzen da”.

Aitzitik ez dute herri ordezkariak aplikatzen, funtzionarioek baizik. Nondik dator orduan bere zilegitasun demokratikoa? Konstituzioarekiko eta legearekiko menpekotasun gogorretik. Soilik legea aplikatzen dute, ezin dute sortu. Beraz, botere judiziala demokratikoki zilegitzen da arazoak herriak, Parlamentuaren bidez, onartutako legeak aplikatuz konpontzen dituelako.

Zilegitasun demokratikoa herritarren parte hartzea sustatuz lortzen da ere, herri epaimahaien bidez lortzen dena (EK 125. art.).

Hori esanik, Justizia Erregearen izenean administratu egiten da, Estatuaren batasuna eta iraunkortasuna adierazten dituelako. Soilik horregatik, ze, jakin badakigunez, Erregea ez da Estatu botere bat.

Bestalde, jurisdikzio eskusibotasunari dagokionez, esaten da epaile eta magistratuen funtzioa epaitzea eta epaitutakoa betearaztea dela; hori soilik, baina hori eskusiboki. Soilik epaile eta tribunalek epai dezakete, eta gainera horretara behartuta daude, ezin baitute kasu bat epaitu gabe utzi, erantzun judizialik eman gabe utzi. Ez dute zuzenbidea egiten, soilik epaitzen dute. Hori esan nahi du.

Epaileak dira denak, Estatu Espainoleko funtzionarioak.

3.2. Antolakuntza eta funtzionamendu printzipioak

Antolakuntza printzipio nagusiak batasuna eta independentzia dira.

Batasunak berarekin dakar ez dagoela tribunal berezirik, esaterako, frankismoan bezala, non delitu politikoak epaitzeko epaitegi berezia zegoen (TOP edo Tribunal de Orden Público), ohore epaitegiak zeuden (egungo Konstituzioaren 26. Artikuluan debekatuak daudenak)... eta abar.

Beraz, gatazkak Estatuaren botere judizial unitarioan integraturik dauden ohiko tribunal eta epaitegietan konpondu behar dira. Jurisdikzio militarra berezia da, baina helegiteak Auzitegi Gorenera bideratuz mantentzen da jurisdikzio batasuna.

Independentziari dagokionez, Justiziaren balio zentrala da: epaile guztiak independenteak dira. Zer esan nahi du? Berez, ez dagoela lotura politikorik (irizpide politikoen jarraipenik) edota hierarkikorik (epaileek ez dituzte aginduak betetzen, ezta gaineko epaitegienak ere).

Azken apunte bat: Estatu sozialaren aldarrikapenak bere itzulpena dauka Justiziaren funtzionamenduan, doako funtzionamendua duena legeak hala dioen kasuetan eta betiere baliabide ekonomikorik ez duten herritarren kasuetan (EK 119 art.).

Lehen irizpide orokorra doako justiziarena bazen, aurreko hamarkadan egindako lege moldaketa batek tasak ezarri zituen justiziaren erabileran, helburu nagusia kasuen murrizketa ematea eta egun kronikoak diren atzerapenak txikitzea zirelarik.

4. Epailearen estatutua

Epaileek estatutu propioa dute, Botere Judizialaren Lege Organikoan definitzen dena, 378-427 artikuluetan. Haren barruan kokatzen dira epaileen prerrogatibak, bateraezintasunak eta debekuak. Aipagarriak dira:

- Mugiezintasuna (378 art.). Epaile bat dagoen tokitik ezin da mugitu. Epaileen posizioa blindatuta dago, ezin da mugitu haien lekutik.
- Immunitatea du (398 art.). Ezin dute atxilotuak izan. Ezda immunitate oso zabala mugak ditu.
- Prerrogatibak (383-385 art.).
- Independentzia ekonomikoa (402 art.). Jarduera ekonomiko garestiak aurrera eramanez ahal izateko, mantendu behar dute independentzia ekonomikoa.
- Erantzukizuna izaten ahal du (405 eta hur.):
 - Penala: esaterako, prebarikazio deliturik egin badu. Erabaki bat hartu, jakinda zuzenbidearen aurka doala. Epaitu jakinda epaiketa hori ez dela justua.
 - Disziplinarioa: falta arin, larri eta oso larriak aurreikusten dira, eta lanpostua galtzera hel daitezke.
 - Zibila: lehen aurreikusten zen epaileak sortutako kalteengatik erantzule zibil izan zitezkeela, baina 2015ean egindako lege moldaketan ezabatu egin zen. Egun, kalterik sortzen bada justiziaren funtzionamendu oker baten ondorioz, erantzulea Estatua da.

5. Jurisdikzioa antolatzeko irizpideak

Nola eta zeren arabera antolatzen diren epaitegiak, antolakuntza jakin bat dute.

Botere Judizialaren parte diren Epaitegi eta Tribunalak lurralde irizpideen, irizpide materialen eta irizpide hierarkikoaren arabera ordenatu egiten dira.

- Lurralde irizpidearen arabera: Botere bat eta bakarra baina deskonzentratua. Deskonzentrazioa da gailentzen den irizpidea. Botere judiziala bat eta bakarra da (17 erkidego autonomo dauden arren) baina lurraldea deskonzentratu egiten da, demarkazio judizial ezberdinetan, betiere Auzitegi Gorenean bukatuz. Ezberdinu egiten dira udalerrriak, partidu judizialak (eskualde judizialak), probintziak eta erkidego autonomoak (BJLOaren 30. art.).
- Irizpide materialaren arabera: gai ezberdinen arabera ordenatzen dira epaitegiak: orden zibila (arazo pribatuak: alokairu, dibortzioak), laborala (lan kontratuekin zerikusia), penala (delituei eragiten diena), eta administrazio-auziak (isuna, lizentzia...) (BJLOaren 9. art.). Gero, bakoitzaren barruan epaitegi espezifikoak egon daitezke: epaitegi merkantilak zibilaren barruan, genero indarkeria epaitegiak penalaren barruan, espetxe-zaintza, adingabeak...
- Irizpide hierarkikoaren arabera: epaitegiak ez daude denak maila berean, hierarkikoki ordenaturik baizik. Horren arabera, helegiteak jartzeko aukera ezberdinak jaiotzen dira.

- Lehen instantzia (salaketa bat jartzen duzu lapurtu dizutelako, hau helduko da instrukzio epaitegira)
 - Bigarren instantzia edo apelazioa (zuk epaitegietan arazo zibil bat izan duzu, pisu bat alokairuan duzu eta ez dizute ordaintzen, salaketa bat jartzen eta apelazioa egiten da goiko tribunalean jartzen dena.
 - Kasazioa edota rebisioa.
- Gailurrean AAEEtako Auzitegi Gorenak daude, eta gero Auzitegi Gorena.

6. Justiziaren gobernua: botere judizialaren kontseilu nagusia

Historikoki judikaturaren gobernua Gobernuaren esku geratzen bazen (Justizia Ministroaren esku), gaur egun, ustez independentea den organo bati ematen zaio: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia (gaztelaniaz, Consejo General del Poder Judicial). Ez da botere judizialaren alde, ezin ditu epailerik egin. Independentia dena, justizia ministeriotik ateratzen da.

Bere funtzioak Konstituzioan jasotzen dira, nagusiki: izendapenak, igoerak, inspekzioak eta diziplina-erregimena.

Osaketari dagokionez: 20 kide + 1 presidentea

- 12 kide epaile eta magistratuen artean hautatuak. Sei Kongresuak eta beste sei Senatuak, 3/5eko gehiengoz.
- 8 kide abokatu eta izen handiko legelarien artean hautatuak, gutxienez 15 urteko lan eskarmentua dutenak. Kasu honetan, lau Kongresuak izendatuak eta beste lau Senatuak izendatuak, 3/5eko gehiengoz.
- Presidentea: 20 kideek hautatzen dute, 2/3eko gehiengoaz. Auzitegi Gorenaren burua da ere.

Ikuspegi konstituzional batetik organo independentea bada ere, materialki alderdi nagusien esku geratu da Kontseilu honen izendapena, organoaren izaera guztiz politizatu delarik, bereziki, goi auzitegietako epaile eta magistratuak izendatzeko duen eskumenagatik. Hori izan da, hain zuzen, azken urteetan Kontseilu hau berritzeko ezintasuna azaltzen duen elementu nagusia.

7. Botere judizialaren batasuna eta autonomien estatuaren garapena

Esan da aurretik botere judiziala unitarioa eta bakarra dela. Bada, edonola ere, horrek ez du esan nahi autonomien estatuak isla bat ez duenik botere judizialarengan. Antolakuntza planoan, plano funtzionala eta eskuduntzen planoan ezberdindu behar dira:

- Antolakuntza planoan nabarmendu egiten da Auzitegi Nagusien existentzian Erkidego Autonomikoetan. Edonola ere, Tribunal hauek ez dira egitura autonomikoak; ez dira Gernikako Estatutuan edota Nafarroako Foru Hobekuntzan arautzen (aipamena egiten zaien arren), Botere Judizialaren Lege Organikoan arautzen dira eta Estatu Zentraleko organoak dira.
- Plano funtzionalean bi datu nabarmendu daitezke:

- Hizkuntza koofizialen erabilera Justizian. BJLOko 231 artikuluan arautzen denez, epaile eta magistratuek gaztelania erabiliko dute, salbu eta auzitan dauden bi aldeek hizkuntza koofiziala erabiltzeko arazorik jartzen ez badute. Gainera, herritarrek eskubidea dute justiziarri hizkuntza koofizialean zuzentzeko. Errealitatea da Euskal Herrian ez dela euskarazko epaiketarik ospatzen.
- Ez ohiko errekursoak Erkidego Autonomoko Justizia Auzitegi Nagusiaren aurrean (gaztelaniazko “recurso de casación autonómica delakoa”).
- Eskuduntzen planoan: Justiziaren administrazioa Estatuaren eskumen esklesioba da (149.1.5 CE), baina, halaere, AAEEK badituzte eskumen exekutiboak eta kudeaketazkoak, bai pertsonal ez judizialaren gainean eta baita bitarteko materialen gainean ere (eraikinak, teknologia...).

8. Ministerio fiskala

Konstituzioaren 124. Artikuluan arautu egiten da eta Estatuaren izenean akusazio ofiziala egitea dagokio. Bere funtzioen artean zerrendatzen dira Justiziaren ekinbidearen promozioa, legalitatearen, herritarren eskubideen eta interes publikoaren defentsan, bai ofizioz nola interesatuek hala eskatuta. Tribunalen independentziaren defentsa ere badagokio, hauetan interes soziala bete dadin.

Funtzionamendu printzipioei dagokienez, nabarmentzekoak dira batasuna eta hierarkia. Zer esan nahi du honek? Bada, epaileen kasuan ez bezala, fiskalek bai, bere arduradun hierarkikoen irizpide eta aginduak jarraitu behar dituztela. Hierarkia horren gailurrean Estatu Fiskal Orokorra dago, erregeak izendatzen duena Gobernuaren proposamenaz (materialki erabakia Gobernuak hartzen du).

Egun fiskaltza bereziak daude: ustelkeriaren aurkakoa, antolatutako delinkuentziaren aurkakoa, drogen aurkakoa...

- Estatu batuetako fiskaltzak izaera punista: kartzelak negozio pribatuak, gero eta preso gehiago edukitzea helburu.
- Espainian helburua berez bergizarteratzea: fiskaltzak beraz kasuko akusatua errudun hartzen badu zigor horien alde ezarri, bestela abosoluzioa eskatu.
- Fiskaltzak gainera izaera jerarkikoko organoa dela kontuan hartu beharko dugu, fiskalak ordenatzen zaizkien kasuak hartzeko betebeharra daukate. Epaileek aldiz ez.

10: GAIA: Konstituzio auzitegia

1. Sarrera

2. Konstituzio auzitegia

3. Legeen konstituzionaltasun kontrola

3.1. Orokorrean

3.2. Konstituzio kontrakotasun helegitea

3.3. Konstituzio kontrakotasun galdera

4. Oinarrizko eskubideen babesa: babes helegitea

1. Sarrera

Europako lehen konstituzioak Frantziar Iraultzaren garaikoak badira ere, esan behar da XX. mendeko bigarren hamarkadara arte, Konstituzioak, Europan, dokumentu juridiko baino, dokumentu politiko izan zirela. Estatuaren oinarritzko egitura jasotzen zuten, botere banaketa ezarri eta, kasu batzuetan, eskubideen zerrenda jaso ere, baina gero, horien berme juridikoa lege bidez egiten zen, ez Konstituzioa oinarri hartuta. Parlamentua subiranoa zela ulertzen zenez, ohikoa izan zen legegilea testu konstituzionalen gainetik jartzea.

Noizkoak dira, bada, Europako lehen Auzitegi Konstituzionalak? Gerra-artean hasi zen Konstituzioaren defentsa indartzen, bilakaera luze baten ondorioz. Orduan sortuko ziren, Kelsen legelari austriarraren eraginez, jurisdikzio konstituzionala eta lehen Konstituzio Auzitegiak. Dakigunez, nazien eta faxisten gehiegikeria “legalen” ondorioz, Bigarren Mundu Gerratik aurrera Konstituzio Auzitegien existentzia zabaldu egingo zen, misio bikoitzarekin:

- Batetik, Konstituzioaren gailentasun juridikoa bermatu, horretarako, besteak beste, Parlamentuak onartutako legeak indargabetzeko eskumenak izango zituelarik Konstituzio Auzitegiak.
- Bestetik, herritarren oinarritzko eskubideak babestuz, horretarako prozedura berezitu bat ezarri eta, oinarritzko eskubideei, lege bermearekin batera konstituzio-bermea emanez.

2. Konstituzio auzitegia

Konstituzioaren IX. Tituluan arauturik datorren arren (alegia, botere judizialek kanpo, VI. Tituluan arautzen dena), benetako organo jurisdikzionala da. Definizioz, gainera, Konstituzioaren interprete goren da.

Konstituzio Auzitegiaren osaketari dagokionez:

- 12 kidek osatzen dute (4 Kongresuak hautatuak eta beste 4 Senatuak -3/5eko gehiengoz-, 2 Gobernuak eta 2 Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak).
- Lehendakaria: hautatutako 12 magistratuen artean hautatzen da, gehiengo absolutuz, eta berdinketa kasuetan **kalitatezko botoa** du.
- Betekizunak: izen handiko legelariak behar dute izan, izan epaile, fiskal, unibertsitate irakasle, funtzionario ala abokatu, eta betiere 15 urteko lan eskarmentuarekin.
- 3 urtetik behin Tribunalaren heren bat berri egiten da (beraz 9 urtean behin osoki berriturik).
- Bateriaezintasunak: ezin dute bestelako aktibitate profesional edo merkantilik egin.

Egituraketari dagokionez:

- Osoko bilkura bat: 12 magistratuek osatzen dute eta gairik garrantzitsuenak erabakitzen dituzte, dagokion aretoak hala eskatzen badu (kasurik polemikoenak).
- Bi areto edo sala: seina magistratuko osatzen dituzte eta babes helegiteak ebatzea dute zeregin nagusi.
- Lau atal edo sekzio: hiruna epailez osaturik, nagusiki kasuen izapidetzea dagokie.

Konstituzio Auzitegiaren eskuduntzei dagokionez, Konstituzio Auzitegiaren Lege Organikoan (KALO) zehazten dira, eta honakoak dira:

- Konstituzio kontraktasun helegiteak ebatzea.

- Konstituzio kontrakotasun galdera ebaztea.
- Babes helegiteak ebaztea. Auzitegia kolapsatu duen afera da, eta, horren ondorioz, orain izapidetzea askoz zorrotzagoa da (kasu gehienetan izapidetzea ezetzatu egiten da).
- Eskuduntza gatazkak: Estatu eta Autonomi Erkidegoen artean edota hauen artekoak. Bi eratakoak izan daitezke:
 - Positiboak: biek eskuduntza aldarrikatzen dutenean.
 - Negatiboak: biek beren eskuduntza ukatzen dutenean.
- Atribuzio gatazkak organo konstituzionalen artean.
- Nazioarteko tratatuen kontrol prebentiboa (EK 95 art. eta KALO 78 art). Prebentiboa da sinatu eta argitaratu aurretik egiten delako. Gobernuak, Kongresuak edo senatuak eska dezakete.
- KALOn V. Tituluan jasotakoak.
- Tokiko autonomiaren defentsan udalerrri zein probintziak Autonomi Erkidegoetako edo Estatuko legeen aurka jarritakoak.
- Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Arau Fiskalen aurkako helegiteak.

3. Legeen konstituzionaltasun kontrola

3.1. Orokorrean

Konstituzionaltasun kontrolaz ari garenean, izaera judiziala duen organo batek egiten duen kontrolaz ari gara, zeinak helburu baituen Konstituzioaren nagusitasunarekiko errespetua bermatzea.

Zuzenbide konparatuari erreparatzen badiogu, bi eredu nagusi ezberdindu ditzakegu:

- Difusoa edo hedatua: jurisdikzio arrunteko epaile eta auzitegiek egiten dute. Alegia, edozein epailek egiten du; kontrola kasu zehatz baten bidez egiten da; epaileak ez du legea indargabetzen, baina ez zaio kasu zehatzari aplikatuko. Aurrekaria: Marbury Vs Madison
- Kontzentratua: organo berezi batek egiten du, ez da kasu zehatzean oinarritzen (zuzenbidearen ikuspegi orokorra gailentzen da) eta legea indargabetu dezake.

Egiari zor, bi eredu arteko ezberdintasunak murriztuz doaz.

Espaniar kasuari dagokionez, esan egin behar da bi ereduetatik edaten duela 1978ko Konstituzioan jasotzen den konstituzionaltasun kontrola, eta hura aurrera eramateko ez dela soilik Konstituzioa aplikatzen parametro bezala, Konstituzionalitate bloke osoa baizik (28.1 LOTC), zeinaren parte diren, Konstituzioaz gain, autonomi estatutuak, hauteskunde araudi orokorra, Kongresu eta Senatuaren erregelamenduak...

Hori esanik, zeren inguruan egiten da konstituzionaltasun kontrola?

- Autonomi estatutuak eta Lege Organikoak
- Lege mailako arauak (izan Estatuarenak nola AAEEenak)

- Nazioarteko tratatuak
- Parlamentu ezberdinetako Erregelamenduak.

Bukatzeko, Konstituzio-kontrakotasuna formala edo materiala izan daiteke:

- Formala: prozedura errespetatzearen beharraz ari gara, jakinik prozedura akats guztiek ez dakartela, berez, legearen baliogabetasuna.
- Materiala: edukiei eragiten diena da.

3.2. Konstituzio kontrakotasun helegitea

Nortzuk daukate zilegitasuna lege mailako arau baten aurkako konstituzio kontrakotasun helegite bat tarteratzeko?

- Arartekoa eta Gobernu Presidentea
- 50 diputatu edo senatarik
- AAEEtako gobernu edo parlamentuek
 - Beren autonomiari eragiten badie
 - Ezin dituzte aurkatu beste erkidegoen legeak.

Zein da bere eragina?

Normalean helegitearen izapidetzearen onarpenak ez du eragin suspentsiborik, salbu eta Estatuak autoni erkidego baten aurka jarritako helegiteaz ari bagara eta hori bera eskatzen badu. Orduan suspentsioa automatikoa da eta 5 hilabeteko epean suspentsioa berretsi edo kendu behar du.

3.3. Konstituzio kontrakotasun galdera

Konstituzioaren 163 artikuluan arautzen da. Kasu honetan, epaile jakin batek planteatzen du, kasu zehatz bati aplikagarri zaion lege mailako arau baten konstituzionaltasunaren inguruan zalantzak baditu.

Hiru dira, berez, konstituzio kontrakotasun galdera egiteko betekizunak: lege mailako arau baten aurrean egotea, funtsezkoa izatea kasu jakin baten erresoluziorako eta Konstituzio kontrakoa izateko indizio arrazionalak egotea.

Auzitegiak izapidetzea onartzen badu, kasu zehatzaren epaiketa suspenditu egiten da Konstituzio Auzitegiak konstituzio kontrakotasun galdera erantzun arte. Behin erantzuna jasota, dagokion epaileak kasu zehatza epaitzen ahalko du.

Bitxikeri moduan, Konstituzio Auzitegiak berak konstituzionaltasun auto-kestioa planteatu diezaioke bere buruari, babes helegite bati baiezkua ematen bazaio kontsideratuz aplikatu den legeak oinarrizko eskubideak lesionatzen dituela. Kasu horietan, Aretoak Osoko Bilkurara igoko du gaia, erabaki dezan ia konstituzionala den ala ez.

4. Oinarrizko eskubideen babesa: babes helegitea

EK 53.2 artikuluan arautzen da, oinarrizko eskubideen defentsarako bitarteko konstituzional bezala. Bere babespean geratzen dira 14-29 artikulua eta 30.a kontzientzia eragozpenari dagokionez.

Hori esanik, helegite autonomo eta independentea da, ohiz kanpoko. Soilik tarteratu daiteke aurreko bide judizial osoa behin agortuta, alegia, beste helegite guztiak agortu direlarik.

Eraginari dagokionez, bere tarteratzea ez du aurkatzen diren epaien irmotasuna suspenditzen, soilik behin kasua aztertuta, Tribunalak babesa ematea erabakiko balu, orduan bai indargabetuko lirateke aurkatutako epaiak.

Zilegitasunaren aldetik: nork tartera dezake helegite mota hau? interes legitimoa duen pertsona fisiko eta juridiko oro, arartekoa eta Ministerio fiskala.

Eta noren aurka tartera daiteke? Printzipioz soilik botere publikoek egindako eskubide urraketan aurka tartera daiteke (partikularren ekintzen aurka ez), baina hala ere, EK 24 artikulua bidez fikzio bat egiten da eta praktikan onar daiteke (alegia, Tribunalek gure eskubideak bermatu ez badituzte).

Prozedura aldetik, nabarmenena 2015ean egindako aldaketa da, izapidetze prozedurari dagokionez, orain kasu partikularren *garrantzi konstituzional berezia* demostratu behar delako. Alegia, Tribunalari erakutsi behar zaio ez gaudela soilik interes subjektibo baten defentsaren aurrean, baizik eta, zuzenbide orokorraren ikuspegitik garrantzitsua dela kasua ebatzea, haren inguruko doktrinarik existitzen ez delako, dagoen doktrina berritzea beharrezkoa delako (adibidez, Estrasburgok dioenarekin bat egiteko), edota, epaitegi ezberdinek Konstituzio Auzitegiaren doktrina errespetatzen ez dutelako, besteak beste.

11. GAIA: estatuaren lurralde antolaketa

1.- Sarrera

2.- Espainiar estatua autonomi estatu bezala

3.- Estatu autonomikoaren prinzipio konstituzionalak

4.- Autonomia lortzeko bideak

5.- Eskuduntzen banaketa estatua eta autonomi erkidegoen artean

6.- Autonomia erkidegoen antolaketa

6.1. Autonomi Estatutua

6.2. Eskumenak

6.2.1 Estatuaren eskumen eksklusiboak

6.2.2. EAE-ren eskumen eksklusiboak

6.2.3. Estatua eta EAEaren arteko eskumen partekatuak

7.3. Organoak edo egituratze orokorra

1.- Sarrera

Dakigunez, Estatu era ezberdinak existitzen dira, nagusiki unitarioak ala konposatuak/konplexuak.

- Unitarioa: botere politikoari dagokionez maila bakarrean dago antolaturik eta, ondorioz, erakunde politikoak Estatu zentralarenak dira. Alegia; botere egiturak (botere betearazle, legegile eta judiziala) Estatu zentralarenak dira. Adibide garbiak ditugu Frantzia eta Holanda.
- Konplexua (federala edo konfederala): botere maila bikoitza aurki dezakegu hemen, non federazioa eta estatu-kideak (edo sub-estatuak) ezberdinu daitezkeen. Kasu honetan, biek dute erakundetze propioa (exekutibo, legegile eta judiziala), eta ereduak Amerikako Estatu Batuak edo Alemania izan daitezke, besteak beste.

Behin hori esanik, argi izan behar dugu ez dela gauza bera deszentralizazio administratiboa eta politikoa.

Administratiboaz ari garenean, Estatu zentralaren eskuduntzak entitate lokalei emateaz ari gara. Kasu honetan, autonomia zinez mugatua da, botere legegilerik gabe. Horrek esan nahi du udal eta probintzien arauak ez dutela lege mailarik, eta ondorioz, hauek sortzen dituzten arauak auzitegi arruntek kontrola ditzaketela (legalitate kontrola).

Deszentralizazio politikoaz ari garelarik, autonomia maila handiagoaz ari gara, botere legegilea barnebiltzen duena. Ondorioz parlamentu lurraldetarrak existitzen dira, zeinak ordenamendu juridiko propioa sortzen baituten, eta hauen arauak, lege mailakoak, Auzitegi Konstituzionalak kontrolatzen ditu.

Estatu erregional autonomikoen kasua berezia da, Estatu eredu unitario eta konplexuaren artekoa. Formula politiko malgua da, tokian toki ezaugarri ezberdinak biltzen dituen. Esaterako: Autonomia erregionala lurralde osora zabal daiteke (Espainiaren kasuan bezala) edo toki batzuetara bakarrik (Portugalen bezala, non Madeira eta Azore uharteetara zabaltzen den soilik). Halere, ezaugarri hauek nabarmendu daitezke:

- Konstituzioan autonomia duten lurralde-erakundeak ezartzen dira.
- Hauen funtsezko arauak autonomi estatutuak dira.
- Konstituzioan eskuduntzen banaketa egiten da Estatu zentralaren eta erregio/autonomien artean (tokian toki ezberdinak).

2.- Espainiar estatua autonomi estatu bezala

Espainiar Estatu autonomikoaren oinarri konstituzionala Konstituzioaren 2. Artikuluan eta VIII. Tituluan jasotzen da. Lehenak, “nazionalitate eta erregioen” autonomiarako eskubidea jasotzen du, Espainiaren batasun ezin-hautsizkoaren markoan. Bigarrenak, berriz, Estatua udalerrri, probintzia eta Autonomi Erkidegoetan (AAEE) antolatzen du.

Hortik aurrera, mapa autonomikoa finkatu gabe, bide ezberdinak zabaltzen dira Konstituzioan, betiere argi izanik autonomia botere exekutibo eta legegileraz zabaltzen dela, baina ez judizialera.

Berez, Estatu autonomikoaren oinarritzko elementuak federalismoaren berezko elementuekin bat datoz neurri handi batean:

- Botereen maila bikoitza dago.
- Hauteskunde autonomikoak daude.
- Autonomiek eskumen eremu zabala eta finantzaketa objektiboa (Parametro objetibo batzuk ipini, egin daitezkeen inbertsioei mugak ezartzeko. Azkenaldian Katalanak kexatu gobernuak hegoaldeko herriei ematen zaiela laguntza edo diru inbertsio horiek, mahaigaineratuz historikoki Kataluniak asko eskaini duela ekonomiko eta bueltan ez zaiola behar adina iritsi) dute.
- Estatuaren eta AAEEen arteko gatazkak Konstituzio Auzitegiak konpontzen ditu.

Hortik aurrera, gainera:

- Hizkuntza propioak dituzten AAEEK beren hizkuntzen koofizialtasuna aldarrika dezakete, baina gaztelaniaren nagusitasuna arriskuan jarri gabe (EK 3 art.). Konstituzio Auzitegiak honezkero berretsi du betebeharrak konstituzional bezala soilik gaztelania ezar daitekeela.
- Udalen eta autonomien arteko erdi mailako erakundeak aitortzen dira: EAEn lurralde historikoak; Kanarrietan Kabiloak; Balear Uharteetan Irla-kontseiluak, eta abar.
- Erro historikoak dituen Zuzenbide zibil propioa ere aitortzen da: EAEn, Nafarroan, Aragoien, Katalunian, Valentzian, Balear uharteetan eta Galizan.
- Polizia propioa dute EAEn, Nafarroan eta Katalunian.
- Eskubide historikoetan oinarrituz, Kontzertu ekonomikoa EAEn eta Hitzarmen ekonomia Nafarroan onartu egiten dira. → tresna horien izenak ezberdinak dira baina mekanismo bera daukate.

3.- Estatu autonomikoaren printzipio konstituzionalak

Nagusiki bi dira: batasun printzipioa eta autonomia eskubidea.

1. Batasuna: bere adiera guztietan.
 - a. Batasun politikoa: Espainiaren batasun hautsi-ezina (2 art) + subiranotasunaren titular bakarra Espainiako herria da (1.2 art) + indar armatuek bermatzen dute batasun hori (8 art).
 - b. Batasun juridikoa: Konstituzioaren nagusitasuna (9.1 art) + lurraldeen arteko botere banaketa (139, 149 eta 150 art.).
 - c. Batasun ekonomikoa (139.2 art.): ezein agintarik ezin ezar lezake pertsona edota ondasunen zirkulazio askea mugatuko duen trabarik.
2. Autonomi eskubidea:

Konstituzioan ez da mapa autonomikoa finkatzen, ezta nolako autonomi maila izango duten ere.

Nahiz eta bi motatako autonomi-erkidego egon (bide mantsoa eta bide azkarra hartu zutenak), eskumen mailari dagokionez ez dago ezberdintasunik.

Autonomia eskubide bat da; politikoa da (ez soilik administratiboa); mugatua da; eta nahiko homogenea.

Beste printzipio batzuk:

1. Elkartasuna: 2, 138 eta 150.2 art.
2. Lurraldeen arteko berdintasuna: Autonomi Estatutuen arteko ezberdintasunek ezin dute pribilegio ekonomiko edota sozialik suposatu (138.2 art). Kontuz! Berdintasunak ez du zertan uniformitate esan nahi. Hortik, esaterako, lurralde historikoen berezitasunak aintzat hartzea.
3. Hiritarren eskubide eta betebeharren berdintasuna. Autonomi erkidego guztietan hiritartasun status juridikoa berdina da (149.1.1 art).

4.- Autonomia lortzeko bideak

Esan den bezala, Konstituzioak ez du mapa autonomikoa ixten. Konstituzioak lau bide ezberdin bereizten ditu.

- Bide “motela” (143 art.): 148 artikuluko eskumenak har zitzaketen baina 5 urte itxaron behar zuten beren eskumenak 149 artikularen barruan zabaltzeko.
- Bide “lasterra” (151 art.): lehen unetik, 149 artikularen markoan beren eskumenak zabal zitzaketen, 5 urtez itxaron gabe.
- 2. Xedapen iragankorra: 2. Errepublika garaian autonomia estatutua plebiszitate zuten nazionalitate historikoei aurreikusi zitzairen bide propioa (azkarra). Kataluniak, Euskadik eta Galizak hartutako bidea izan zen.
- 1. xedapen gehigarria: Eskubide historikoen aitortzan oinarrituz autonomiarako bide propio eta singularra egin zuen Nafarroak. Bere autonomi estatutua plebiszitate ez zuen lurralde historiko bakarra izan zen.

Autonomia Estatuaren oinarria “*café para todos*” esaeran laburbildu zen. Autonomia batzuen aldarria zen arren (bereziki Katalunian, Galizan eta Euskadin, baina baita, esaterako, Andaluzian ere), Estatu barruan asimetriak ez sortzearen nahiago izan zuten autonomia lurralde guztiei eskaini, baita berez autogobernurako nahi handirik ez zuten lurraldeei ere.

Berez, bi bide eta bi maila autonomiko ezberdin aurreikusten ziren, baina gauzak ez ziren hortik joan.

1981eko Estatu kolpearen ondotik, “gehiegikeria territorialei” muga jarri nahi izan ziena, LOAParen gatazka etorri zen. Estatuaren saiakera izan zen lurralde banaketa uniformizatzeko, baina Konstituzio Auzitegiak bere artikuluetako asko indargabetu egin zituen (KAE 76/1981), autonomia politikoaren izaera konstituzionala ezin zela lege estatal batekin murriztu esanez. Handik bi urtera, Auzitegi Konstituzionalak salbatutakoarekin *Ley del Proceso Autonómico* delakoa onartu zen.

Handik urte batzuetara, 1992an egindako hitzarmen autonomikoekin eta orduan sustatutako Estatutuen erreformarekin autonomien arteko ezberdintasunak desagertu egin ziren, eskumen gutxiago zutenek gehiago lortuz.

Ibilbide autonomikoa ulertzeko baliagarria izan daiteke: <https://app.congreso.es/consti/constitucion/indice/sinopsis/sinopsis.jsp?art=148&tipo=2>

5.- Eskuduntzen banaketa estatua eta autonomi erkidegoen artean

Eskuduntzez ari garenean, ongi ezberdindu behar dira: batetik, GAIA edo MATERIA (adibidez: defentsa, etxebizitza, gizarte-laguntza) eta, bestetik, FUNTZIOA (funtzio legegilea eta betearazlea).

Zer da, bada, eskuduntza bat? Gai edo materia baten inguruko funtzio baten gaineko titulartasuna, Estatuaren ala Autonomi Erkidegoen esku geratzen dena. Esan dugunez, Konstituzioak ez du zehazten zenbat eta zeintzuk diren AAEEak, ez eta bere eskumenak ere.

Konstituzioak hiru zerrenda ezberdinetan kokatzen ditu eskumenak:

- 148. art.: Autonomi Erkidegoek har ditzaketen eskumenen zerrenda (zerrenda itxia da).
- 149. art.: Estatuaren eskumen eskusiboen zerrenda (itxia da).
- 149.3 art.: Estatuaren eskumen eskusibo bezala aipatzen ez diren materien zerrenda (irekia), AAEEk asumi ditzaketenak euren autonomi estatutuetan (asumitzen ez badituzte, Estatuarenak izango dira).

Hortik aurrera, autonomien eskumenak handitu daitezke eredu legeen bidez (150.1 art.) edo transferentzia legeen bidez (150.2 art.) edota murriztu, harmonizazio legeen bidez (150.3 art.).

Eskuduntza motei dagokionez, ezberdidu ditzakegu:

- Eskumen eskusiboak. Gai edo materia baten gaineko funtzio guztiak entitate berdinen titulartasunaren pean geratzen dira. Alegia, funtzio betearazle eta legegilea.
- Eskumen konpartituak: Gai edo materia baten gaineko funtzioak subjektu ezberdinen esku geratzen direnean. Esaterako: Estatuarena da oinarritzko legeria eta AAEEena legediaren garapena eta exekuzioa.
- Eskumen konkurrenteak: materia jakin baten gainean bi entitatek ahalmen berdinak dituztenean (legeria eta betearazpena).

Eskumen banaketa ulertzeko erabilgarria izan daiteke Diputatuen Kongresuko Letratuek 149 artikulua inguruan egindako sinopsia:

<https://app.congreso.es/consti/constitucion/indice/sinopsis/sinopsis.jsp?art=149&tipo=2>

6.- Autonomia erkidegoen antolaketa

6.1. Autonomi Estatutua

Autonomi Estatutua da edozein Autonomi Erkidegoren oinarrizko arau instituzionala (147 art.) eta euren eduki minimoa honakoa da: AAEEEn izena, lurraldea, erakundeen izena-antolakuntza-kokapena, eskumenak eta erreforma prozedura. Horretan oinarrituz, esaterako, hauxe da Gernikako Estatuaren egitura:

Egitura: Atariko titulua + 4 titulu

- Atariko titulua: izena, bandera, hizkuntza...
- I Titulua: EAEko eskumenak.
- II Titulua: Botere antolaketa (legebiltzarra, jaurlaritza eta lehendakaria, justizia administrazioa, lurralde historikoetako erakundeak, euskal botereen kontrola).
- III Titulua: Ogasuna eta ondarea.
- IV titulua: Estatutua aldatzeko prozedura.

6.2. Eskumenak

6.2.1 Estatuaren eskumen eskusiboak

1. Naziotasuna, immigrazioa, emigrazioa, atzerritarrak, ...
2. Nazioarteko harremanak
3. Defentsa eta indar armatuak
4. Justizia-administrazioa
5. Zigor-legedia, merkataritza-legedia, espetxe- legedia
6. Lan-zuzenbidea (betearazpena salbu)
7. Zuzenbide zibila (foru-zuzenbidea salbu)
8. Jabetza- eta industria-legedia
9. Aduana eta muga-zergak
10. Kanpo-merkataritza
11. Diru-sistema, ...
12. Pisuei eta neurriei buruzko legedia, eta ordutegi ofiziala
13. Ogasuna eta Estatuaren zorra
14. Farmazia-produktuei buruzko legedia
15. Gizarte Segurantzaren erregimen ekonomikoa
16. Desjabetzeari buruzko legedia

17. Itsas merkataritza, itsasontzien ikurra, itsas trafikoa, interes orokorreko portuak eta aireportuak, aire-garraioa, meteorologia-zentroak...
18. Trenbideak eta garraioak, autonomia-erkidego bateko lurraldea gainditzen badute
19. Komunikazioen erregimen orokorra
20. Ibilgailuen trafikoa eta zirkulazioa
21. Posta-zerbitzua eta telekomunikazioak
22. Ur-erabilerak (ibaiek autonomia-erkidego bateko lurraldea gainditzen badute)
23. Interes orokorreko obra publikoak
24. Armak eta lehegailuen ekoizpena, edukitza, erabilera, ...
25. Segurtasun publikoa
26. Titulu akademikoak lortzeko baldintzak ezartzea
27. Erreferendumen deia egiteko baimena ematea

6.2.2. EAE-ren eskumen eskusiboak

1. Barne-erakundearen antolakuntza
2. Hauteskunde-legedia (Parlamentua, Batzar Nagusiak)
3. Araubide prozesala (foru-zuzenbideari lotuta)
4. Erkidegoko ondasun publikoak
5. Nekazaritza eta abeltzaintza
6. Barne-uretako arrantza eta ehiza-erregimena
7. Ur-erabilerak (EAEren barruko ibaietan)
8. Energia ekoizteko instalazioak eta energia- garraioa (erkidegoaren barnekoak)
9. Gizarte-laguntza
10. Fundazioak eta irakaskuntza-zentroak
11. Adingabeentzako zentroak
12. Espetxe-zentroak, birgizarteratzeko zentroak
13. Ikerkuntza zientifiko eta teknikoak
14. Ondare historikoa, ...

15. Artxiiboak eta museoak
16. Nekazaritza-ganberak, jabetza-ganberak, arrantzaleen kofradiak, lanbide-elkargoak
17. Notarioak izendatzea
18. Kooperatibak eta mutualitateak
19. Ekonomia-garapena eta ekonomia-planifikazioa - Barne-merkataritza
20. Kontsumitzaileen babesa
21. Industria
22. Lurralde-antolakuntza
23. Trenbide-, itsas eta errepede-garraioa EAeko lurraldearen barnean
24. Herri-lanak
25. Kasinoak, apustuak, ...
26. Kirola, turismoa, ...
27. Ikuskizunak

6.2.3. Estatua eta EAEn arteko eskumen partekatua

1. Hezkuntza:

Estatuak oinarrizko legedia onartzen du; eta EAEn oinarrizko alderdi horiek garatu. Ikerkuntza zientifikoa ezik, irakaskuntza erabat eskualdatuta dago.
2. Komunikabideak:

Estatuak oinarrizko legedia onartzen du; Estatutuaren 19.3 artikulua arabera EAEn telebista, irratia eta prentsa propioa arautu eta sor dezake (EITB)
3. Osasun-arlo:

Estatuak oinarrizko legedia onartzen du; Estatutuaren 18. Artikulua osasunari buruzko eskumenaz arduratzen da (Osakidetza: Osasun pertsonala EAeko funtzionarioak eta ospitaleak EAEn menpe)
4. Gizarte segurantzaren erregimen ekonomikoa eta gizarte-segurantzari lotuiko gainerako alderdiak:

Bereiztu behar da: gizarte segurantzaren erregimen ekonomikoa eta gizarte-segurantzari lotuiko gainerako alderdiak. Eskumen horrek banaketa konplexua du. Lehenengoan, EAEn kudeaketa eskumena soilik dagokio, bigarrena, legegintzaren garapena.
5. Oraindik eskualdatu ez diren eskumen batzuk:

Ingurmena, desjabetzearen erregimena, administrazio-erantzunkizunaren erregimena, arrantza-sektorearen erregimena, kreditua/bankuak/aseguruak, meatzak eta energia-erregimena...

6. Konkurrentziazko eskubideak (dirulaguntzak..) eta Eskumen bereizigabeak (Kultura...):

Arlo gutxi batzuetan Estatuak eta erkidegoak funtzio berak izan ditzateke (EK, 149.2)

7. Estatutuko 17. Artikuloa: Ordena publikoa (Ertzaintza):

Konplexotasun handiko eskumena

8. Autonomia Erkidegoak beren estatutuetan jaso ez dituzten eskumenak Estatuko eskumenak izango dira (EK 149.3)

7.3. Organoak edo egituratze orokorra

Eusko legebiltzarra:

- Ordezkaritza organo nagusia da. Ganbera bakarrekoa da, D'hont sistemaz hautatua 3 barruti ezberdinetan (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa).
- Funtzioak: Legegintza ahalmena, aurrekontuen onarpena, Gobernuaren kontrola eta bestelakoak: senatari autonomikoak hautatu, konstituzio kontrakotasun helegiteak aurkeztu...

Lehendakaria eta Eusko Jaurlaritza:

- Funtzioak: Legegintza ekimena, erregelamenduen onarpena, erkidegoaren zuzendaritza politikoa eta administrazioaren gidaritza.
- Osaketa:
 - Gobernu kontseilua: Lehendakaria + sailburuak. Sailburuak lehendakariak izendatu eta kargugabetzen ditu. Sailburuek beren saileko administrazioa zuzentzen dute.
 - Lehendakaria: parlamentuaren konfiantza behar du. Parlamentuak hautatzen du.

EAEko Auzitegi Nagusia: ez da Autonomi Erkidegoko organoa.